

## Gaikako bilketa, atzeratuta

Bergaran ez dute apirilean ezarriko | 16



Udal eta prentsa ordezkariak. | G.A.

Aratuste-martitzeneko argazkiak, herririk herri | IKUS 'HERRIAK' SAILA



Udal zergetan bonifikazioak eska daitezke, 25era arte | 24



Hardcore musikak bere lekua berreskuratuko du Tapofest-en | 31

## URAREN OSTEAN, LURRA

Lur-jausi ugari gertatu dira ibarreen; Aretxabaletako konpontzeko inbertsio handia egin beharko dute | 22



Martitzenean bidegorria itxi zuten.

Gazteak Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorriko lur-jausiari begira, atzo, eguena. | XABIER URZELAI

## Mojek, oraindik ere, umezurtz segitzen dute

Elizbarrutiak babestu eta euren beharrak aseko ditu, momentuz | 4

## Antzuolako 8 Miliak probaren estreinaldia domekan

300 parte-hartzaile espero dituzte 13 kilometroko lehian | 28

### SINADURAK

	URTZI AMIANO   6
	6   ZURIÑE VELEZ DEMENDIZABAL
	AITOR IZAGIRRE   14
	16   JOSU ELORZA
	KATALIN ANTIXIA   22
	40   AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6  
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 12 | KIROLA 28  
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36  
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

## "Berme osoa egon arte, ez dugu egingo



## frackinga"

Arantza Tapia | Garapen Ekonomikoko sailburua | 10



Mbaye Ndiaye zena. | GOIENA

## Ndyaye-ren gorpua gaur bidaliko dute Senegalera | 17

## Škoda Scout



TEKNOLOGIA  
Eboluzionatzea nor bere buruarekin fidela izatea da.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



# Lurrak ezin izan dio urari gehiago eutsi

- ▶ Elurrarekin, goia jo du lurraren ur-saturazio mailak; hortik lur-jausiak
- ▶ Lur-jausi asko izan dira: Aretxabaletan, Aramaion, Bergaran...
- ▶ 700 litrotik gora bota du bailaran azken hilabetean, marka historikoa

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ustekabe ederra izan zen astelehen gaueko eta martitzeneko elurtea. Egun bakarra iraun zuen arren, endredu asko eragin zituen, eta bere ondorioak hurrengo egunetan ere igartzen ziren, nahiz eta elurra laster baten garbitu zuen euriak. Ondorio larriena, Debagoiengan eta Euskal Herriko leku askotan, lur-jausiak izan ziren.

Debagoiengan asko gertatu dira; besteak beste, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorrian, Bergaratik Osintzurako noranzkoan auzoko sarreran, Parteittira bidean (Angiozarren) gertatu ziren luiziak, baina ez hor bakarrik; han-hemenka lurra edo zuhaitzak jausi dira, eta zirkulazioa oztopatzeaz gain, egoera arriskutsuak sortu dituzte. Aramaion izan da kasu ikusgarriena: AHTko lanen lurzati baten, Cuatrovientos base-riaren ondoan, orain bi urte errepedea itxi zen tokitik oso gertu, lurrak A-2620 errepedeko alde bat hartu zuen lur-jausiak eguaztenean, eta Aramaio Udalak txostena bidali behar dio Arabako Foru Aldundiari.

Gainera, nahiz eta eguraldi txarrena baretuta egon, eguenean ere lurra jausi zen zenbait lekutan; besteak beste, Bergara eta Elgeta arteko GI-627 errepedeko errail bat itxi egin behar izan zen arrazoi horregatik. Zorionez, ez da ezer larririk gertatu.

Horrez gain, elurra urtzen zihoan neurrian, uholde arriskua izan zen eta aparkalekuak erreka ertzetan dituzten herriek haiek ixteko abisua eman zuten larrialdi zerbitzuek.

Errekek ur handiekin jaisten ziren martitzenean eta baita eguaztenean ere; eta Segurtasun Sailak EAeko Uholde Arrisku Plan barruko 1. Larrialdi Egoera aktibatuta zuen martitzenean bertan, nahiz eta gerora beratu desaktibatuta zen, urak bere onera bueltatzen zihoazen neurrian.

## "Lurra ere behera dator"

Izan ere, martitzeneko elurteak bakarrik horrelako arazoak ez zituzkeen behar bada sortu izango, meteorologia aldetik hilabete historiko bat ez balitz honakoa; lur osoa urez beteta dagoen bat, hain zuzen ere. Euskalmet-eko arduradunak, Jose Antonio Arandak,

esaten duenez, Debagoiengan 700 litrotik gora bota du urtea hasi zenetik, "eta horietatik gehienak, hilabetean; urtarrilaren 12an hasi zen euria botatzen, eta ordutik ia ez du atertu. Hori erabat berezia da; marka historikoa da. Neuk, behintzat, ez dut halakorik ezagutu". Horren eraginez, azaltzen du Arandak, "lur guztia urez saturatuta dago; aire-milesima bakar bat ere ez da sartzen. Poro guztiak urez beteta daude, eta baita kanal txikiak, harri-arteak, lur-azpia... dena dago busti-bustia. Urak lubrikatzaile lana egiten du eta, gainera, pisua dauka. Horrez gain, haizeteak izan ditugu, eta horrek zuhaitzak mugitzen ditu. Eta berez

desegonkorrak diren maldatan, leku kritikoetan, lurrak eman egiten du". Bi fenomeno bereizten ditu Arandak: "Lurra labaindu egiten da eta geruza bat beste baten aurka doa; eta, bestetik, goitik behera datozen harriak eta arroka-zatiak, harriak arrastatzen dituzten errekatxoak... Denetarik dago".

Oraindik okerragoa izan zitekeen, ordea, Arandaren esanetan: "Oso lur bustiaren gainean izotza botako balu, ura puztu egingo litzateke eta jario gehiago eragingo litzuke. Baina oraingoz, badirudi ez dela horrelakorik izango".

Fermin Lezeta basozain eskoriatzarrak esaten duenez, "oso konplexua da" lur-mugimenduak aztertzea. Eguaztenean egon zen pinudi baten, eta "lurra bigun" topatu zuen: "Haizea etorriko balitz, arbolak jausi zitezkeen". Bere iritziz, gizakiaren eskuak izan dezake eragina, izan ere, "zenbait lekutan gerta daiteke ura behar ez zen lekura desbideratu izana" eta horregatik lurra solteago egotea; baina gogoeta hau egiten du berak: "Ura oso agudo mugitzen da; lurra ez, baina hura ere behera etortzen da. Baina, gure bizitzan zehar gutxitan gertatzen denez, ez gara konturatzen".

## Debagoiena, "kasu deigarria"

Debagoiengatik pasa den frontea ustekabea izan da. Euskalmet-eko arduradunak, Jose Antonio Arandak, honela azaldu digu zer gertatu zen: "Astelehen gauean, lehenengo fronte bat sartu zitzaigun, eta gero, fronte okluitua deitzen dioguna, hau da, fronte hotz batek



Lur-jausia izan zen eguaztenean Arrasate eta Aramaio artean. | JOKIN BEREZIARTUA



Erreka, oraindik handituta eguazten arratsaldean.

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04



Rosa Sarabia doktorea

**PronoKal<sup>®</sup> metodoa**

Zientzia eta zorrotztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa



## Azkenean eguzkia ikusiko dugu, eta ez ordu batzuetarako

EGUBAKOITZA

15

Frontearen hondarrak ikusiko ditugu goizean; eguerdian, ostarteak zabaltzen hasiko dira eta, pixkana, guztiz garbituko du zerua.



ZAPATUA

16

Antizikloiak b ete-bete hartuko du Debagoiena. Baliteke gauean, bailara barrenean, izotza ere botatzea. Oro har, eguraldi polita.



DOMEKA

17

Eguraldi ederrak jarraituko du aste bukaeran. Goizean behe-lainoa izango da. 15°C-ko maximoak izango ditugu.



ASTLEHEEHNA

18

Zertxobait zikinduko du. Temperatura jaitsi egingo da, eta haizeak mendebaldetik joko du, samur. Hala ere, oraindik eguraldi ontsua.



MARTITZENA

19

Zikintzen jarraituko du eta lainoak ugari egingo dira. Temperatura gorabehera handirik ez. Haizeak biziago joko du.



ITURRIA: EUSKALMET

fronte bero bat harrapatzen duenean. Fronte okluidu baten ezauzgarrietako bat da okertuta pasatzen dela gainetik. Horregatik, zalantza asko izan genituen nondik pasatuko zen frontearen zati okertuena, izan ere, 20 kilometro alde batera edo bestera egin, Kantabriatik Bizkaitik edo Debagoienetik sar daiteke, eta egoera zeharo aldatzen da".

Hauxe da gertatu zena, Arandaren azalpenaren arabera: "Sarreak ardatzak, azkenean, Bilbo eta Agurain arteko ustezko lerro baten izan zuen eragin handiena, eta zuon aldea, Debagoiena ere hartzen du horrek. Pixka bat alde batera edo bestera egin izan balu, beharbada zuon bailara ukitu ere ez zukeen izango".

Euskalmet eta Euskadiko larrialdi zerbitzuak erakunde bakarrean integratuta daude, eta Euskalmeten zeregin nagusia, hain zuzen, larrialdi egoerak aurreikustea eta larrialdi zerbitzu guztiendako informazioa ematea da. Horregatik, "egoera horiek dakarten arazo handiena larrialdi-sistema piloa aktibatu beharra da. Azken 30 egunak historikoak izaten dabilta, prezipitazio-kopuruagatik; eta batez ere Debagoieneko kasua oso deigarria da".

### Elur-kota, uste baino beherago

Euskalmet-ek eten barik eguneratzen du informazioa. Alde bateatik, alerten sistema daukate; segun eta zelako egoera dagoen, alerta horia, laranja edo gorria eman dezakete. "Otsail baterako eurikopuru historikoa da. Euskalmet-ek alerta laranja eman zuen, eta dagoeneko horrelako lau eman

ditugu otsailean; hori kopuru izugarria da". Izan ere, alertak kontu handiz erabiltzen dituzte: "Alerta horiak sarri ematen ditugu; informazio soila da eta jendeak alertei beldurra gal diezaien nahi dugu. Baina laranjak ahalik eta gutxien ematen saiatzen gara. Eta gorriak, oso arrisku handiari dagozkionak, urte askoan behin-edo ematen dira, jendeak benetan kontuan har ditzan".

Astelehen gaueko egoera orokorra ikusita, Euskalmetek prezipitazioak iragarri zituen. "Horrekin bete-betean igarri genuen, baina gero, guk uste baino gehiago kontzentratu zen. Fronteak erdi-erdian harrapatu zituen lekue-

tan, prezipitazioak eten bakoak zirenean eta haizea baretu zenean, elur-kota asko jaitsi zen. Horregatik, guk uste baino askoz beherago etorri zen elur-kota".

Lekuz lekuko elurraren iragarpena egitea "ezinezkoa" dela dio Arandak: "Gasteizen, 15 zentimetro elur izan ziren; 5 kilometro mendebaldera ez zuen zuritu ere egin; baina 20 kilometro ekialdera, 30-40 zentimetro elur izan genituen. Horregatik, ez da komeini alerta orokorra ematea, larrialdi zerbitzu guztiak mobilizatzen ditugulako. Beraz, betetzeko aukera gehien dituen kota iragartzen dugu". Gaineratzen duenez, ematen duten elur-kotak elurrak zurituko dituen lekuak adierazten ditu; ez berez urtuko den elurra, "kasu horretan larrialdi zerbitzuek edo mantenimendu-zerbitzuek ez dutelako zer eginik".

### Twitterren, azken ordukoak

Bestalde, egin duen iragarpena betetzen ez dabilela ikusten duenean, Euskalmet-ek Twitter sarea erabiltzen du informazio berria emateko, eta hura jarraitzeko animatzen du Jose Antonio Arandak: "Twitterren @euskalmet erabiltzen dugu; adibidez, nonbaiten zuritzen dabilenean eta kontuz gidatu behar denean; edo norbaitek argitaratzen dituen argazkiak zabaltzen ditugu, adibidez, Arrasaten elurra diharduen argazkiak, jendeak jakin dezan. Lehenengo egiaztatu egiten dugu eta gero hedatu egiten dugu. Zerbitzu hori publiko guztiarendako da, jakina, baina bereziki larrialdi zerbitzuendako; denak daude konektatuta".

### ESANAK

**"Debagoiena hartu zuen frontearen ardatzak, baina 20 km-ko aldea izan zen"**

**"Lau alerta laranja eman ditugu dagoeneko otsailean; izugarrizko kopurua da hori"**

JOSE ANTONIO ARANDA  
EUSKALMET-EKO ARDURADUNA

baina bere onera itzultzen. | JAGOBA DOMINGO



Nafarroa Etorbidea 19, 6Z  
20500 Arrasate  
Gipuzkoa

(+34) 635 725 940  
info@cinsystems.es



Herrialde honetako enpresa handien arrakastaren eragile izan diren zuzendariak zure lantaldean izan gura dituzu?

Balia zaitez zure proiektuetan azken aurrerapenez, automatizazioez, eraginkortasunaren hobekuntzez... automozio eta aeronautika sektoreetan.

www.cinsystems.es



# "Egoera zail samarra da, guretako eta baita herriarendako ere"

Bergarako moja-gaiak erabakiaren zain daude euren etorkizuna erabakitzeke

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Ondo gaude, guztiak batera gaudelako, eta oso elkartuta. Egoera zail samarra da, bai guretzat eta baita herriarentzat ere. Baina uste dut egoerak hobera egingo duela; eta guri dagokigunez, egoera berrira ohitu egin beharko dugu".

Adierazpen horiek dira, oraingoz, Bergarako klaratarren komentutik (Trinitate monasterioa) aterako diren bakarrak. Luisa Maria ahizpak esan dizkio GOIENA paperari.

"Momentuz ezin dizut erantzunik eman. Ahizpa nagusiarekin berba egin behar duzu horretarako, eta egubakoitzera arte [gaur] ez dago", gaineratu du Clara Ahizpak. Argi dago, beraz, Bergarako monasterioa bizilagun gazteek ez dutela adierazpen gehiagorik egingo Vaticanoak euren ordena desegin izanaren eta, ondorioz, duten zalantza zeko etorkizunaren gainean.

## Ordena deseginda

Hain zuzen ere, Vaticanoak Bergarako Trinitate monasterioan bizi diren mojen ordena desegin egin du. Arrazoia, labur esanda, diziplina akatsa egin izana. San Juan eta Santo Domingo ordenako mojek kexua bidali zuten Elizako estamentu nagusira, euren gidari zuzenaren (Henri Brincard) jarduna dela-eta. Eta horren aurrean, Aita Santuak erabaki zuen mojen ordena desegitea.

## Elizbarrutiaren babesa

Elizako probintziako ordezkariari egoeraren gainean galdetuta, Donostiako Gotzaindegian GOIENARI konfirmatu diote mojek abituak kendu egin dituztela, Aita Santuarekiko obediencia keinu modura. "Baina abituak kendu arren, komentuan daude oraindik; eta Elizbarrutiak babesa emango die, harik eta erabaki arte zer gertatu behar den. Eurekin etengabeko harremanetan dabil erlijiosoen arduraduna. Gainera, mendikanteak direnez (eskekoak), zer egin erabaki bitartean jana emango zaie eta euren beharrak ase egin behar dira", azpimarratu dute.

## Donostiatik "gorago"

Erabakiaren dataz galdetuta, berriz, hona erantzuna: "Bada-



Moja-gaiak Jose Inazio Munilla gotzainaren meza entzuten. | GOIENA

HORAZIO ARGARATE | ARRASATEKO PARROKOA

## "Moja nahi badute izan, burua makurtu eta San Juan ordenara buelta daitezke"

Horazio Argarate Arrasateko parrokoari galdetu diogu oraingo astean bolo-bolo ibili diren Elizako bi kontuen gainean: Bergarako mojak eta Aita Santuaren kargu uztea:

### Badakizu ezer Bergarako mojekin lotuta?

Ari direla kontua bideratzen, bakoitza nora joango den erabakitzen. Egia esan, ahalegina egin da esperientzia horrekin aurrera segitzeko, baina Erromatik etorritako agindua oso zorrotza da, eta erabaki dute egokiagoa dela irtenbidea ematea. Banan banako irtenbidea emango zaie.

### Zergatik?

Talde moduan ezin dutelako jarraitu. San Juan eta Santo Domingo ordena guztiz desegin da. Kongregazio horren jatorria San Juan ordena da. Eta beraz, Bergarako moja moduan segitu nahi badute, egin ahal dutena da burua makurtu eta umil-umil San Juan ordenara bueltatu. Bakoitzak dauka zer egin erabakitzeke eskubidea. Bestalde, puntualizatu beharra dago oraindik ez direla mojak. Moja izatekotan ziren.

**Eta Aita Santuaren kargu uzteak, berriz, ezustean harrapatu zaitu?**



U.M.

Oso ezustekoa izan da, bai. Kardinal asko ere jakin barik zeuden. Oso gordeta eraman dute gaia, historian ez delako halakorik sarri gertatu.

### Eta zer iruditzen zaizu erabakia?

Ondo ikusten dut. Azkenean, gizon bat da, zeregin batekin. Eta ikusi duenean bere lana ezin duela aurrera eraman, kargua beste pertsona baten esku uztea egokiagoa dela ikusi du. Askok parekatu dute aurreko Aita Santuarekin, hura hilzorian zegoela ere karguan segitu zuelako. Eta esaten dute nork bere kargu eraman egin behar dituela. Baina aurreko Aita Santuaren azkeneko egoera ez zen ikusteko modukoa.

Eta, seguru aski, azken une horietan eskua behar zutena baino luzeago izan zuen batek baino gehiagok, ze, adibidez, Aita Santua hilzorian zela, bere izenean azaltzen baitziren sinatuta dokumentuak. Oraingoak, berriz, burua oraindik argi duela eta ikusi duenean ezin izango duela bere zeregina bete, erabaki du kargu uztea. Normalago ikusten dut hori.

### Baduzu hurrengo Aita Santuaren gaineko kinielarik buruan?

Ez. Esan ahal dudana da, hori bai, Roucok zeresan handia izango duela. Bera ez aurkeztu arren, boto asko astinduko ditu. Itzal handikoa da Madrilgo kardinala mundu mailan.

kizu, Elizako kontuek bere denbora eramaten dute; hala ere, kasu honetan, ahalik eta lasterren erabaki beharko dute zerbait".

Edozelan ere, erabaki hori Donostiako Gotzaindegitik "gorago" hartu behar dutela ere jakinarazi dute Gotzaindegitik. Kasu honetan, ordenaren zuzeneko arduradunen esku dagoela adierazi dute.

## Iazko azaroa ezker gurean

Iaz azaroan iritsi ziren moja gazteak Bergarara. 19, guztira, 20-25 urtekoak. Hamaika herrialdeetatik iritsi ere: Italia, Frantzia, Finlandia, Alemania, AEBak, Errumania... Erdiak nobiziaz dira eta erdiak profesak (betiko botoa eman dutenak). Luzia ahizpa da euren arduraduna. Bergarara iritsi zirenean, ordenaren asmoa zen Bergarako monasterioa nobizien formazio zentroa izatea. Pozik asko hartu zuten, gainera, bizitoki berria. Lehen aldiz zuten monasterio baten bizitzea, ordura arte etxetan bizi zirelako. Eta gainera, Jose Inazio Munilla gotzainak berak eman zien ongietorria, meza baten bitartez.

Orain, bat-batean, euren etorkizuna zalantzan dago, moja moduan, eta, horren ondorioz, baita pertsona moduan ere.

Eurekin berba eginda, hala ere, argi ikusten dena da ahizpa modura ikusten segitzen dutela euren burua, hala deitzen diote elkarri-eta.

## Iaz sortutako ordena da

San Juan eta Santo Domingo ordenari dagokionez, bestalde, berri-berria da, iaz sortutakoa, hain justu ere. Kordoban du jatorria, eta kontenplazioko bizitza zuten oinarri. 150 ahizpak baino gehiagok osatzen zuten komunitatea.

DATUA

19

MOJA

Begarako Trinitate monasterioan 19 moja bizi dira iazko udazketatik, 20-25 urtekoak dira, eta munduko hainbat lekutatik etorritakoak; Europa eta Amerikatik, besteak beste.

ESANAK

"Gipuzkoako Elizbarrutiak babesa emango die harik eta erabaki arte zer gertatu behar den eurekin"

AURKENEITURRIOTZ | GOTZAINDEGIA

## Sorturen ordezkariak aukeratzeko hitzorduak

Gaur, egubakoitza, eta bihar herriz herri egingo dituzte alderdia eratzeko azken batzarrak gurean

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Sortu alderdia eratzeko prozesua azken txanpan sartu da, bultzagileek adierazi dutenez. Hala, herrietako batzarrak aste honetan

amaitu dituzte. Astean, herririk herri, ildo politikoari eta antolakuntzari egindako emendakinak aztertu eta bozkatu dituzte. Hausnarketa parte hartzaile eta mami-

tsua" izan dela adierazi dute Sortu alderdiaren Debagoieneko bultzagileek, eta "emendakin ugari" izango dituztela bozkatzeko. Horiak guztiak Sorturen webgurearen helbidean eskura daitezke. Bestalde, oraingo asteko batzar horietan, herri, herrialde eta nazio mailan Sorturen hautagaiak zeintzuk izango diren ezagutzeko aukera izan dute.

### Gaur eta bihar, hitzorduak

Gaur eta bihar, berriz, Sorturen herri, herrialde eta nazional mai-

lako ordezkariak zeintzuk izango diren erabakiko dute, "guztion artean egingo ditugun barne hauteskundeetan". Batzarrok, orain arte moduan, herriz herri egingo dituzte, baita gure ibarrean ere. Eta antolatzaileen esanetan, batzar horietara gonbidatuta daude "beren burua ezker abertzalekotzat duten herritar guztiak".

### Sorrera kongresua, 23an

Azkenik, Sorturen sorrera kongresua otsailaren 23an, zapatua, Iruñeko Baluartean egingo dute.

Bertan "parte hartuko dute herrietan aukeratzeko 500 ordezkariak, hainbat alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialek eta nazioartetik etorritako pertsonalitate ugari", besteak beste.

Sortu sortzeko prozesua amaitzeko, 23an arratsaldean ekitaldi politikoa egingo dute Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Bertara joateko dei egiten diete Debagoieneko ezkeriar eta abertzale guztiei, eta, horretarako, autobus antolatuko dituzte ibarreko herrietatik.

Iñaki Usandizaga eta Isabel eta Jose Alberto Zabarte | Presoen senideak

## "ETAk armak utzi dituenetik, presoan egoerak okerrera egin du"

- ▶ Zabarte eta Usandizaga bailarako presoei kartzela zigorra luzatu diete
- ▶ Herrirak Jaengo kartzelarako martxa antolatu du martxoaren 16rako

A.A. / U.M. | DEBAGOIENA

Jesus Mari Zabarte *Garratz* (Arrasate) eta Xabin Usandizaga (Oñati) presoei 197/2006 sententzia aplikatu diete. Bestela esanda, epaileak ezarritako kartzela zigorra bere osotasunean bete behar dute. Zabartek 67 urte ditu. 1984an espetxeratu zuten. Ekainean 29 urte beteko ditu kartzelaratuta. Jaengo kartzelan dago, eta aurtengo martxoan zen irtekoa. Usandizagak, berriz, 54 urte ditu. 16 urte daramatza kartzelan, 1997an espetxeratu ostean. Irteera data barik, zuzenean aplikatu diote 197/2006 sententzia. Hura ere Jaenen dago. Bada, bi presoan senideak Arrasate Irratian izan dira asteon, eta orokorrean salatu dute halako zigor luzapenak aplikatzeaz gainera, orokorrean presoan egoerak okerrera egin duela ETAk armak utzi zituenetik. Iñaki Usandizaga eta Isabel eta Jose Alberto Zabarte izan dira Arrasate Irratian. **Xabinen kasua berezia da, bada: irteera data barik aplikatu diote luzapena?**

**Iñaki Usandizaga:** Hala da. Ez da ohikoa irteera datarik ez bada sententzia luzatzea. Baina halako astakeriak egin izan dituzte, eta, Xabinen kasuan, bat gehiago da honako hau. Hura indartsu dago psikologikoki; baina amorruekin eta inpotentziarekin ere bai; izan ere, hark jakin zuen sententzia ipini ziotela Euskadi Irratiaren bitartez.

**Zabarteren kasuan, zelan dago?**  
**Isabel Zabarte:** Hark beti ematen digu indarra; geu zaintzeko... Eta beste gauza bat asko esaten duena da gobernuak ez



Isabel Zabarte, Iñaki Usandizaga eta Jose Alberto Zabarte, irraturan. | J. DOMINGO

**"Ez da ohikoa irteera data barik sententzia luzatzea, baina egin dute"**

duenez ezer egiten, ba herria mugitu egin behar dala, horrela lor daitekeela zerbait. Ze ETAk armak utzi baditu eta eurak geroago eta okerrago daude...

**Zer dio zigor berriaz?**

**Isabel Zabarte:** Uste zuen ekainean 14an irten behar zuela; guri abokatuak, berriz, esan zigun martxoan irten behar zuela. Orain, berriz, ez martxoan eta ezta ekainean ere. Hari zuzenean ez diote ezer esan. Dena den, lasai dago.

**"Europak esaten du doktrina aplikatu dieten presoak bahituta daudela"**

**Egoera honen aurrean, Estrasburgora jotzeko asmoa duzue, ezta?**

**Iñaki Usandizaga:** Bai. Abokatuak ere helegitea jarri dute. Baina Zabarteren kasuan ikusi da azkeneko momentuan, ia-ia hanka bat kanpoan dutela doktrina aplikatzen diotela. Ze helbururekin? Min handiagoa egiteko. Krudeltasun hutsa da hori. Eta Estrasburgora joateko asmoa bada, Euskal Herritik jendea joango da eta barruan daudenak adi-adi egongo dira herriaren

babesari begira. Ze gobernuaren aldetik ikusten da doktrina hau salbuespenekoa dela, eta itxaroten gaude martxoaren 20an ea Estrasburgok zer esango duen. Guk esperantza dugu berretsi egingo dela aurreko ebazpenean. Eta Espainiako Estatuak hitzarmena du Estrasburgoko Giza Eskubideekin, eta bere kasuan, juridikoki derrigortuta dago onartzeraz. Orain, ikusita ze demokrazia eskasak funtzionatzen duen... ba ikusi egin behar.

**Ikusten denez, beraz, ETAk armak utzi arren, aldaketa positiborik ez da igarri presoei dagokienez...?**

**Iñaki Usandizaga:** Txarrera joan da. Maltzurkeriaz jokatzeko dabilta. Lehen esaten zuten tirorik ez zegoenean berba egiteko gertu egongo zirela. Eta orain, krudeltzeriaz ari dira estutzen, nahi dute, bai presoak eta baita senideak ere belaunikatzea. Eta garbi dugu hori ez dutela lortuko. Baina egoerak okerrera egin du, preso, senide eta lagunentzat.

**Besteak beste, Jaenera martxa izango da martxoaren 16an Herriak antolatuta...?**

**Iñaki Usandizaga:** Bai. Izan ere, martxoaren 20ra begira itxaropena eta mesfidantza, biak batera ditugu. Itxaropena, tribunalak argi eta garbi esan zuelako basakeria dela zigor luzapenarena, juridikoki ez duela lekurik. Baina mesfidantzarekin gaude, Espainiako gobernuaren jarrera eta talantea ikusita. Zenbat gezur, zenbat astakeri, zenbat lege berri antolatzen dituen ikusita, denak salbuespenekoak, ez gara fidatzen gehiegi. Ikusten dugu Europako tribunalak zer esaten duen, eta bost axola zaio. Eranstea nahiko nuke Estrasburgok ratifikatu zuzenean Giza Eskubideen tribunalaren arabera (5. artikulua) jurisprudentzian irizpide aldaketa badago eta horren ondorioz, espetxeko denboraldia luzatzen bada, hori eurek kontsideratzen dutela bahituta daudela. 91 preso daude doktrina aplikatuta, joan den astean beste bi gehiago; bada horiek guretzat bahituta daude, baina hori ez dugu guk esaten, Europako tribunalak esaten du, eta hori da izugarritzko astakeria.

## Kaleratzeen kontra 3.000 sinaduratik gora ibarrean

U.M. | DEBAGOIENA

Poztasuna azaldu dute Kaleratzeak-Stop Desahucios plataformako Debagoieneko kideek. Poztasuna, Espainiako Diputatuen Kongresuak tramitera onartu duela etxe ematea hipotekaren ordain modura eta alokairu soziala arautuko duen lege proposamena. "Plataforman eta, orokorrean, herritarren presioari esker irabazi ahal izan den borroka txikia da hau. Jakitun gara borroka ez dela hemen amaitzen, hasiera besterik ez dela. Borrokaren hasiera 1907ko lege-hipoteka zaharkitua aldatzeko eta herritarrek etxebizitza duin baterako duten eskubidea bultzatzeko", adierazi dute.

**Bihar, Donostian**

Hori dela-eta, eskerrak eman gura dizkiete gure ibarrean kaleratzeak geratzeko sinadura eman duten 3.000 debagoiendar baino gehiagori. Eta mobilizazioarako dei ere egin dute: "Debagoiendarrei dei egin gura diegu plataformek hiriburuetan antolatu dituzten manifestazioetan parte har dezaten. Gipuzkoako plataformok Donostian egin dugu deialdia biharko, zapatua, 12:00etan. Bulebarretik aterako da manifestazioa", jakinarazi dute.

**Bailaran, azaroatik**

Debagoienez, azaroan eratu zen kaleratzeen kontrako plataforma, Arrasaten, hain justu. Hamabostean behin elkartzen da taldea, herriz herri, txandaka. Laguntza behar izanez gero, eurekin harremanetan jartzeko telefona honako hau da: 669 42 85 98.

## Osasungintzako murrizketen kontrako agerraldia bihar

Arrasateko Herriko Plazan elkartuko dira, sinadurak batu eta debagoiendarrak sentsibilizatzeke

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

CCOO, ELA, LAB, eta UGT sindikatuek deituta, bihar, zapatua, Arrasateko Herriko Plazan, Debagoieneko Ospitaleko hainbat langilek elkarretaratzea egingo dute, 12:00etatik 13:00etara. Helburu bikoitza dute: osasun arloan etor daitezkeen murrizketa gehiagoren aurrean debagoiendarrak sentsibilizatzea eta murrizketen kontra sinadura gehiago batzea. Dagoeneko gure ibarrean 300 batu dituzte. Hain justu ere, joan

den egubakoitzean ipini zuten sinadurak batzeko mahaia ospitaleko sarreran, eta goiz bakarrean batu zituzten 300 sinadurok, langile eta erabiltzaileenak.

**Probintzia guztietara**

Debagoieneko Ospitaleko ordezkari sindikalen kezka da Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak onartu behar dituela laster, eta dagoeneko iragarri dituela murrizketak egin behar dituela. Eta beldur dira osasun arloan ez ote dizkien



Ordezkariek sinadurak batzen, joan den barikuan. | U.M.

orain arteko murrizketei berriak gehituko. Bada, aurre hartze aldeira erabaki dute gurean ere mobilizatzen hastea. Eli Martinek, CCOO sindikatuko ordezkariak, emandako informazioaren arabera,

Donostian dagoeneko 4.000 batu dituzte. Mendaroko ospitalean ere hasi dira. Eta helburua da Bizkaian eta Araban ere batzea sinadurak. Gurean, anbulatorioan ere batuko dituztela iragarri du.

## Haurren loditasunaren gaineko azalpenak Arrasaten eta Bergaran

Haurren artean loditasuna osasun publikoaren arazo garrantzitsu bihurtu da urteetan, hazkunde handia izan duelako eta hazteko duen joeragatik. Daniel Jimenez Debagoieneko ESiko Obesitate eta Pediatria-Endokrinologia Klinikako arduradunak eta Agustín Rodríguez eta Lisette Delgado pediaterik Euskadin dugun egoera eta diagnostikoari, heldutasunean sor daitezkeen arazoei, tratamenduari eta prebentzioari buruz hitz egingo dute. Bi hitzordu antolatu dituzte: Arrasaten (otsailaren 20an, 19:00etan, Kulturaten) eta Bergaran (otsailaren 27an, 19:00etan, Irizar jauregian).

## ZABALIK



URTZI AMIANO  
http://goiena.net/iritzia/

## Nik? Bueno bai...

Badirudi komunikabideek azken hilabeteotan ematen duten informazioaren arabera, mundu krudel, berekoi eta zikin baten bizi garela. Badakit ez nabilela ezer berririk kontatzen, denok ikusten baititugu kaxa panoramiko itzel horrek emandako irudi bortitz eta bihozgabeak.

Ezinezkoa da jasotzen ditugun berri txar guztien laburpena egitea: euskal presoen egoera larria, hondamendi naturalak, gerrateak, Hirugarren Munduko bizi baldintza tamalgarriak... Ni narro sendoa daukatenean zentratuko naiz: nazio batean kristoren krisia eragin dutenekin, *Gurtel auzian* auzipetuta daudenekin, elefanteak akabatzeraz joan eta barkamena eskatzen bukatu duen monarka batekin, urde abizena eta poltsikoak gogoz bete dituen batekin, zazpi Tour irabazi eta ilargira joan zen abizena duen *estralurtar* batekin, *Puerto Ope* razioaren inguruan gorputzeko zainak gasolinarekin bete dituztenekin... eta honela, amaigabeko zerrenda bat.

**"Ezinezkoa da jasotzen ditugun berri txar guztien laburpena egitea"**

Aurrez aipatutako guztiek daukate zerbait komunean, bekaturia. Bizitzan egin duten pasarteren baten salaketa gezurtatzeraz irten direla eta denborak edo denborarekin egia dela ikusi edo ikusiko dela. Eta hortxe, bekaturia guztien konfesioak jaso behar dituztenen gotzain nagusiak ere, *Jainkoarekin* aurreko gauean hitz egin ostean bere kargua uzten duela adierazi digu. Ez daukala bere karguari aurre egiteko nahikoa indarrik? Zergatik, bada? Benetan zahutu ote zaizkigu indarrak? Gizarteak egunero erakusten dion errealitateari aurre egin ezin ote dio? Edo, batek jakin, agian, honek ere ezkutatzeko zerbait izango ote du?

Honekin guztiarekin, argi utzi nahi dut ez dudala aurretik aipaturiko inoren burua zuritu nahi; argi dudana gauza bakarra, bazterrak nahasten hasiz gero guztion inguruan aterako zela geure buruaz harro ez geundekoen gertakari edo bizitzaren pasarteren bat. Nik? Bueno bai...

## USTEAK USTE

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL | zvelez@goiena.com

## Eskandaluak eta zigorrik ezak

Diru kontuetan jendartearen zati batek arazoak dituela begi bistakoa da. Duela hamar bat urte jazotako eskupeko ordainketen albisteak iristen zaizkigu azkenaldian etengabe; Noos institutua eta eskubaloi jokalaririk ohiaren diru-gosea... Ipurdi bistan geratu dira aginte makila daukaten asko eta asko, baina nola esan duten guztia gezurra den, zer edo zer salbu... Zer aldatu da? Beraiekiko ikuspegia? Akaso, gaizki pentsatzeko joera daukaten horietarikoa izango naiz, baina askok epe motzeko oroimena daukatela iruditzen zait, eta, nahiz eta ustelkeria kasuak zipriztinduta egon, zigortu ordez, lehenengo leerroan jarraitzeko aukera emango dieten susmoa daukat...

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Topikoak

Leire Narbaiza Arizmendi  
http://eibar.org/blogak/leire/topikoak

Orain denpora gitxi etxeko igongailuan sartu eta igarri neban atarira nonor zatorrela. Lehenengo pentsamentua botoia ahalik eta arinen sakatzea izan zan; auzoko batzuek azkenean bano, gurago dodalako oinez joan bosgarrenearaino. Ganera, beti ezin gara, bada, jatorrak eta sinpatikoak izan, ezta? Halan bere, azken momentuan damutu-edo egin jatan, eta igongailuko atea zabaldu neutsan.

Andra bat eta ume bat sartu ziran eta lehengo pisura egin eben. Orduan galdetu neutsan andreari ea bizilagun barriak ziran, banekialako pisu bat errentan egoala. Baietz esan eustan eta nik komentatu bosgarrenean bizi nintzala.

Holan amaitu zan "biajea". Pozik nik ondo etorria emon neutseelako, nahiz eta oso ondo jakin ez zelan egin. Emakumea hegoamerikarra zan, eta hortik etorren nere poztasuna: gu baino adeitsuagoak diralako, sarritan euskaldunok "lar euskaldun" jokatzen dogulako, takarrak izan geinkelako

kanpokoen begietan. Sarritan, eurentzako astokilo samarrak baina nobleak, *bon sauvage*-ak bagina legeztxe; basajaun eta basandere koadrila bihotz onekoak, baia hezi bakoak. Barruan daroagun friztia horrek onak izaten lagunduko ez baleusku moduan.

Igongailuan, bakarrak geratu nintzanean halaxe sentidu nintzan, eta neure artean pentsau neban telesail amerikanoetan jakingo ebela auzo barrieri zelan egin ondo etorria, edo hain urrun joan barik, gure amamak-eta eukiko ebela formularen bat protokoloa beteteko.

Baia benetan gara halakotxeak, ala hori da gutaz daukeen irudia? Sarritan, gure karaktere latzak imajina hori emongo dau. Kanpotarren begietan islatzen dana gure ganean daukezen aurreitxiak baino ez dirala esango neuke.

Edo benetakoagoa da *Vaya semanita* saioan agertzen dana? Burugogorrek, fanfarroiak, uzkurak eta berba gitxikoak garala dinoskue, eta hori gitxi balitz, narrutan be urri egiten dogu, aukeran.

Ez dot esango tipiko topiko horreek egia ez diranik, *ligau* larregi ez dalako egiten, baia momentuz jendea alkarregaz bizi, batzuk ezkondu eta umeak

bere jaiotzen dira...batzuek, behintzat, minimoa egingo dabe, dinot nik. Ume honek guztionez ez dira-eta probetetan egin, ezta?

Horregaitik, nere eritxian ez dira euskaldunok gure ganean ditugun usteak. [...]

Beste guztiak albo baten itxita, zelan ikusten dogu gure geure burua? Esango neuke aspaldiko euskadunari ez jakozela hiru akats parkatuten: alperria, barritsua edo zikoitza izatea. Zikoitzarena kenduta, besteez ez dakit zer pentsau! Irudi nahiko zintzo eta kalbinista dogula uste dot, gurearen moduko herri katoliko-ohi barria izateko. Behargin fintzako dogu geure burua, alperkeria pekatu handia da gizarte produktibo honetan, eta barritsukeriak markau egiten gaitu (esperientziak dinotsuet), Euskal Herrian barriketalaririk handiak egon ez balitz moduan...

Mundua aldatu egin da ikaragarri, baina uste sakon horrek geure barruan dagozela ondo sustraituta begitantzen jata, eta mundua eta gu aldatu bagara bere, gutaz dogun imajinak lehengo ikutua daukala esango neuke; hau da, barruko tradizionalista oraindino hortxe daroagula.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailkatu arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitate)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
**ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:**  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Erre eta kito?

**Jexus Urmeneta**  
Bergara

Zaborraren bilketari eta kudeatzeari buruz behin eta berriro idaztea alferra eta aspergarria omen da. Afera honi buruz egunkari honetan sarritan azaldu dira gure iritziak, gaur, hemen eta munduan beste ezer garrantzitsuagorik egongo ez balitz bezala. Baina atez ateko sistemaren aurka agertu diren taldeen jardunaz hitz egitea komenigarria da, eta, ahal dela, gai korapilatsu honi irtenbide bat aurkitzea.

Azkenaldi honetan Bergara Garbia plataforma buru-belarri ari da, nahiz eta aurreko astean Udalari hitzarmen baten proposamena egin zion, eta azken hau baikor moduan hartu behar dugun. Edonola ere, talde honi behin baino gehiagotan galdera zehatza egin diogu hainbat iritzi idatzitan, eta berriro errepikatu behar zaio, zeren eta galdera egindako bakoitzean erantzunik gabe utzi baikaituzte: errauskailu baten kokapenez erabakia hartzerakoan nori dagokion ez dakigula –agian udalaren baimenez Aldundiari berari dagokio edo...–, eta Bergaran jartzea gertatuko balitz, orduan plataformak zer esango lieke herritarrei, ze iritzi izango luke honen gainean?

Hipotesi honetan, nola azalduko liguke, erreferendumez ala baietz borobila emanez? Hemen gerta daiteke garai batean Lemoiz herrian gertatutako gauza bera; hau da, Euskal Herri osoan jendea bere eguneroko patxadaz zebilen bitartean, kostaldeko herrietako bizilagun kopuruaren %99 zentrala ez jartzearen alde zebilen jo eta ke.

Atez atekoaren aurka ari direnek eskubide osoa dute beraien alternatibak plazaratzeko, baina oraingo honetan aholku bat luzatu nahi diet horiei: Gipuzkoako Aldundian sartu berri direnei, kortesia politikoaz bada ere, hainbat maila ezberdinetan dituzten plangintzak egiten uztea eta herri bakoitzean zaborra biltzeko sistema hori abian jarri eta handik urtebetera emaitzak aztertzea, eta ondoren, denon artean zer egin ikusiko dugu.

Orain arte beste hainbat lege indarrean jarri dizkigute eta jendeak ezinbestean onartu behar izan ditu, hala nola leku publikoetan erretzearen debekua, autoetan oihala jarri beharra, eta abar.

Zabor bilketarekin ere ezin da onartu norberak nahi duena egitea; hau da, birziklatu egin behar da, nahiz eta batzuek dena erretzea aukeratu.

"Erre eta kito!" esatea ezin dugu onartu, zaborrik onena sortzen ez dena delako.

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Badatoz Askapenaren brigadak

**Kirmen Gaztelu**  
(Askapeneko kidea)  
arrasate

Gure herriaren ibilbide eta ibilerak geureak dira, noski, eta hala izaten jarrai dezatela luzaroan! Baina munduaren zilbor sentituzteak, ditugun arazoak edo bertuteak geuk bakarrik ditugula pentsatzeak ez digu mesederik egiten. Besteak beste, altxor izugarria baztertzeko dugulako, hain zuzen, besteengandik ikas dezakeguna eta haiek guregandik jaso dezaketena. Brigadek honetarako balio digute, gainerako herri borrokalarien hartu-emanetik eta joan-etorriko elkartasunetik, esperientzia konkretuen kontrabandorako, alegia.

Europa zahar deiturikoan azken urteetan, esaterako, borroka adoretuak izan ditugu, mobilizazio eta grebak, kaleratzeak eta protestak... Agian, baina, badira aurrera egiten lagun dezaketen adibide eta borroka esperientzia zenbait, batik bat, protesta hutsera mugatzen ez diren haiek; Argentinan, esaterako, gurearen antzeko krisi egoeran, lantegiak langileak eurak bereganatzen hasi zirenekoak, prozesu iraultzaile baten baitan Venezuelako lantegi sozialisten adibideak, behetik gorako ereduak, auzoetako kontzeju komunalak...

Jatorrizko herriek, berriz, ez al dute euren bizkarrean milaka urtetako borroka esperientziaren bidezidorra? Mendebaldean hainbeste urtetan sinestara diguten ongizatearen pentsaera kontsumista baino gehiago, norberarekin, inguruarekin edo ingurukoekin ongi egotearen kontzeptua guztiz garatua dute, eta egunerokoan gauzatua. Venezuela, Argentina, Uruguai eta Boliviak gain, Saharako lurralde okupatueta edo Palestinan, gurean bezala, herri okupatua bizi behar diren gorabeherak eta erresistentziaren inguruko hartu-emanak ezin uka irakaspen bikainak direnik! Badakizue, beraz, animatu eta eman izena Askapenak aurten antolaturiko brigadetan.

## Ingurumena, zero zabor eta praktika onak: aupa, San Martin!

**Ane Egino Laborda**  
(Bergara Zero Zabor taldearen izenean)  
Bergara

Gipuzkoa Zero Zabor Gipuzkoan hondakinen arazoari aurre egiteko lanean dauden taldeen sinergia lortzeko sortutako eragilea da. Gipuzkoan hondakinen arazoa zertan datzan aditzera eman eta konponbidea gauza dadin eragitea da gure helburua.

Konponbidea bilatzearen bidean, Bergarako Zero Zaborretik gure herriko eremu guztietan egiten diren "praktika onak" ezagutarazi nahi ditugu.

Garrantzitsua da besteen lana ezagutzea, elkarrengandik ikas dezakeguna oso aberatsa izan daitekeelako.

Oraingo honetan gure herriko ikastetxe baten lana goraiatu nahi dugu.

San Martin Agirre "Eskola jasagarri" izendatu dute.

Eskola horrek urteak daramatza jasangarritasunaren bidea jorratzen, bere inguruko baliabideen arteko oreka mantendu nahian: paper birziklatua erabiltzen da, paperaren erabileraren murrizketa sustatzen da, uraren erabilpen egokia bultzatzen da, ahal den neurrian erosketak herriko dendetan egiten dira, material desberdina jasotzen da (eskolako sarreran kaxa desberdinetan sailkatutik): pilak, CDak, mugikorak, fotokopiagailuaren tonerra, komuneko paperaren tutuak jasotzen dira eskulanetarako...

Baina ohikoak diren ekintzez gain, eskola honek berezitasun bat dauka: hain zuzen ere, IPA (Ikasleen Partaidetzarako Antolaketa).

Ikasleriaren partaidetza bultzatu nahi duen proiektua da; horretarako, bost batzorde antolatu ditu, ikasleak eskolako bizitzaren eragile aktiboak bihurtuz.

Batzordeak hauexek dira: Jangela Batzordea. Hemen jangelarekin lotura dituzten

gaiak tratatzen dira; jangelako arauak, bertan sortutako kezkek, zalantzak... Aurten paperezko ezpainzapiak baztertu eta oihalezkoak erabiltzen hasi dira, hausnarketa prozesu baten ondorioz... Eta epe laburrean jasangarritasunaren barruan beste gai hauek landuko dira: garaiko eta bertako produktuen erabileraren garrantzia, garraioak ingurumenean duen eragina produktuak urrutitik ekartzen direnean, ustiaketa masiboa, pestiziden erabilera...

Ordezkariei Batzordea. Honetan eskolako gai desberdinak lantzen dira: ingurumena garbi mantendu, elkarbizitzarako oztopoak gainditzeko bideak jorratu, jai jasangarriak bultzatu... Aurten ere tapoi biketa bideratu da gaixotasun desberdinak dituzten haurrentzat (Berrerabilera).

Patioko Jolasen Antolaketa Batzordea. Batzorde honek astean birritan ikasleek antolatutako jolasak burutzen ditu patioan. Jolas hauetako batzuek berrerabilitako materiala erabiltzen dute (bolotara jolasteko boloak egin dira erabilitako esne botilekin/ berrerabilera).

Agenda 21 Batzordea. Batzorde honek tokian tokiko Agenda 21etik luzatzen diren proposamenak gauzatzen ditu eskolan. Momentu honetan herriko diagnostikoa egin ahal izateko eskolako familien kontsumoak neurtzen ari dira, egiten den hondakinen kudeaketarekin alderatuz. (Jasangarritasuna).

Gure Aztarnak Batzordea. Taldeak jasangarritasuna bete-betean jorratzen du. Birziklapena bultzatzen du, kontsumoarekin eta ohiturekin lotura duten aurreko pausoak landuz (gutxiago kontsumitu, eta ahal dena berrerabili, hondakin gutxiago sortzeko). Gainera, Batzorde honetatik antolatzen da eskolako hondakinen jasotzea. Astean behin Lehen Hezkuntzako ikasleek, adinak nahastuz eta bikoteak eginez, geletan aurretik berezituta (bakoitza bere kaxan sailkatuta) dauden hondakinak jasotzen dituzte. Sailkatzen dira batetik papera eta kartoiak, bestetik ontzi arinak, baita idazteko tresneria eta, azkenik, saski-naski (organikoa+errefusa). Jasotzea bukatu

ondoren hondakin gehienak eskola kanpoan dauden kontenedoretara eramaten dira. Idazteko tresneria Terrcycle enpresara bidaltzen da, horrela dirua lortuz premia bereziak dituzten haurren elkarreterara bidaltzeko.

Antolaketa honek, partaidetza bultzatzeaz gain, baditu beste helburu garrantzitsu batzuk; esaterako, euskararen ahozko erabilera erreala eta esanguratsua, elkarbizitza, jasangarritasuna eta tutoretza.

Gainera, aurreko astean antolatu dituzten "Ate irekiak" antolatzeo materiala berrerabiltzearen aldeko apustua egin dute.

Etxetik ekarritako materialak birziklatze aldera, eskolan tailerrak antolatuko dituzte: botatzeko dauden latexeko eskularruekin pilotak egingo dira, jogurt poteekin maraka tailerra antolatuko da, esne eta ur botilekin boloak egingo dira, etxeetan soberan dagoen artilearekin olagarroak egingo dira, etab.

Benetan txalogarria Bergarako San Martin Agirre eskolak egiten diharduen lana.

Eredugarria izateaz gain, edozein ekintzaren aurrean jarrera jasagarria izan dezakeguna erakusten digu.

## Zainketa Aringarriak Debagoiengan

**Iñaki Peña**  
Bilbo

Pasa dan egubakoitzean (2013/2/8) GOIENAK gai honeri buruzko artikulua ekarri eta zehaztapentxo batzuk egin gura nituzke.

Hasteko, bertan "mediku guztiek edo ia guztiek" zainketa hauek egiten dituztela irakurri dot.

Teoriak hala dino, baina praktika oso bestelakoa da, gitxiengoan gagoz-eta arlo honetan benetan jarduten dogunok.

Danok dakigu heriotza zein urrun ikusi gura dauan jendarteak orokorrean, eta medikuen zati handi bat ere ildo horretan doa.

Heriotza porrot moduan ikusi, sendatzeko botere ahalguztidunean sinetsi, morfina bildurra eta beste gaitz batzuk tamalez oso hedatuta dagoz.

Bestela, oraingo zerbitzua modu ofizialean eta bertoko agintariak baimenduta 2012an abiatu zan, baina asko lehenagotik egon dira mediku eta erizainak Debagoiengan lan hauetan ederto lan egin dabenak, batzuetan modu isilean, eta beste batzuetan ageriagoan. ➤

Azken urteotan Arrasateko ospitalean Etxeko Ospitalizazioa hasi zanean, geroxeago lantalde bat eratu zanean anbulatorio eta ospitaleko osasungile batzuk bat eginda eta, halaber, Saiatu alkarteak bere lehenengo urratsak emon zituan eskualdean.

Proiektuak ez zituala "helburuak lortu" irakurri dot artikuluaren, eta holakorik esatea larregizkoa begitantzen jat, eta suposatzen dot trantze hauetatik pasatu diran hainbat debagoiendarrek be bestelako pentsamendua edukiko dabela "helburuak lortzeari" buruz.

Neure aburuz, azkenik, bidezkoa eta askoz dotoreagoa izango zan aurretik egindakoa onartu eta hobeto azaltzea publikoki.

## Adegik dagoeneko ez du inor engainatzen! Arazoa ez dago legean, gogo ezan baizik!

**Ander Gallego Trancon**  
(LABeko Debagoieneko Metaleko arduraduna)  
Debagoiena

Metalgintzako hitzarmena negoziatzen ari garenon azken bilerak (otsailak 5) espero genuen amaiera ekarri du.

Adegik bereari eutsi dio: ez du nahi derrigortasunez bete beharrekoa izango litzatekeen hitzarmenik negoziatu, ezta soldata igoerarik.

Laburbilduz, Raxoiren gobernuak oparitutako lan-erreforma aplikatu nahi du.

Joan den astean, Adegik jendartean egin zuen agerraldian zioenez, sindikatuok nahi baldin badugu, metalgintzako hitzarmena izango dugu.

Baina diotenez, hitzarmena ezin da legez aurkakoa izan (lan-erreformari aipamena eginez), ez eta arriskuan jarri enpresen bideragarritasuna eta lehiakortasuna.

Gaur egun, Adegik sinesgarritasun arazoa dauka, jadanik ez duelako inor engainatzen.

Arazoa ez dago legean, beste sektoreetan hitzarmenak lotu ditugulako; adibidez, papergintzan.

Zergatik da gauzagarria Gipuzkoako papergintzan eta ez metalgintzan?

Gauzagarria ez den ezer ez dugu eskatzen.

Posible da, baina Adegiren partetik borondatea falta da.

Jendeak badaki metalgintza, beste sektoreentzat, oso erreferentziala dela, eta,

beharbada, horrek argitzen du Adegiren jarrera.

Adegiri gogorarazi nahi diogu probintziako hitzarmenik ezak eta lan erreforma hutsak, hain zuzen, jar ditzaketela zalantzan enpresen bideragarritasuna eta lehiakortasuna.

Ez dezagun ahantz lan erreforma honekin herrialdeko hitzarmenak neutralizatu nahi dituztela, beraien balioa kenduz.

Hitzartzen dena, indarrean sartuz, bete dadila eskatzen dugu soilik.

Xede horretan, langileei eta enpresei eraginkortasuna emango dien akordioak lotzeko gogoia izan behar da; hori ez da lan erreformaren ondorioz gertatuko, patronalaren eta sindikatuen artean lotutako akordioen bidez baizik.

Baina horretarako, nahia eta gogoia behar da.

Gaur egun ez diogu gisa horretako gogorik ikusten Adegiri, eta, hortaz, LABek irizten dio gure eskubideen aldeko mobilizazioak egiten jarraitu behar dugula.

Ez baitago etorkizunik eskubiderik gabe.

LAB sindikatuko delegatuak Gipuzkoako eskualde guztietan mobilizazioak egiten ari dira.

Hori dela eta, gainontzeko sindikatuak mobilizazio egutegi bateratu bat egiteko deia luzatu die LABek.

CCOOk eta UGTk beraien plataformetan aldaketak egingo dituztela planteatu dute eta ez dituzte mobilizazioak baztertu.

ELAk Adegiren inobilismoa salatatu du, baina ez du mobilizaziorik aipatu.

Sindikalgintzaren erantzun bateratuak patronala mugiaraziko du; LABek helburu horretan egingo du lan.

Langileek ez lukete ulertuko sindikatu hauek zirkinik ez egitea uztailaz geroztik gerta daitekeen hitzarmenaren benetako galeraren aurrean.

Egin dezagun guztiona eta gurea den hitzarmenaren alde!

## EAJ, PP eta UPyDri gutuna

**Eneko Barberena Mondragon**  
Arrasate

Egia esan, ezin esan sorpresaz harrapatu nauenik proposamenak. Eta ez, ez nabil zaborraz...

Haurreskolatan ezarri nahi den gaztelaniaren presentzia baizik. Ezjakintasunaren alde. Elebakartasunaren alde. Hezkuntza Sailak berak argitaratu berri duen Arrue ikerketa jaio bezain pronto jipoiutuz. Euskararen ezagutzaren eta erabileraren aurka. Wert ministroaren proposamenen alde. Eredu euskaldunetan ari diren

ikasleen hizkuntza ezagutza datuei izkin eginez.

Merezi du honek protesta eta mobilizaziorik. Pixka bat beti izango delako gutxi. Gutxiegi.

Dezepzio jeltzalea, epelkeria baino gehiago behar dugulakoan gaude. Erdararen militanteengandik ez nuen gutxiago espero. Baina hiru alderdiei galdera bera: ezjakintasunaren alde egitean, jabetzen zarete nola kaltetzen dituzuen haur horiek?

Erantzunaren zain, milesker.

## Aintzane Oiarbide, errauskailuak eta minbizia (2)

**Ander Lizarralde Lizarralde**  
Oñati

Otsailaren 1ean, zuk (Aintzane Oiarbide) *Errauskailuak eta minbizia: demagogia* eskutitz mingarria idatzi zenuen GOIENAn. Han esaten zenituenei erantzuten jarraitu nahi nuke. Bertan, errauskailuen eta minbiziaren arteko erlazioa guztiz ukatzen zenuen. "Minbizia bezalako gaixotasuna inolako arrazoirik gabe beldurra sartzeko erabiltzeak ez du izenik", zenioen, besteak beste. Munduan zehar errauskailua eta minbizia lotzen dituzten "milaka" txosten mediku eta zientifikori bizkarra eman, erlazio hori frogatzen duten ebidentzia guztiak alboratu eta erabateko ziurtasunarekin horrelako esaldiak prentsan argitaratzeak badauka izen bat: *arduragabekeria*. Zure kasuan, *arduragabekeria politiko eta instituzionala*.

Zure adierazpen seguruek Manuel Fraga Iribarne ministro frankistak agerpen publiko historiko batean erakutsi zuen jarrera dakarkidate gogora. 1966ko urtarrilaren 17an izan zen, Palomaresko hondartzan, Almerian. Orduko hartan bi hegazkinek elkar jo zuten Espainiako zeruetan. Hegazkinetako bat armamentu nuklear arrisksuz beteta zihoan eta Palomaresko hondartzaren inguruko uretara erori zen. Bertan askatutako plutonioak kutsadura erradioaktibo larria eragin zezakeen. Horren aurrean, Fragak, AEBetako enbaxadoreak lagunduta, bainu bat hartu zuen Palomaresko hondartzan. Segurtasun itxura eman nahi zuen. Erradioaktibitatearen arrisku larria ezkutatu nahi zuen. "Hemen ez da ezer gertatu, lasaitu zaitezte herritar maiteok". Horra boterearen musika. Horra diruaren diskurtsoa. Zuek ere, Aintzane, Palomaresko

sindromeak jota zabiltzate. "Errauskailuek ez dute inolako eragin kaltegarririk osasunean" segurtasun osoz baieztatu eta aurrera. Bainujantzia hartu eta uretara.

Errauskailua minbiziarekin lotzean beldurra sartzten gabiltzala diozu. Baina beldurra sartzten gabiltza edo errealtate beldurgarri baten presentziaz ohartarazten? Beldurra sartzten gabiltza edo eraikin beldurgarri bat Zubietan (edo Gipuzkoako beste edozein herritan) jartzea eragotzi nahian? "Gezurra botatzen eta jendea beldurtzen" gabiltzala diozu, baina ez al da izango zuek "gezurra botatzen eta jendea lasaitzen" zabiltzatela? Gezurra bota eta jendea lasaitu. Jendeak pentsa dezala: "Jode, hain seguru esaten badu zerbaitegatik izango da".

Nik, badaezpada, ez nuke Palomaresen bainurik hartuko.

## Eta orain, krisi ekonomikoa eta ekologikoa

**Josu Garitaonandia**  
(Equo Bergara)  
Bergara

XX. mende hasierako lehen krisialdi ekonomikoei irtenbidea emateko, nahita hasi ziren produktu txarragoak fabrikatzen, gutxiago iraun dezaten, eta era honetan berriz ekonomiaren gurgila martxan ipini; hau da, gehiago erosiz gero, gehiago fabrikatu behar dira, horretarako lanpostu gehiago sortzen dira eta pertsona gehiago daude diruarekin berriz ere gehiago erosteko.

Honen adibide bat da bonbilla, gizarte modernoaren sinboloa: Edisonek asmatu zuen lehenak 1.500 ordu inguru iraun zezakeen piztuta; geroago, fabrikanteek adostu zuten 1.000 ordu iraunda nahikoa zela; kontzeptu honi Zaharkitzapen Programatua (*obsolescencia programada*) esaten zaio.

Orain, mende bat pasa eta gero, krisi ekonomikoari erantsi behar zaio krisi ekologikoa.

Planetak baliabide gutxiago ditu eta hondakin gehiago; gure jardura eta pentsaera ez badugu aldatzen, arazoa areagotzen joango da.

Kontsumitzaile bezala ahalmena daukagu egoera honi buelta emateko, zaharkitzapen programatuaren kontra dauden enpresen produktuak erosiz, eta gure inguru honetako kooperatibistek beraien kooperatibetan bultzatuz kalitatezko produktu iraunkorrak egin dezaten.

## Xalanan egunerokua (8 urte)

**Nere Aspiazu eta Idoia Larrañaga**  
Bergara

Atzo andereñuak haunditxan ze izan nahi giñuan galdetu zoskun gelan. Nik azkar erantzun notsan suhiltzaile izan nahi nebala, oso argi daukat eta!

Kriston iskanbila sortu zan inguruan! Hori gizonen lana zala... zela okurritzen jaten... ni ez nintzala kapaz izango...

Baina, goibeltzen eta hori hola zala sentitzen hasi nintzanean, andereñuak lanbidiak ez diala gizon edo emakumientzat azaldu zoskun; gehixau edo gutxiak kostata, baina saiatuz, nahi doguna izatera heldu ahal gizona.

Eta mezu horrek indarra eman zostalako... Eskerrik asko, andereño Ula!

## Bergara eredugarria European

**Mireia Lizarralde**  
(Bergara Zero Zabor)  
Bergara

Hondakinen gaiarekin ikaragarriko eztabaida izan dugu Bergaran.

Baina azken asteotan herritar ugari ere garbi esan dute birziklatze tasa nabarmen igotzearen alde daudela, errauskailurik ez dutela nahi eta ahalegintxo egiteko prest daudela.

Jokabide zuzen hori da Europak saritzen duena.

Hala, Gipuzkoako Foru Aldundia Europako Parlamenteuak antolatutako mintegi batera gonbidatu dute eredugarria delako.

Iñaki Errazkin Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Diputatuak hiru proiektu azalduko ditu martxoaren 7an Bruselan: Foru Aldundiaren estrategia, errauskailua eta zabortege kutsakorrek alde batera uzten dituen; bigarrenik hainbat herririk atez ateko bilketa sistemaren bidez lortu dituzten birziklapen maila altuak eta azkenik, zero zabor herri bihurtzeko zenbait udalerririk egiten ari diren bidea.

Zorionez Bergara ere laster eredugarria izango da European bere hondakinak ongi kudeatzen dituelako, gutxiago sortuz, berrerabiliz eta birziklatuz.

Errauskailurik egin ez dadin bere ekarpena eginez eta zabortege toxikoei bidea itxiz.

Animo, guztioi, ahalegintxo batekin lortuko dugu!





Davao sofa  
Lehen

~~2.330€~~

Orain

**1.961€**



**erlaxatzeko eserlekua motorrarekin eta berogarriarekin opari**

Davao sofa 3 eserleku chaiselonguearekin. Neurria L288xP170xH81/98 zm. Tapizatuetan aukera zabala, ehun desberdinetan nahiz ekolarrian. Erlaxatzeko eserleku bat motorra eta berogarriarekin opari.

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) jarrai gaitzazu  

**KIBUC** Gure Ametsa

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 15 16 81



**Arantza Tapia** | Lehiakortasuneko eta Garapen Ekonomikoko sailburua

# "Krisiaren errudunak aurkitzen ibili beharrean, irtenbideak elkarrekin topatu behar ditugu"

- ▶ Turismoaren, balioen, berrikuntzaren beharraz jardun du Lehiakortasuneko sailburuak
- ▶ Krisitik irteteko, "malguak" izatea eta "elkarrekin" aritzea nabarmendu ditu Tapiak

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Arantza Tapia (Astigarraga, 1963) Eskoriatzako batzokian izan da oraingo astean, egungo krisi ekonomikoaren eta krisitik ateratzeko Jaurlaritzak egiten duen apustuaren gainean berba egiten. Aurretik, Goienan egon da eta gaiaren gainean jardun digu Lehiakortasuneko eta Garapen Ekonomikoko sailburuak.

**Jaurlaritzara heldu berritan, eta krisi gogor honetan murgilduta, zein izango da zure sailaren lehen-tasun nagusia?**

Krisi garaian erabakiak azkar hartu behar dira, eta, esaterako, enpresei laguntza emateko neurriak urgenteak dira, horiei erantzun egin behar zaie; baina, bestetik, etorkizunerako politikak eta estrategiak finkatu egin behar dira. Horiek dira helburu nagusiak: egunerokoari azkar erantzutea eta etorkizuneko ildoak finkatzea, Euskadiren lehiakortasuna bermatzeko, hiru sektoreetan.

**Adierazle ezberdinek diote aurten ere langabeziak gora egingo duela. Noiz arte?**

Erantzuna edukitzea gustatuko litzaidake, baina baikortasun mezua helarazi nahiko nuke. Adierazle batzuek diote ekonomia-aren garairik txarrean gaudela, baina uda pasa ostean, badirudi argia ikusten hasiko garela. Horrek ez du esan nahi berehala hasiko garenik lana sortzen. Guretako, halere, lehen-tasuneko da bereziki gazteei aterabideak eskaintzea.

**Lana sortzeko Jaurlaritzatik abiatuko duzuen neurri zehatzik aurreraterik?**

Enpresen eta hezkuntza munduaren nazioartekotze bidean neurriak hartu nahi ditugu. Merkatu guztietara ezin gaitezke iritsi, batzuetara heldu behar dugu. Bestalde, esan nahi dut enpresa handiek, akaso, ez dutela erakunde publikoen beharrik, baina txiki eta ertainek bai. Gazteak ondo formatu eta nazioartera bidaltzen baditugu, ondoren, jakin behar dugu enpresa ertain eta txikietarako errekuaratu.

**Industria sektoreari bultzada eman nahi diozue. Zela?**

Euskadi beti izan da oso industrial. Esaterako, Debagoiengan, etxetresnetan eta zenbat lan egin den ikusi besterik ez dago. Baina, horretaz gain, makina-erreminta, elektrizitatea, elektronika, sektore aeronautikoa, energiaren sektorea... Horiek dira gure indarrak eta horiei bultzada eman nahi diegu, merkatu berrietara zabaltzeko. Betiere, gure indarrak



Arantza Tapia, eguaztengan, Arrasaten, Eskoriatzako batzokian eman zuen berbaldira abiatu aurretik. | ENEKO AZKARATE

kontuan izanda: industria, teknologia berriak... eta lankidetzak publiko eta pribatuaren bidetik, betiere.

**Berrikuntza lehen-tasuna da gaur egun ere, baliabide publikoak murriztzak diren honetan?**

Bai, jakina. Baina lehen-tasunak markatuz eta kontuan izanez nazioartera zabaltzerakoan zein merkatutara zabaltzea interesatzen zaigun. Bestalde, berrikuntza alorrean, asmatu behar dugu zer eta zela egin eta gure jakintza enpresetan zela inplementatu. Ikerketa eta teknologia, berrikuntza, hezkuntza... ezinbestekoak dira, horietan inbertitu behar dugu, baina jomuga, inportantea, merkatua, produktua, industria dira.

**Mondragoneko kooperatiba batzuk, hasierakoak bereziki, etxetresnetakoak-eta, oso une larrian daude.**

**"Euskadi helburu turistiko erakargarri moduan ikusten dute kanpotarrek"**

**"Adierazle batzuek diote uda pasa ostean argia ikusten hasiko garela"**

**Zerbait egin daiteke erakunde publikoetatik haiei laguntzeko?**

Tresna finantzariak, parte hartzea bultzatzekoak... baditugu, baina garrantzitsuena da enpresek eurek egitea behar dutena, neurriak hartzea, eta, horretan, aipatu dituzun Mondragoneko enpresek badihardute. Zertan den ona eta nora joan behar duen jakin behar du enpresak. Hala, balio erantsiko produkzioak Euskadin geratu behar du eta bestea kanpora eroran. Hori egiteko bidean daude kooperatibak eta horretan enpresei laguntzeko prest dago Jaurlaritzak.

**Euskal enpresen nazioartekotze prozesuan, ze neurri zehatz proposatzen duzue?**

Batetik, esan dudan moduan, ondo erabakitzea ze merkatutara joan nahi dugun. Bestetik, soluzioak ezberdinak izan daitezke, enpresa handiendako modu batekoak eta txikiendako bestelakoak. Enpresa txiki batek, agian, ez du egin behar nazioartekotzeko prozesurik, baina handiek irekitako bidetik joan daiteke, ondoan.

**Adegi eta sindikatuak ados jarri ezinda daude metaleko lan hitzarmena dela-eta. Zerbait egin dezake Jaurlaritzak?**

Oro har, garrantzitsu da denok batera jardutea: erakunde publikoak, batetik, baina sindikatu eta ugazabak ere bai. Guztiok atera behar dugu krisitik elkarrekin eta malguak izan behar dugu, esfortzu handia eginez, enpresaburu, langile eta erakun-

deok. Guztiok irabazi behar dugu. Krisiaren errudunak aurkitzen ibili beharrean, irtenbideak elkarrekin topatu behar ditugu.

**Gasa ustiatzeko frackinga erabiltzearen aurka azaldu da Jaurlaritzak berria. Zergatik?**

Ez dago frogatuta ingurumenarekiko kaltegarria den edo ez metodo hau, eta, hori ziurtatu bitartean, nahiago dugu teknika hori ez erabili lurpetik gasa ustiatzeko. Gainera, oraingoz, ez dakigu gure lurpean zenbat gas dagoen ezta zenbat atera daitekeen. Guztizko bermerik ez dagoen bitartean ez dugu egingo.

**Turismoa gaur egun ekonomiaren-dako oso garrantzitsua, "traktorea", dela esan duzu. Ze ekarpen egin diezaioke euskal ekonomiari?**

2000. urtetik hona lortu dugu Barne Produktu Gordinaren %6 izatea turismotik eratorria. Oso

**"Kaltegarria ez dela ziurtatu bitartean, nahiago dugu ez erabiltzea frackinga"**

**"Lehen-tasunen urtea izango da hau, baina urte batek ez du legealdia egiten"**

sektore garrantzitsua da eta aurrerantzean ere apustu garrantzitsutzat dugu. Jakina, Euskal Herria inoiz ez da izango turismotik bakarrik bizi den herria; ez dugu hori nahi, gainera.

**Euskadi marka Espainia markaren-gandik ezberdindu nahi duzue, aurreko Jaurlaritzak egin zuenaren kontrara. Zergatik?**

Euskadik badauzka ezaugarri ezberdinak, bereziak, eta ez ditugu besteekin nahastu nahi. Baditugu kultura, hizkuntza, egiteko modua, balioak, mendiak, kosta... Eta horiek bereizi nahi ditugu. Kanpotarrek ere Euskadi ezberdintzat hartzen dute. Horretan sakondu nahi dugu. Guztiok osatzen dugu lur hau eta guretako ezinbestekoak dira gure konpromisoa, lan ona, gastronomia... Horiek guztiak balioak dira. Herri turistiko batek herriak, hondartzak, mendia... balioan jartzen ditu, baina baita pertsonak, izaera, kaleetako merkatuak, merkataritza txikia... Horiek guztiak baliatu behar ditugu.

**Diozue enpresei errentagarriagoa zaiela Euskadin egotea Espainian baino. Hala da?**

Bai. Espainiako marka beheba jota dago munduan. Eta, ostera, Euskadik beste era bateko marka dauka. Enplegua geroago eta okerrago dago, baina, halere, Espainian baino hobeto. Gure markan sendotu behar dugu, gure enpresek ere hala uste dute.

**Espainiatik geroago eta gutxiago eta Europa eta beste toki batzuetatik turista gehiago datoz gurera?**

Bai, 2012ko datuek horixe diote. Mundutik geroago eta jende gehiago dator, eta, horri esker, datuak orekatu egin dira. Kanpotarrek bilatu egiten gaituzte eta Euskadi helburu turistiko erakargarri moduan ikusten dute.

**2013ko Jaurlaritzaren aurrekontuaren gainean zerbait aurreraterik bai?**

Egoera konplikatu da eta 1.200 milioi euro gutxiago izango ditugu aurten. Murrizketak izango dira, baina gure ildoak markatuko ditugu eta lehen-tasunak zehaztuko ditugu. Aurten izango da lehen-tasunen urtea, baina esan nahi dut urte batek ez duela legealdi osoa egiten eta lau urteko lana aztertu beharko da azkenean. Martxoaren 12-rako, berandue-  
nez, Legebiltzar-  
rera eroango ditugu aurrekontuak onar-penerako.



Produktu freskoetan eskaintza baliagarria 2013ko otsailaren 2tik 20ra.



**39** €

Eroski pentsu-urdaiazpiko iberikoa, alea.



**2** €

Txokolatezko croissant txikiak, 10 + 4 opari



**3** €/kg  
**3,25**

Txitxarroa 340-495 g



Labeldun patata, 3 kg-ko poltsa

**2** €/kg  
**2,39**



**6** €/kg  
**6,50**

Oilasko-bularkiak, 2 edo 3 ale

**GOXOTASUNA**  
**eta BEROTASUNA,**  
ezin hobeto atsedean hartzeko.

Etxeko osagarrien eskaintza baliagarria 2013ko urtarrilaren 31tik otsailaren 27ra.



[www.eroski.es](http://www.eroski.es)

**EROSKI**

zurekin

Eskaintza baliagarria Eroski Arrasate Hipermerkatuan. Musakola z/g. 20500. ARRASATE.

# HERRIAK

ANTZUOLA

## Hitza da giltza Sasibertso Eskolan

- ▶ Hilaren 20an, eguaztenean, hasiko da Antzuolako bertso eskolan lehen saioa
- ▶ Izena emateko epea oraindik zabalik dute herriko gazte eta umeek oraindik ere

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bertsolaritzak, bertsoan aritzeaz gain, kulturaz, euskaraz eta lagunartez disfrutatzeko aukera ematen du. Horixe azpimarratu digu Hodei Letek, Sasibertso Eskolan *sasi maisu* arituko den antzuolar gazteak.

"Bertso eskolaren lehen helburua Antzuolako gazte eta umeei bertso mundua ezagutarazi eta berarekin disfrutatzeko aukera ematea da. Ikasketa moduan ere balio garrantzitsuak ditu bertsoak: jendaurrean abestu, ideiak ordenatzen jakin, etab. Horretaz aparte, nola ez, bertso-kantuarekin lehen kontaktu bat izatea ere nahiko genuke: errimak, bertso zaharrak, bertso doinuak... ikasiz", dio Letek.

### Antzuolako bertso eskolak

Lehenengo bertso eskola Enaitz Alustiza bergararrarekin izan zen Antzuolan. "Udaletxeak antolatutako bertso eskola hartan 8-9 bat pertsona ibili ginen urtarrietik ekainera arte. Haren ostean, ez zen berriz bertso eskolarik egon urte batzuetan zehar", azaldu digu Letek.

Baina, orain 3-4 bat urte, Iñaki Gurrutxaga oriotarraren eskutik, berrirori heldu zioten Antzuolan bertso eskolari. "Urte osoan zehar ibili ginen bertso eskolan 6-7 bat pertsona. Hau amaitu eta gero, ez da berriz bertso eskola ofizialik egon, baina azken bertso eskolako kideak talde moduan jarraitu dugu elkartzeko", dio. Eta horrelaxe jaio zen Antzuolan, Sasibertsolaixak izeneko taldea. "Gure kontura elkartu izan gara, bai bertso saioetara joateko, bertsoan egiteko edo bertsoekin zerikusia duen edozer gauza konpartitzeko".



Josune Peñagarikano, Hodei Lete eta Imanol Lizarralde, Sasibertsolaixak. | MAIDER ARREGI



Hitza giltza logoa. | SASIBERTSO ESKOLA

### Bertso eskola abian

Orokorrean Antzuolan badagoe la bertso zaletasuna eta jendeak gustura entzuten dituela egiten diren saio edo bertso-afariak azaldu digu Letek. "Gazte edo umeen kasuan, gehienetan zaletasuna etxean jaso ohi dute. Horregatik iruditzen zaigu interesgarria umeek beraien zaletasuna beste batzuekin konpartitu eta bertsoa beste eremu batzutan jorratzea", gaineratu digu.

Interesa dutenek otsailaren 20ra arte du izena emateko epea. Udaletxean edo 676 78 66 49 telefonora deitu behar da. Astean behin elkartuko dira, 19:00etatik 20:00etara, Orlanen. "Egingo ditugun ariketak izena ematen duten pertsonen arabera moldatuko ditugu, jende denak ez baitu bertsolaritzaren jakintza edo maila berdina. Hortaz, bakoitzaren maila ez da oztopo izango. Errimak eta doinuak landuko ditugu jolasen bidez, bertso zaharrak ikasiko ditugu, eta nola ez; bakoitzak bere mailan bertsoan egiteko aukera izango du. Garrantzitsua da bertso eskola, bertsolaritza familiarrean ikasi arren, lagun arte zabalagoan disfrutatzeko aukera ematen du-eta".

### ESANAK

"Bertsolaritzak lagun artean disfrutatzeko balio du"

"Herrian badago bertsoetarako zaletasuna"

HODEI LETE | BERTSOLARIA

### Sasibertsolaixak: lagun artean jaioa

"Azken urteetan lagun talde bat baino ez da izan Sasibertsolaixak taldea; ahal dugun heinean, bertsoarekin erlazioa duten herriko ekintzetan parte hartu eta laguntzen saiatzen gara. Azken urteetan San Isidrotan egin ohi den saioa prestatzen lagundu dugu, bertsolariak aurkitu, gaiak jarri, etab. Garrantzitsua da gaiak herriko talde batek prestatzea, bertsolariei herriarekiko gertukotasuna errazago transmititzen zaie-eta", azaldu digute Sasibertsolaixek.

2011n, Antzuolako Sasibertsolaixak Bertso Eskolakoekin egin zuten Gpuntuko abestiaren letra. 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sintonia, aldiz, Elkano Browning Cream taldeak jarri zion. Eta abestia ardatz hartuta letra berriak sortzeko lehiaketa deitu zuten Gipuzkoako Bertso Eskola guztien artean. Antzuolako bertsolariak izan ziren garaile. Gari abeslariak biribildu zuen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sintonia bere ahotsarekin.

2013  
urtarrila | otsaila  
Elgetako Espaloia  
kafe antzokian

Elgetako

I. MONOLOGO MOSTRA



Otsailak 15 eta 16 - 22:30

PEDRO LLAMAS  
eta DANI LOPEZ

'Vaya por Dios:  
Mejorando lo presente'

Umorea %100 musikarekin, parodiarekin eta inprobisazioarekin jantzita.  
Sarrera: 12-10 euro

sarrerak erosteko: [www.espaloia.com](http://www.espaloia.com)

KAFE ANTZOKIA  
espaloia  
ELGETA

# Ospitale osteko alokairu etxeak, zozketaren zain

Eraikitzen amaituta, Etxebidek maiatzean emango du zozketaren berri

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ospitale osteko alokairu publiko bi blokeetako lehena amaitu dute eraikitzen. Jaurlaritzak izan du, Visesa enpresaren bitartez, lanen ardura, eta aurreko astean egin zuten teknikariek ikuskaritza, lanak amaitutzat emateko beharrezkoa. 140 etxebizitzadun blokea, beraz, amaituta geratzen da eta orain horiek alokairuan jartzeko prozesua Etxebide erakundearen esku geratzen da aurrerantzean. Hain

**DATUA**

**140**

ETXEBIZITZA GUZTIRA

Amaitutako blokean bi logeladun 60-65 metro koadroko 36 etxebizitza daude, hiru logeladun eta 75 metro koadroko 75 eta logela bakarrekoak 14.

zuzen, Etxebidek maiatzean jakinaraziko du zozketak noiz egingo diren, urte horretan egingo diren gainontzeko zozketa guztiakin batera. 2013 amaiera, 2014 urte hasiera litzateke epea, aurreikuspenak betez gero. Alokairuaren prezioa, mota honetako sustapenetan egiten den moduan, maizterren diru-sarrera eta etxebizitzaren momentuko salneurriaren arabera ezarriko da.

Ospitale osteko Zerrajera zaharreko inguruan alokairuko



Amaitula dagoen lehen blokea, 140 etxebizitzarekin. | J.B.

bi bloke eraikitzeke proiektuak hortaz, aurrera jarraitzen du. Bietatik lehena amaituta, orain jakiteko dago alboko orubean jaso beharreko gainontzeko 216 etxebizitzekin noiz hasiko diren. Visetatik bertatik diote gaur

egungo egoera ikusita oraindik zaila dela inolako eperik zehaztea. Momentuz, orube hori putzu handi bat besterik ez da. Bestelako informaziorik ezin dute aurreratu, Visetatik bestelako erabakirik hartu ezean.



Alboko orubea hutsik dago, lanak noiz hasiko zain. | J.B.

## Pertsona nagusiei bizimodua errazteko laguntza zerbitzua Arrasaten: Saroan

Jorge Agirrek eta Sara Alavak 2012ko maiatzean zabaldu zuten Saroan, nagusiei laguntza emateko zerbitzu modura. Tailerrak eta banako saioak lantzen dituzte nagusiekin.

**I**bilbidea hasi zuenetik Debagoieneko bizilagunek Saroan zerbitzuen onurak jasotzen dituzte. Hain justu ere, 65 urtetik gorakoei zuzendutako zerbitzua da Saroanek lantzen duena.

**Aisialdia eta beste** Adibidez, jakingura duten pertsonen, Saroaneko tailerren bidez, parte hartzen dute aisialdiko taldeetan, eta eztabaida edo komunikazio guneak, eskulanak eta bestelakoak lantzen dituzte nagusiekin, talde txikietan: "Bizi-bizi jarrai dezaten, gaitasunak mantendu eta trebetasun berriak garatuz". Horrekin batera, laguntza osagarriak behar dituztenek hobera egiteko, "gorputz, adimen eta emozio arloak" lantzen dituzte.



Jorge Agirre eta Sara Alava, Saroanek dituen produktu batzuekin.

“ Saroanek eta Fagorrek duten elkarlanari esker, Saroaneko erabiltzaileek onurak jaso ditzakete osasun, ongizate, segurtasun eta etxeko portaera iraunkorrean. ”

Zehatzagoesanda, gorputz arloan estimulazioa, gimnasia... lantzen dute; adimen arloan, memoriaren entrenamendua, ezagutzaren estimulazioa eta beste; eta emozio arloan, laguntza psikologikoa eskaintzen dute. "Jakini badakigu zer egoera bizi

duten pertsonen nagusitu ahala, haien bizitza eta ingurukoena aldatzen hastendenean. Horregatik jaso dute aholkularitza senitzaileek, bizi behar dituzten egoera berrien inguruan, bai eta horiei aurre egiteko behar dituzten baliabideak ere", esan dute.

**Onurak, Saroanekoek** Bestalde, Saroanek proiektu batean kolaboratzen du Fagorrek, eta horri esker, "Saroaneko erabiltzaileek onurak jaso ditzakete, osasun, ongizate, segurtasun eta etxeko portaera iraunkorrek lotutakoak".

## Hilabetez eta egubakoitzetan, Irakurle Kluba Santa Marinako auzo-bibliotekan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Irakurle Klubaren lehenengo saioa egingo dute gaur Santa Marinako auzo-bibliotekan. Hala, martxoaren 15era bitartean, egubakoitzero elkartuko dira bertan, 18:00etatik 19:30era.

**Irakurketa giroa sortzeko xedez**

Irakurle Kluba Bularretik Minztora programaren barruan dago sartuta. Hori urrian abiarazi zuten, eta maiatz-ekaina bitartean amaitzeko asmoa dute.

Saioen helburuak garbiak dira, antolatzaileen esanetan. Hala, "haur eta gurasoen artean irakurketa giroa" sortu gura dute, eta, bide batez, "kalitatezko eskal liburuak ezagutzea eta liburuaren komentarioak bultzatzea" ere bilatzen dute.

Aurretik Kulturaren egon ostean, Santa Marinan hartuko du lur ekimenak. Oraingoan ere, 3-5 urte bitarteko haurrei eta haien gurasoei zuzenduta dago.

## Ortodoxiatik gutxi duen Blues & Decker talde asturiarra zuzenean gaur, 22:30ean, Iluntz tabernan

*Stealin'the Blues* diskoa aurkeztuko du Blues & Decker laukote asturiarrak Iluntz tabernan gaur, 22:30ean hasita. "Ortodoxiatik gutxi duen bluesa, sofistika eta zatarkeria". Horixe eskaintzera etorriko dira Gustavo Perez, Ludwig Molina, Kike Cuetos eta Guzman Lanza Arrasatera. 2009ean sortu zen taldea, eta, urtebete geroago, lehen maketa grabatu zuten; ordutik hona emanaldi ugari eskaini dituzte, taberna eta jaialdi ezberdinetan, eta gaur, Arrasaten aurkeztuko dute estudioko euren aurreneko grabazioa.



Nagusientzako laguntza zerbitzua

### BANAKAKO ETA TALDEKAKO SAIOAK:

- Estimulazioa
- Memoriaren entrenamendua
- Eztabaida eta komunikazio guneak
- Eskulanak
- Laguntza psikologikoa

Nafarroa Etorbidea 19, 8. bulegoa . 20500 Arrasate . Tel.: 943 10 90 80  
637 71 87 55 . 637 71 87 58 . [info@saroan.com](mailto:info@saroan.com) . [www.saroan.com](http://www.saroan.com)

NIRE USTEZ

AITOR IZAGIRRE



Ustelak ustel

Aztoratuta dabilta aspaldion komunikabideak Barcenas, Urdangarin eta adiztera eman diren azken ustelkeria kasuekin. Denon ahotan dabiltazen gaiak dira, baina badirudi ez garela batere harritu eta era pasiboan onartzen ditugula; finean, denok dakigu ustelkeria beti existitu izan dela, existitzen dela eta gurekin jarraituko duela, eta gehiago gizarteko estamentu horietan.

Zer gertatzen zaio gizarteari? Horren lo al gaude? Nor bere zilborrera begira, gure egunerokotasunak irentsirik, ez al dugu ezer egin behar? Errealak edo Athleticen irabazten jarraitzen duten bitartean... guri bost axola! Bejondeigula.

Aspaldian badirudi norbanako bakoitzak gure buruari soilik begiratzen diogula, gure gurasoengandik jasotako baloreak galtzen ari gara, non geratu dira elkartasuna edo laguntasuna?

Berdin-berdin kalean gaudenean edo erakunde, talde edo elkarte bateko parte garenean ere, garrantzitsuena bakoitzak bere esparrua ondo antolatzea da, norberaren helburua erdiestea eta auzokidearena?

Urdangarin, Barcenas eta horien gorabeherak ez didate lorik kentzen, goimaila horietan beti antzera izan delako, gizarteko beste eremuetan antzeko jarrerak ikusteak arduratzen nau, herrian, gure jarreretan; nora goaz? Ze adibide utziko diegu ondorengoei?

"Zer gertatzen zaio gizarteari? Horren lo al gaude?"

Zine Metrallaren barruan, 'El baile rojo' dokumentala etzi

Yesid Campos antropologoaren *El baile rojo* dokumentala eskainiko dute domekan, 18:30ean hasita, Gaztetxean, Zine Metrallaren barruan. Kolonbiako Union Patriótica alderdiaren kontra 1984a ezkerreko eginiko erasoetan oinarritutako lana; 4.000 kide inguru hil zituzten *dantza gorria* izeneko planaren barruan.

Aratusteetako mozorroa, txamarraren azpitik

XABIER URZELAI | ARRASATE

Zapatuko Aratuste-parrandak ez zituen guztiak ase, eta, ohiturak agintzen duen moduan, martitzenean ere jendea mozorrotuta ibili zen Arrasaten. Egia da, baita ere, egunean botatuko elurteak hoztu

egin zituela asko eta asko. Horregatik, plaza inguruan bestetan baino gehiago kostatzen zen Aratusteetako jai-giro koloretsua jartzea, nahiz eta ilundu zuenerako plaza giro ederra zegoen.

Egan taldekoak musika emanaldirako prestatzen hasi zirenerako, 17:00 inguruan, Txatxi-

lipurdiko lagunak desfile jaialdia hasi zuten plazan. Han ere eguraldiak baldintzatuta egin zuten lan, eta, euriaren beldur, arkupeetan jarri zuten ibiltokia. Eta bai, argazkilariak bezala, desfileko aurkezleak ere behin baino gehiagotan esan behar izan zuten gaztetxoek txamarra erantzeko,

desfilerako. Iluntzean, osteran, SUDCekoek sardina erre zuten plazan -ondo hartu zuten su-; gazte koadrila batek SUDCeko beteteranoak imitatu zituen, eta bi sardina erre; hala, Bilboko Santutxu auzoko Samasiku Txarangak girotuta, amaiera bikaina eman zioten jaiari.



Plazako desfilean, gudariak.



Mozorroa hartu eta arratsaldean kalean ibili aurretik, eguerdian ikastetxera.



Salami kapitaina, aurrera!



Seber Altubetik plazarako bidean, neskak, gozoki eta irribarraz.



Zapatuko eraso-hegaldia martitzenean ere errepikatu zuten pilotuek.



Sardina erretzeko orduan, gazte koadrila hori aurreratu egin zen.



Kartzelatik ihes egin berri harrapatu genituen gazte horiek.



Rockzale jantzia bakarrik ez, taula gainera ere jarrera horrekin igo ziren horiek.



Olarte gunean antzerkia egin zuten.



Sorginak, desfilatzen.



Txokolatzeko gozoki marka jakin batek zale sutsuak ditu gurean. | ARGAZKIAK: X.U.

## ZALDIBAR

## EMAITZAK

Fidel & Discipulos- Iluna	10-3
Iluntz-Aldatz	5-5
Dribling-AT Betrayer	4-2
Ostantz-Abokajarro	2-4
Iluntz-Haizeas	8-2
Lasagabaster-A.Birra	2-1
Iriztu-Sonografos	3-5

## SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Sonografos	28	10
2 Iriztu	22	9
3 Abokajarro	19	9
4 Dribling	18	9
5 Ostantz	15	9
6 Aldatz	13	9
7 Haizea's Weah	13	10
8 Lasagabaster	12	9
9 Fidel & Discipulos	12	9
10 Iluntz	11	9
11 AT Betrayer	7	9
12 Aston Birra	4	10
13 Iluna Taberna	0	9

## PARTIDUAK

OTSAILAK 16, ZAPATUA  
**10:00** Aldatz-Haizea's Weah / **Ostantz**  
**11:00** Ostantz-Iluna Taberna / **Aldatz**  
**12:00** Dribling-Fidel & Disc. / **Iluna Tab.**

OTSAILAK 17, DOMEKA  
**10:30** Iriztu-AT Betrayer / **Sonografos**  
**11:30** Lasagabaster-Sonografos / **Iriztu**  
**12:30** Iluntz-Abokajarro / **Lasagabaster**  
**Atsedena:** Aston Birra

### Hainbat partidu interesgarri, sailkapenari begiratu barik

Sarritan sailkapenaren aurrealdean dabilzaten partiduak azpimarratzen ditugu, baina horiek ez dute zertan beti onenak izan. Esaterako, asteburuan adi Iriztuk eta Betrayerrek jokatu duten partiduari (domekan, 10:30-ean); partidu hori Zaldibarko klasiko bilakatu da honezkero. Edo Iluntzek eta Aboka-koek domeka eguerdian jokatuko dutena.

### Joan den astean akatsa zegoen sailkapenean

Joan den astean argitaratutako Zaldibarko zutabearen akats txiki bat zegoen, eta Iluntz taldea tokatzen zaiona baino hobeto jarri genuen sailkapenean. Goian duzuen aza zuzena.

# Mauken azokak kaleak hartuko ditu, beste behin

## Herriko 30 saltoki kalera irtengo dira eta trikitalariek eta erraldoi eta kilikiek girotuko dute Merkemerkauea

### ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Neguko arropak, betaurrekoak, galtzak, poltsak, zapatak... Beste behin ere, Ibai-Arteko antolatuta Merkemerkauea egingo dute bihar, zapatua, Arrasateko kaleetan.

Hogeita hamar saltoki irtengo dira bihar kalera; 10:00etan hasi eta 20:00ak bitartean salgai interesgarriak bilatu eta aurkitzeko aukera egongo da. Baina gainera, trikitalariek erdigunea alaituko dute, 11:00etatik 13:00ak bitartean; bestalde, Erraldoi eta Kilikien Konpartsa arratsaldean irtengo da ikuskizuna eskaintzera, 17:30etik 19:00etara.

### Neguko likidazioak

Ibai-Arteko kide eta antolatzaile lanetan aritu den Edurne Aranburuk hau adierazi du: "Eskaintza handia egongo da bihar, beraz: umeen arropak, ile-apaindegi bat, parafarmazia... Dena merke-merke, izenak dioen moduan."

Neguko likidazioa egin gura izaten dute herriko komertzioek: "Neguko produktuak prezio bikiarekin ateratzen ditugu kalera eta jendearen erantzun ona jasotzen dugu, normalean".

### Kalitate ona, merkeago

Hilabete pasatxo da neguko beherapenak ipini zituztela herriko dendetan. Orduetik, hobetzen joan dira eskaintza horiek, gainera;



Merkemerkauearen aurreko edizioa. | Z.V.D.M.

une honetan saltoki gehienek prezio erdian dituzte euren salgaiak.

Bihar baina, prezioetan %70 eta %80ra bitarteko jaitsierak aurkitu ahal izango dituzte herritarrek. "Betiko produktua betiko kalitatean, baina ohi baino prezio interesgarriagoarekin, noski".

### Saltokien erakusleiho

Merkemerkauea egiten hasi zirenetik hona gauza asko aldatu dira. Esate baterako, hasieran Uarkapen egiten baldin bazen, kaleetara igaro zen herriko komertzioek antolatutako azoka. Hone-

la gogoratzen du Aranburuk: "Hasieran denok zalantzak genituen, eta gure buruari galdetzen genion ea zerbaitetarako balioko ote zuen ekimenak. Baina ikusi dugu baietz, benetan saltzen dela".

Gainera, dendan saltzen ez dena askotan kalera atera eta segituan erosten dute erosleek, Ibai-Artekoen esanetan. "Hau da, guretzako erakusleiho bat da, eta publiko zabalago batera iristen gara". Saltzaile eta bezeroentzako aukera ona, beraz, bihar-koa.

## Sasoiko produktuak, ukendu naturalak eta Korrikako materiala, baserritarren azokan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Urtarrileko baserritarren azoka eguraldi txarrak behartuta bertan behera geratu ostean, biharko, otsailko hitzordua egin dute Seber Altube plazan.

Postu ugari egongo dira bertan, guztira, 23; horietatik 19k baserriko produktuak eskainiko dituzte. Bestelakoak ere aurkituko

ditugu: esaterako, aurrenekoak egongo da ukenduak egiten dituen Eider Gutierrez.

### Korrikako materiala

Korrika 18 dela eta, tokia edukiko dute kamisetek, txapek eta bestelakoek. Hala, bihar, materiala erosi ahal izango da baserritarren azokan.

## Liderraren kantxara joango dira Mondragon Unibertsitatekoak

Aurreko astean atsedean hartu ostean, Josu Larreategiren mutilek ligako hamargarren garaipena eskuratzeko borrokatuko dute, baina ez da samurra izango, Asesoria SAF taldea lider dago eta sailkapenean. Partidua Gasteizko Iparralde kantxan izango da, zapatuan, 17:30ean.

### EDURNE ARANBURU IBAI-ARTEKO KIDEA

## "Karpak, argiak, mahaiak... dena prest dugu azokarako"

Ibai-Arteko kidea da Haurtxoa dendako Edurne Aranburu eta Merkemerkauea antolatzeke lanetan aritu da. Gauza asko prestatu behar izango dira horrelako egun baterako, ezta?

Bai; azken finean, muntaia handia izaten da, eta kontuan hartu behar dira gauza ugari. Horien artean, karpak, argiak, mahaiak, musika... Horrelako gauza guztiak kontrolatu behar dira, guztiontzat prest egon daitezen.

**Merkemerkauean beherapen handiko gauzak topatuko ditugu.** Hala da. Egia da beherapenak urtarrilean hasi zirela, azken egunotako hotzarekin ere gehiago saldu dela, baina oraindik edukiko dugu zer atera! Nik uste dut aukera onak topatu ahal izango dituztela gerturatzeko direnek.

**Egun osoa daukate, gainera, saltsan aritzeko.**

Bai. Eta gainera, euriak etena ematen badu, jendea animatuko dela iruditzen zait, denok daukagu eta eguzki apur baten beharra. Gainera, trikitalariek ibiliko dira, baserritarren azoka egongo da Seber Altuben... Giro aparta sortzen da.

## Ford Mugarrik Gasteizen defendatuko du lidergoa

Atzaldeko postuetatik urrutizko borrokan dabilen Gure Auzune talde gasteiztarren kantxan jokatuko du Ford Mugarrik zapatu arratsaldean (Divino Maestro kiroldegian, 18:30ean). Arrasatekoek lider jarraitzen dute, baina bigarren dagoen Askartzak ez du amorerik ematen.

## MEDIKU PSIKIATRA kontsulta berria ARRASATEN

**ELISABETH LAZPIUR**  
doktorea

Mediku psikiatra-psikoterapeuta  
202005123 elkargokide zenb.

Arrasate: Palacio Mendia zentro medikoa. Erdiko kalea 22.  
Gasteiz: Ortiz de Zarate Kalea 1, 1.a, 4-5 bulegoa.  
Donostia: San Martin Kalea 15, 1.a, 3. bulegoa.

Helduentzako psikiatria eta psikoterapia kontsulta  
Osasun mentalean prebentzioa eta orientazioa.

Aurretiko hitzordua telefono honetan  
Tel.: 628 66 64 37

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

# Hondakinen gaikako bilketa sistema atzeratu egin dute

Atarteekin izandako bileren ostean prozesu parte-hartzailea hasiko da orain

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udal Gobernuak pasa den astean bilerak egin zituen herriko 700 atarteetatik 100 ingurutan; 15 lagunek parte hartu dute, batez beste, bilera horietako bakoitzean, 400 bat lagunek guztira. Balorazio oso positiboa egin dute, ikusi dutelako herritar gehienak "birziklatzearen alde" daudela. Azpimarratu dute giro onean eta "errespetuz" egin direla bilerok.

Askotariko iritzi, ekarpen, kezka eta kexuak jaso dituzte, eta Mankomunitatera bideratzen ari dira horiek orain, aztertu eta bideragarriak diren edo ez erabakitzeke. Bada, baina, batean eta bestean ikusi eta entzundakoetatik ateratako ondorio bat: desinformazioa egon dela. Horren harira, autokritika egin du Jesus Elortzak: "Beharbada, ez dugu jakin izan adierazten zeintzuk diren gure nahiak".

## Gaikako bilketa modua aztergai

Horren harira, Bergarako alkateak argitu du hondakinak gaika bildu nahi dituztela, baina ez diela hainbeste inporta hori nola eta

zein sistemaren bidez egingo den; apustua gaikako bilketaren aldekoa da, gai horiek birziklatzeko ondoren.

## Parte-hartze prozesua orain

Martxoan hasiko da gaikako bilketaren gaineko prozesu parte-hartzailea, zazpi bilera egingo dituzte, eta herritar guztiak gonbidatuko dituzte horietara. Atarteetako bilerek emandakotik abiatuta, proposamen batzuk eramango dituzte saio horietara; saio lotesleak izango dira, baina ez da dena erabakiko horietan. "Gauza asko erabakiko dira, baina, adibidez, ezin izango da erabaki gaur egun bezala jarraitzea. Hori ezinezkoa da. Gure nahia da hondakinak gaika biltzea birziklatzeko, eta erabakiko duguna da gaikako bilketa hori nola edo ze sistemarekin egin".

## Udara arte atzeratuko da

Prozesu parte-hartzaile horrek, hori bai, gaikako bilketaren ezarpen data atzeratzea ekarriko du. Apirilean ezartzea zen asmoa, baina ez da hala izango: "Data zehatzik ez dakigun arren, segu-

ru-seguru udako oporrak baino lehen martxan egongo dela gaikako bilketa sistema".

## Gune guztietan aldi berean

Herri osoan aldi berean hasiko dira sistema berriarekin funtzionatzen, nahiz eta alde zaharrean prozedura beste bat izango den eta horretarako harremanetan dauden Diputazioarekin.

Dagoeneko zehaztuta dagoena da zeintzuk izango diren bilketa puntuak, eta horren berri herritarrei emateko mapaz osatutako erakusketa zabalduko dute udaletxe osoko bilkuren aretoan hilaren 25ean. Egundakoz berdeak dauden tokietan egongo dira gehienak, eta ez dute baztertzen zenbait puntutan bilketa zintzilikarioekin beharrenez beste moduren baten egitea.

Lurpeko edukiontziei dagoeneko, soberan daudela diote, baina aztertzen dabilta kendu egingo dituzten edo berrerabiltzeko aukerarik ba ote dagoen. Eta auzo-konpostari dagokionez, azkenik, ari dira eskaerak jasotzen eta ez dago epe-mugarik, epeak zabalik jarraitzen du.

## Ikurrinari omenaldia egingo zaio otsailaren 23an herriko plazan

Datorren martitzenean agerraldi jendetsua egin nahi da omenaldira joateko herritarrei dei egiteko

A.B. | BERGARA

Bergarako Udalak jakinarazi du Espainiatik agindua jaso duela Espainiako bandera udaletxeke toki "ikusgarri eta lehentasuneko" batean jartzeko, edo bestela "gogorki zigortua" izango dela. Udal Gobernuak "inposaketa" hori salatu nahi du eta herriaren erabakitzeke eskubidea aldarrikatu. "Urteetan herritarrek gogor borrokatu dute gure nortasun ikurra den ikurrina legezatu eta erakundeetan egoteko, besteak beste, gerra garaian eta frankismoan. Horren adierazle, 70eko hamarkada ezker, herritarren bultzadaz eta Jose Luis Elkoro buru zuen Udalaren ekimenez, ikurrina izan dugula urte hauetan guztietan gure nortasun ikur nagusi Bergaran", adierazi du Gobernuak.

## Ikurrinari omenaldia 23an

Otsailaren 23an, 13:00etan, herriko plazan ikurrinari omenaldia egingo zaio eta Udal Gobernuak herritarrei parte hartzeko dei egin die. "Balkoietan euren herrialdeko bandera eta ikurrina jartzeko gonbidapena egiten diegu, herri eta pertsona guztien naziotasuna aldarrikatzeko eskubidea azpimarratuz". Herriko elkarteei ere egoitzetan ikurrina jartzeko gonbidapena egin die Gobernuak.

## Agerraldi jendetsua 19an

Otsailaren 19an, bestetik, 19:00etan, udaletxeke osoko bilkuren aretoan, agerraldi jendetsua egin nahi da hilaren 23an egingo den omenaldirako deialdia egiteko. Otsailaren 23koa ekitaldi oso jendetsua izatea nahi dute.

## Zuhaitz Eguna martxoan egingo den arren, Zuhaitz Azoka bihar izango da

A.B. | BERGARA

Orain arte Zuhaitz Eguna eta Zuhaitz Azoka egun berean ospatzen ziren, baina aurten lehen aldiz bi ekimenak bereiztu egingo dira. Zuhaitz Eguna martxoaren 9an ospatuko da, Naturaren Egunaren bueltan. Udala egun borobila izan dadin egitaraua lantzen ari da.

## Zuhaitz Azoka bihar

Bihar, zapatua, San Martin plaza lore, landare eta zuhaitzek jantziko da. Urteroko Zuhaitz Azoka izango da, eta, eguraldiak laguntzen badu, behintzat, herritar asko izango dira plazatik bueltatzea emango dutenak. Aurten 20 saltzaile inguru etorriko dira.



Zuhaitz eta landaraz beteko da San Martin plaza bihar. | GOIENA

## NIRE USTEZ

JOSU ELORTZA



## 25 urte, Zorionak

Herrian urteko hitzordu bilakatu den Aratustee-tako kontzertuak bazuen are garrantzitsuago izateko arrazoirik, 25 urte baitziren udaletxeke pleno aretoan lehenbizikoz egin zenetik. Nola imajinatuko zuten Alfredok eta konpainiak pantera hark gaur egungo ikuskizunera eramango gintuenik.

Erronka handia egindako ibilbidea kontzertu batean biltzea, 25 urteri musika eta antzezlanak jarritz; obrak elkartu eta gidoiak prestatu ikuslearentzat istorio ulergarri bat asmatzeko. Mexiko, Suedia, Venezia, Andaluzia, Amerika... eta itsasoan barrena pirata artean ere ibili ginen bidaia magikoan.

Eskerrak eman udal musika banda eta orkestra sinfonikoko

**"Erronka handia izan da egindako ibilbidea kontzertu batean biltzea"**

musikariei, Debako Biraka dantza taldekoei, Josu Mugika eta Mirian Merino dantzariari eta Aritzeta abesbartzari. Manu, Mikel, Olatz, Sara, June, Olatz eta Mariñe aktoreei eta antzerki konpainiako Igor, Iosu, Maria Eugenia, Julen, Luisfe, M. Carmen, Juanjo, Martin, Guti, Felix eta gazteen taldeari.

Amaierako ikusleen txalo eta oihuek bidaia magikoa borobildu zuten. Baina hau dena ez zen posible izango Alfredo Gonzalezen pazientzia eta musika, Manu Diazen gidoi eta Jabi Burgosen zuzendaritza gabe. Eskerrak asko, eta zorionak, hiruroi.

Esaten zuten bai, "Que no se os olvide, Bergara se escribe con B... de Broadway".

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**TELEIXA**  
**BILTEGIAK**

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegarieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**UREDERRA**  
ITURBINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918



# Ndiaye-ren gorpua Senegalera doa gaur

Kale-saltzaile senegaldarraren familia eta lagunak oso pozik daude jasotako babesarengatik

ARRITXU BARRUSO | BERGARA


Nbaye Ndiaye (*Embai*) kale-saltzailearen familia eta lagunak nahia, zorionez, egia bihurtu da, azkenean ere. Haren gorpua Senegalera eroatea lortu dute. Bergarako Ndank Ndank elkarteak helburu hori lortzeko lanean ibili da eta bertako kide Eli Dominguezek azaldu digu Ndiayeren gorpua gaur, egubakoitza, abiatuko dela Senegalera: "Elgoibarko tanatorio-ko arduradunekin eta Ndiayeren familiarekin hitz egin dugu eta azaldu digute eguaztenean bertan lortu zutela behar besteko dirua. Atzo, eguena, Ndiayeren gorpua Sondikatik Madrilerara eron zuten eta gaur arratsaldean, 17:40an, hegazkinaz Madrildik Dakarrerako bidea egingo du". Gonzalezek azaldu du familia eta lagunak oso pozik daudela hemen bizi diren

senegaldarregandik eta bertako herritarregandik jasotako babes eta laguntzagatik.

## Soraluzeko herriarekin lanean

Nbaye Ndiaye oso ezaguna zen Soraluzen ere. Hain justu, bertan zegoela sentitu zen ondoezik. Sorluzen Ndiayeri laguntzeko kanpaina abiarazi zuten berria jakin eta berehala. Besteak beste, dirua batzeko elkartasun bonuak saldu dituzte.

Bada, Ndank Ndank elkarteak Sorluzeko herriarekin batera lanean jarraitzen du: "Gorpua Senegalera bidalita, orain Ndiayeren seme-alabei eta emazteari laguntzea da helburua. Bihar, zapatua, bile- ra egingo dugu Sorluzeko kanpainaren arduradunekin, familiari emango zaion diruaren gaineko erabakiak hartzeko".



Mbaye Ndiaye. | GOIENA

## Zazpi urte gurean

Debagoiendar askorendako ezaguna izango da, seguru, Mbaye Ndiayeren aurpegia. 32 urte zituen eta zazpi urte inguru zeramatzen gurean bizi izaten.

Pasa den eguenean, hilak 7, Sorluzen lanean zebilela ondoezik sentitu zen eta konortea galdu zuen taberna batean. Donostiako Ospitalera eraman zuten, eta bertan hil zen.

Eibarren bizi zen eta lehen-gusu eta osaba batzuk zituen Euskal Herrian. Emaztea eta hiru seme-alaba zituen Senegalen.

## Anger eta Tooth taldeen kontzertua gaur gaztetxean

A.B. | BERGARA

Anger talde arrasatearrak bere bere azken lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Bergarako kartzela zaharrean. Hamabost urteko ibilbide honetan bost disko kaleratu dituzte Zigorrolako mutilek; azkena, *Hirugarren azala* izenekoa. Bada, horixe da, hain justu, Anger taldeak Bergaran aurkeztuko duena.

Tooth taldea, bestetik, 2009an sortu zen. Post-hardcore doinue-tan murgiltzen den proposamena da. Talde bizkaitarraren influentzien artean Dut, Lisabö, Izaera, Helmet eta Unsane taldeak daude. Taldearen lehen lan autoekoiztua aurkeztuko dute gaur gernikarrek gaztetxean.

Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

## TXALOAK ETA TXISTUAK



GARBIGUNEA

## Aratuste biharamuneko oparia



Bergarako San Kristobal Garbigunean opari desatsegin batekin hasi dute eguna astelehenean. Asteburuan mozorrotzeko erabilitako karrozen hondar mordoak aurkitu zituzten. Garbigune kanpoan, materialak bereiztu gabe eta orduak errespetatu gabe utzi zituzten hondarrok. Garbigunea egunean zortzi ordu eta erdiz egoten da zabalik astegunetan.

## Jardun elkarteak antolatuta hizkuntza ekologiaren gaineko hitzaldia egingo dute otsailaren 20an

Topaguneko teknikari Itsaso Lekuonak eta Mikel Ozaitak hizkuntza ekologiaren inguruan hitz egingo dute datorren eguaztenean, hilak 20, Bergarako kultura etxean. Hitzaldiaren helburua da munduko hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen arteko harremanak ezagutaraztea. Hitzaldia 19:00etan hasiko da eta Jardunek herritar guztiak egin die gonbidapena.

## Equok antolatuta hitzaldia egingo dute otsailaren 21ean, eguena, kultura etxean, 19:30ean

Equo Bergarako herritar guztiak gonbidatu nahi ditu hilaren 21ean kultura etxean egingo duten hitzaldira. Honako gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: SOP programatutako zaharkituzapenik gabeko mugimendua, Fiare bezalako banku etikoen jarduerak, Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa eta Goieneko energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba. Hitzaldia 19:30ean hasiko da.

## Moyua enpresak egindako lan-eskaintzarako izena emateko epea bukatuta, 350 eskari jaso ditu Udalak

Bergarako Udalak ohar honen bidez jakinarazi nahi du GI-632 saihesbidea eraikitzeko lan-eskaintzarako izena emateko epea pasa den otsailaren 2an amaitu zela. 350 eskaera jaso ditu Udalak guztira eta lan-eskari guztiak Moyua enpresara bidali direla jakinarazi du. Aldi berean, gogorarazi nahi izan dute Bergaran erroldatuta ez dauden pertsonak enpresa berak automatikoki baztertu dituela.



J.A. MIGURA

## Parteittirako bidean lur-jausia

Aste honetako euriteek hainbat kalte eragin dituzte Bergaran. Garrantzitsuena, akaso, Angiozarko Parteitti auzorako errepedean gertatutakoa. Martitzenean errepedea behera etorri zen, eta metro eta erdi inguruko zuloa utzi du lur-jausiak. Parteittiko bizilagunek arazoak dituzte baserrietara iristeko. Udalak adierazi du gertatutakoa aztertu eta konpontzea lehentasunezko lana dela.

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

## PATXI CASTRO



Era guztietako aukien  
konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko  
artikuluen salmenta

• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65  
639 01 69 69

## BARRIO autobus eta mikrobusak

Prezio interesgarriak!

- Eskoletako txangoak
- Upeltegietara irteerak
- Sagardotegietara irteerak
- Ezkontzak

Eska ezazu aurrekontua  
konpromisorik gabe!



Aldapa kalea 6, 4-B Ermua • Tel.: 943 17 15 01 • Pol.: 659 87 89 89  
E-posta: info@autocaresbarrio.es • Webgunea: www.autocaresbarrio.es

# Karaokea eta mozorroak, batera

**MONIKA BELASTEGI | BERGARA**  
Aratuste-martitzena elurtuta esnatu zen arren, horrek ez zuen ilundu arratsaldean San Martin plazan neska-mutikoendako egon zen karaokea eta DJ festa. Gaztetxo ugari batu ziren han, mozorrotuta gehienak, nahiz eta bes-

te batzuek mozorroa ez janztea erabaki zuten "hotz handia" egiten zuelako", batzuek onartu zuten.

**Askotariko mozorroak**  
Mozorrotutakoen artean denetarik zegoen: pailazoak, rockza-

leak, punkak, sevillanak, indiarrrak, pottokiak, *choni*-ak eta poliziak, besteak beste.

Neska-mutiko ugari animatu ziren agertokira igo eta karaokean parte hartzera; batzuk ezin abestu ere geratu ziren, DJ festa hasteko ordua iritsi zelako.



Egiptoarrak azaldu ziren herrian.



Ederki abestu zuen talde horrek San Martin plazako karaokean.



Indiarrrak, japoniarrrak... denetarik dago talde horretan. | MONIKA BELASTEGI

## Port Aventura taldea irabazle

Port Aventura atrakzioa irudikatu zuen taldeari eman dio Bedelkarrek Aratuste-zapatuan banatutako mozorro onenaren saria. Irabazleek 260 euroko txartela jasoko dute Bedelkarko komertzioetan gastatzeko.



Port Aventura atrakzioa. | BEDELKAR ELKARTEA



A ze pare... kanibala eta polizia.

## Mikel Erentxunen kontzertua bertan behera geratu da

Musikari donostiarra gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan ematekoa zen kontzertua bertan behera geratu da. Taldearen logistika arazoak dira horren arrazoia. Sarrera erosi dutenek kultura etxean berreskura dezakete dirua.

## Informatika eskolak hasiko dira datorren astean San Joxepen

Hilaren 18tik martxoaren 20ra *Teknologia berriak - hastapena* - delako ikastaroa emango dute egoitzako informatika gelan. Hilaren 19tik martxoaren 21era, berriz, proiektu digitalak nola sortzen diren irakatsiko dute.

## Pow Pow Pows taldea gaur, 22:30ean, Laino skate parkean

Pow Pow Pows taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza Lainon. Green Manalisy, Bizardunak, Mermad, Electric Riders, Royal Canal eta Vicepresidentes taldeetako kideek osaturiko musika proposamen berria da Pow Pow Pows taldea.

# BEHERAPENAK

**OTSAILAK**  
**20-21-22**  
10:00-20:00

**TORIBIO**  
**ETXEBARRIA**  
**KALEA**  
**EIBAR**

Quetzal - Bambi %  
Gratzina %  
Astigarraga %  
Lide - Bianco %  
Burbujas y más %  
No comment %  
Rosa Domínguez %  
Tiki - Farmalur %  
Txukuna - Cedry %  
Guby chicos %  
Nona - Pissa %  
Gloss Moda Joven %  
Ikusimakusi %  
Etxedreams %  
Kopiña - Katetxo %  
El Corte Inglés %

# AUKERA AZOKA

# Astelehenetik, hilabetez, ingurumen jardunaldiak


Erakusketa, hitzaldiak, pelikulak, irteerak eta zuhaitz feria eta landaketa

JULEN IRIONDO | OÑATI

Hamazazpigarren aldiz antolatu ditu Natur Eskolak Ingurumen Jardunaldiak. Giza eboluzioa eta ingurunearen aldaketa izango dira aurtengo gaiak.

Naturarekiko ezagutza, maitasuna eta errespetua landu eta zabaltzeko helburuarekin, formatu desberdinetan egingo dituzte ekintzak: hitzaldietan, esaterako, garai konkretuak –pleistozenoa– eta jarduera zehatzak –ehiztari biltzaileena eta labar-arteak– izango dituzte hizpide.

Otsailaren 20an, 22an, 26an eta 27an izango dira hitzaldiak, eta hizlari "gai horietan punta-puntako aditu" direnak ibiliko dira, Natur Eskolako Imanol Biainen esanetan. "Unibertsitateko irakasleak dira denak, guztiak doktoreak, eta aztarnategie-



Arrasateko Lezetxikin agertutako faunaren irudia. | MAURICIO ANTON

tan ardurak dituztenak, ikerketan eta indusketetan". Alvaro Arrizabalaga arkeologo oñatiarra da horietako bat. 19:00etan izango dira hitzaldiak, kultura etxean.

Han bertan, Ingurumen Jardunaldietako gaiekin lotutako film emanaldiak ere izango dira, otsaileko azken bi egunetan, eta

baita martxoaren 1ean –egubakoitza– ere. Atapuercari eta dituen labar-margo ikusgarriengatik gizateriaren ondare preziatuena den Chauvet-ko (Frantzia) kobazuloari buruzkoak dira emanango dituzten pelikulak. Egubakoitzeko emanaldia 19:30ean izango da –besteak 20:00etan–, eta hiru

dimentsiotan, gainera.

Atapuercan aipatuta, bertara izango da, hain justu, Natur Eskolakoek aurten antolatutako irteera. Burgosko Giza Eboluzioaren Museoa ere bisitatuko dute, eta baita Puente Viesgoko (Cantabria) Monte del Castilloko kobazuloak ere, bertako labar-arteak ikusteko. Asteburuko –martxoak 9 eta 10– irteera honetarako izena hilaren 1a baino lehen eman behar da –Natur Eskolan–, eta lekua mugatua da. 40 lagunendako dago, eta izena emandakoak 22 baziren eguaztenean.

Bestalde, Zuhaitz Feria ere izango da aurtengo jardunaldietan –martxoaren 2an– eta bi landaketa, hilaren 3an herrian eta 17an Durun.

Erakusketari dagokionez, astelehen honetatik martxoaren 10era egongo da kultura etxean –egunero, 18:00etatik 20:00etara–, *Gure inguruko arkeologia, paleontologia eta labar-arteak* izenburupean. Aranzadi Zientzia Elkarteak ekarritakoak eta Mauricio Anton puntako marrazkilaria lanak egongo dira ikusgai. "Historiaurreko argazkirik ezean, marrazki argigarriak", Imanol Biainen esanetan.

## Hizkuntza irizpideak zorrotzago zainduko dira

Kontratazioetan nola jokatu adostu dute udalek –Oñatikoak tartean–, Aldundiak eta UEMAK

J.I. | OÑATI

Oñati dago berriki Foru Aldundiarekin eta UEMArekin kontratazioetarako hizkuntza irizpideak modu bateratuan aplikatzeko erabakia hartu duten Gipuzkoako 36 udalen artean. Honek zer dakarren duen galdetuta, Nerea Zubiak, Euskara eta Hezkuntza batzordeburuak, dio euskara hizkuntza ofiziala izan arren, erakundeek ez dutela "izaera hori praktikara eraman bere osotasu-

nean, ezta Oñatin ere". "Gurean, kontratazio mota jakinetan, lehiketa irekietan eta pleguetan irizpideak jasotzen ziren arren, ondoren ez zitzaien jarraipenik egiten. Eta, orain, jarraipena egiteko tresnak ere eskuragarri izango ditugu", dio Zubiak.

Batzordeburuak azaldu du aldaketak kontratazio guztietan izango duela eragina: "Beraz, lehenengo urratsa udal guztian hau barneratzea izango da eta



Nerea Zubia –ezkerretik lehena–, gainerako ordezkariak. | GOIENA

horretan jarriko gara berehala. Ondoren, adostutakoa praktikan eramango dugu. Langile bakoitzak izango du berari dagozkion kontratazioen jarraipena egitearen ardura hizkuntza-irizpideei

dagokienez ere. Ez da euskara teknikariaren ardura izango".

Enpresek egoera berrira egokitu beharko dutela ere badio Zubiak, eta lan arloan eragitea lortuko dutela horrela.



AMAIA TXINTXURRETA

## Torturaren Aurkako Eguna

Otsailaren 13an Torturaren Aurkako Eguneko ekitaldiak egin dituzte aurten ere Oñatin. Bilkura egin zuten lehenengo plazan, *Torturari stop, inpunitaterik ez* zioen pankartaren atzean. Gaztetxean bildu ziren ondoren, torturak jasan dituztela salatu dutenen testigantza entzuteko: Koldo Guridi, Aritz Arnaiz eta Jose Mari Zugasti oñatiarrak izan ziren hizlari.

## Bihar hautatuko dituzte Sortuko arduradunak

J.I. | OÑATI

Sortu ezker abertzalearen alderdi politiko berria eratzeke prozesuan parte hartzen ari diren oñatiarrek bihar –zapatua– dute hurrengo batzarrak, azkena.

09:30ean gaztelekuan da hitzordua, eta, oraingoan, barne antolaketa eta funtzionamendu ereduari egindako emendakinak eta Sortu alderdiko ardurak betetzeko dauden proposamenen artean bozkatzeko izango da egitekoa. Bada, bertan aukeratuko dituzte alderdi berriaren herriko arduradunak.

## Apurketak eta lapurretak, joan den asteburuan

J.I. | OÑATI

Udaltzaingoaren arabera, askotarikoak izan ziren apurketak: "Gasaren tapak, Caritasen lokaleko kristalak, lorontziak, baranda bat, lokal baten sarrera". Azken horretan, bertan zegoen ardoa hartu ei zuten, eta, Udaltzaingoaren arabera, bertaratutakoan, kintoen makilak topatu zituzten barruan.

Bestetik, sei autok kalteak izan zituzten –kalean hiruk, bik Arantzazun eta Arrikruzen besteak–, lapurrek eraginda. Ez omen zuten gauza askorik eraman.

## The Mahones, Never Surrender eta No Hope gaur gaztelekuan

22:00etan hasiko da kontzertua, eta 10 eurotan egongo da sarreara. Irish-punk-folk estiloko munduan erreferentea da The Mahones talde kanadarra. Katie McConnell akordeoi jolea, adibidez, inoizko onenen artean dago. Disko berria aurkeztuko du taldeak, *Never Surrender* arrasatearrek eta *No Hope* aretxabaletarrek bezala.

## Maskarada disko festa egingo dute bihar Sound Proyect-ekoek

Gaztelekuan da hitzordua, bihar –zapatua–, arratsaldeko seietan. Sound Proyect bikotearen eskutik egingo dute Maskarada disko festa. Gaueko bederatzia arte iraungo du saioak, eta bertaratzen direnek ez dute ezer ordaindu beharko parte hartzearen. Dantzarako aukera paregabea, beste behin ere, Oñatiko gaztelekuan.

## Martxoaren 8an joko dute, azkenean, From The Jam eta Plan Bk

Urtarrilaren 25ean ziren aritzekoak gaztelekuan bi taldeok, baina bertan behera geratu zen emanaldia. Azkenean, dena den, martxoaren 8an, egubakoitza, etorriko dira Oñatira. 22:30ean hasiko da kontzertua. Sarreraren zenbatekoa izango da 10 euro eta [www.barrabarra.eu](http://www.barrabarra.eu) helbidean eta leihatilan egongo da erosuteko modua.

## Kultura etxean egin daiteke Oñatin Korrika Laguntzaile

Martxoaren 21eko goizaldean pasako da aurtengo Korrika Oñatitik. Aurrez, AEKren ekimenari laguntzeko badaude hainbat modu. 12 euroren truke Korrika Laguntzaile egitea da horietako bat. Pina eta txartela jaso eta hainbat komertziotan deskontuak izango dituzte animatzen direnek. Oñatin kultura etxean egin daiteke Laguntzaile.

## Pilates eta bosu 'master class'-a gaur Zubikoa kiroldegian

Bosua izango da gaur –egubakoitza– Zubikoa kiroldegian egingo den pilatesko *master class*-aren ardatza. 18:15ean hasiko da saioa, eta ordu eta laurdeneko iraupena izango du. Kiroldegiko ohiko antzerako jardueretan parte hartzen dutenek ez dute ordaindu beharko. Gainerakoen artean, bazkideek 3 euro eta ez direnek 5.

## 'Publikoari gorroto' erakustera dator Huts Teatroa domekan

Antzerkiari buruzko hausnarketa jostalaritik arimaren barrunbe ilunetarako bidea egiten du

JULEN IRIONDO | OÑATI

19:30ean hasiko da saioa, Santa Ana antzokian. 10 eurotan dau de sarrerak salgai, [www.barra-barra.eu](http://www.barra-barra.eu) helbidean. Huts Teatroa taldekoen arabera "antzerkiari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra hau, publikoarekiko keinuz eta umorez; pixkanaka, ordea, arimaren barrunbe ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak...

giza izatearen amildegi ertzerira iristeraino".

### Ander Lipus taula gainean

Ander Lipus, Miren Tirapu eta Iñaki Ziarrusta ibiliko dira antzezle lanetan, Manex Fuchs-ek zuzendutako lanean. Obraren egilea Xabier Mendiguren da. *Publikoari gorroto* idazterakoan Antonin Artaud-en eragina jaso izana aipatzen du Mendigurenek. "Antzerkia eta bere doblea".



Ander Lipus, antzezten. | HUTS TEATROA

"Aktorea eta taula zuzendaria, pertsona eta pertsonaia, ni eta nire mamua". Baina taldekoen esanetan "antzerki hau ez da *metateatroa*. Izatekotan, ekintza teatral bat da". Korrika Kulturaren barruan dago saioa.

## Elurrak ez zuen ma

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Martitzena zuri esnatu bazen ere, kaleak kolorez eta alaitasunez jantzi zituzten herritarrek. Beste behin ere, Aratuste-martitzen egunari ez zioten hutsik egin Aratustezaleek.

### Pailazoak eta dantzaldia

Arratsalde partean Kiki, Koko eta Moko pailazoek emanaldia eskaini zuten bete-beteta zegoen Gaztelekuan. Kiroldegian egin beharrean, aurten gaztelekuan egin dute ikuskizuna. Plazan,



Txokolate-jana.



Neska taldea mozorrotuta.

## "Antzinako nekazarien moduko ardoa egiten dugu Aroan, ardo ekologikoa"

Urbasa eta Andia mendilerroen babespean dago Aroa upategia, Nafarroan iparren dagoen upategia da. Ardo ekologikoa egiten dute, lurra zainduta.


**T**xus Maciasek eta Kepa Larunbek sortu zuten Aroa upategia. Lau lagunek dihardute egun ardoa egiten. Jatetxe zerbitzua ere badute.

### Ardo ekologikoa egiten duzue. Zergatik?

Antzinako nekazariak ere ekologikoa egiten zuten, eta euren moduan landu gura duguk lurra. Hemen go lurra eta eguraldia zaintzen ditugu, bereziki.

### Ardo gorri nafarra da zuen eskaintza?

Gorria, zuria eta beltza. Denetarik ardoa egiten dugu. Gorria, gainera, bi urtez jarraian izendatu dute Nafarroako ardo gorri onena. Aroa Larrosa izenarekin merkaturatzen dugu; zuria, berriz, Aroa Laia; eta beltza, Aroa Mutiko. Udaberrian,



“ Ardo gorria, zuria eta beltza egiten dugu. Gorria, gainera, bi urtez jarraian izendatu dute Nafarroako ardo gorri onena. Jatetxe zerbitzua eta bisitak ere eskaintzen ditugu. ”

Aroa Garnatxa izeneko ardo beltza aterako dugu, 7 hila-betez haritzeko kupaletan egondako ardo ondua.

### Ardoa egiteko modu tradizionala, eta instalazioak modernoak.

Bai, horrela da. Teknologia eskaintzen dituen tresna modernoak ere baditugu,

baina irizpidea norberak jartzen du, eta guk lehen-go ohituren alde egiten dugu.

### Jatetxe zerbitzua eta bisitak ere eskaintzen dituzue.

Zurukoainen gaude, Deierri bailaran, eta inguruko produktuekin egindako

otorduak eskaintzen ditugu gure jatetxean. Gainera, egunero dago aukera gure mahastiak eta upategia bisitatzeko.

### On line saltzen duzue?

Bai, noski. Haxe da gure webgunearen helbidea: [www.aroawines.com](http://www.aroawines.com).



Apalaz 13, 31292  
Zurukoain - Gorozin. Nafarroa  
Tel.: 948 92 18 67  
645 75 06 01  
[info@aroawines.com](mailto:info@aroawines.com)  
[www.aroawines.com](http://www.aroawines.com)

Etor zaitetz gure ardo ekologikoak ezagutzera!



## Ikastetxeetan ere mozorro festa!



ELKAR HEZI

**ELKAR HEZI** Martitzen goizean mozorrotu ziren Elkar Heziko neska-mutikoak. Eguraldi txarragatik ikastetxean bertan geratu ziren. Herensugea atera zuten eta dantzan eta kantuan ibili ziren.



INIGO BIAIN

**URGAIN** Altsasuko Aratustek landu dituzte aurten, eta horixe izan dute mozorrotzeko gaia. Kiroldegian elkartu ziren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleak.



JABI AGIRRE

**TXANTXIKU IKASTOLA** Egubakoitzean ospatu zituzten Aratustek Txantxiku Ikastolan. Haur Hezkuntzako ikastolako patioan izan ziren eta Lehen Hezkuntzakoak, pilotalekuan.

# Artitzena zapuztu

Alaiki taldeak girotu zuen arratsalde iluntzea. Udaletxeko arkupeetan txokolatea banatzen zuten bitartean gurasoak neska-mutikoekin ibili ziren dantzan, eta, azkeneko orduan, neska-mutil gaztetxoak animatu ziren Alai-

kiren musikarekin gerria mugitzera. 21:30ean amaitu zuten dantzaldia. Antixena Gaztetxean, ostera, mozorro desfilea egin zuten. Giro bikaina jarri zuten.

Hala, agur esan diete Ararusteei datorren urtera arte.



Neska-mutikoak Oñatiko plazan mozorrotuta.



Pailazoak gaztelekuan.



Pailazoz mozorrotutako gaztetxoak. | ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA, LEIRE KORTABARRIA, A. EZKIBEL



Alaiki taldearen dantzaldia.



Txokolatea banatu zuten udaletxeko arkupeetan. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Txokolate-jan solidario arrakastatsua

Oñatiko Elizbarrutiko Misio Taldeak txokolate-jan solidarioa egin zuen martitzen arratsaldean. 60 litro esne eta 12 kilo txokolate banatu zituzten, guztira 400 bat anoa. Jose Antonio Urteaga misio taldeko kidea pozik zegoen herritarrek emandako erantzunarekin; hala, herritarrek, Udala, Pago-Uso elkarte eta Azurmendi andrea eskertu gura izan zituen emandako laguntzagatik. Lortutako dirua Malira bidaliko dute.



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi

Hotela - Jatetxea

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90

etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com



## Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak
- Parking handia
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomía zaindua eta aukera zabalekoa...

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.

# Bidegorriko lur-jausiak inbertsio "oso garrantzitsua" eskatzen du

Udaletik nabarmendu dute mendi-hegalak orain ez duela "inongo segurtasunik" ematen

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako eta Eskoriatzako bidegorria buruhauste izan da joan den asteaz geroztik. Egubakoitz eguerdian, "tamaina handiko" lur-jausia gertatu zen Aretxabaletako hegoaldeko sarreran, eta bidegorri zati bat lur, harri eta zuhaitzez estali zuen; zapatura bitartean eremua garbitu zuten, eta osteraz zabaldu.

Egunotako euriteek, baina, ez dute lagundu, eta martitzenean lokatza jausi zen, eta bidegorria osteraz estali. Haren egoera ikusita, bidegorria ixtea erabaki zuten egunean bertan. Lagun asko pasatzen dira handik egunero; bereziki, Aretxabaletatik Arizmendi Ikastolako Almen gunera doazen umeak. Bada, arazo horri behin-behineko irtenbidea eman nahian, GI-627 errepede bazterretik pasa-

bidea egokitu eta udaltzainak jarri zituzten zaintze lanak egiten, Almeneko sarrera-irteeretan. Seinale bereziak ere jarri zituzten. Eguen eguerdian, baina, bidegorria garbitu eta hura ixten zuten hesiak kendu egin zituzten. Atzo ezkerre, beraz, bidegorria zabalik da.

## Magala aztertu

Dena den, Jose Mari Segoviak Aretxabaletako Udaletik jakinarazi du Diputazioarekin badagoela harremanetan, arazoa konpontzeko. Hala ere, onartu du arazo "serioa" dela, inbertsio "oso garrantzitsua" eskatzen duena. Gaineratu du mendi-magalaren egoera "sakon" aztertu beharra dagoela, eta, hori egiteko, hobera egin behar duela eguraldiak. Horren harira, honakoa esan digu: "Gutxienez astebete pasako da".



Neska bat bidegorria ixten zuen hesiaren aurrean, eguaztenean. | XABIER URTZELAI

## Herriko urets iturriak berreskuratzeko lanetan dabilta

Basotxo ostekoa eta Bainuetxekoa txukundu dituzte, baita Gobadalekua ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Urets edo ur sufretsu iturriek zeresan handia izan dute gure herrian. Azaleko gaixotasunak sendatzeko, urdaileko minak kentzeko eta gorputza garbitzeko urte askoan erabili izan dute ur hori bai bertakoek, bai kanpotik etorritako askok. Hori jakinik, iturriok berreskuratzea erabaki du Udalak, eta lan horietan dihardute azken asteotan. 34.750 euro bideratu dituzte proiektu horretara bi iturri egokitzeko: Basotxo erretiratuen egoitza albokoa eta Bainuetxekoa. Eta, bide batez, Gobadalekua garbitu eta txukundu egin dute.

### Hankak garbitzeko tokia

Basotxoren atzeko partean, Deba erreka alboan, dagoen iturria



Urets iturria. | GOIENA

sasoi baten egondako Otalora bainuetxeari dagokio. Aurretik zegoen iturria kendu egin dute -iturri horrek ez zeukan uretsik-,

eta haren ordezkari hankak garbitzeko lekua berreskuratu. "Urets oso sakonean dago eta zuzenean ibaira doa. Hasiere batean,

gora igo eta urets iturria jartzea zen asmoa, baina ezin izan da", jakinarazi dute Hirigintzako kideek. Hankak garbitzeko horren alboan jarlekua jarriko dute; porlanezko egitura egin diote, eta orain, egurrarekin estaltzea falta da.

Urkuluko bidegorriaren hasieran dagoen iturria, osteraz, Ibarra bainuetxe izandakoari dagokio. Horrek badu urets edo ur sufretsua, eta oraindik ere hainbat herritarrek jasotzen dute ura handik. Bertako lurri eusteko egitura egokitu egin dute, eta orain, harriz estaltzea geratzen da.

### Gobadalekua garbituta

Bestalde, Bainuetxe poligonotik Arkarazo auzo aldera bidean Gobadalekua dago (urez betetako zuloa). Orain dela urte batzuk sasiak kendu eta ingurua txukundu zen, eta orain, barrualdea garbitu eta saneatu egin dute. "Kanpoaldeko sarrera egokitu, garbitu eta harlanduzko egitura egonkortu egin behar da: behar den tokietan harria jarri eta egitura sendotu egin da", adierazi dute Hirigintzako kideek.

## NIRE USTEZ



KATALIN ANTIXIA

## Sortzaileen betebeharrak

Sortzaileek badakite Interneten egon beharra dutela. Iruditzen zait, ordea, errazegi egiten dutela enpresa berrien web-a deritzogun hori. Sortzaile onak izanagatik, ez dakit ez ote duten askok epaiketa batean amaituko Interneten gauzak argi ez adieraztearren.

Elkarrizketagai izan nuen oraingo egun batean ea zein ezberdintasun dagoen Facebookean enpresa berrien perfila egin edota enpresaren webgune propioa sortzearen artean... Kontuz!

Lehenengo eta behin, domeinua ez da berdina eta horrek dakarrena... Batean zure etxean zaude, ongi da. Aukera urdina hautatuta, merkeena segurua asko, beste baten etxean zaude. Eta a ze laguntza eskaintzen dizun sare sozial honek. Orain bada-kizu zure enpresaren laguna noiz kolpatu. Eta funtzionatzen du.

Ba jakizu derrigortuta zaudela enpresa berri eta sortzailearen izenean, Facebookean lagun duzunari, lagun izate horrekin zenbat gauza onartu dituen argi adierazte- ra. Eta lagun izateari utzi nahi dioenean eman horretarako jarraibideak. Zer gutxiago!

Eta zu, izen-abizenekin urtegiari igeri zabiltzanak, galdegin zure buruari ea hain merke onartuko zenukeen zure perfilean duzun guztia. Eta gogoratu orain zenbait urte publizitaterik ez, eskerrik asko zioen mezua jarri zenuela atartean.

## "Galdegin buruari ia hain merke onartuko zenukeen perfileko guztia"

## OHARRAK

### KARATE

Odei Vazquez aretxabaletarra bihar, zapatua, Gasteizen jokatuko den Euskadiko senior txapelketarako aurretiko fasean izango da. Euskadiko selekzioarekin lehiatuko da Vazquez, kumite modalitatean.

### ATE IREKIAK, HUHEZIN

Bihar, zapatua, ate irekiak egingo dituzte Mondragon Unibertsitatearen Mondragon Unibertsita-

tatearen campusean. 11:00etatik 14:00etara zabalduko dizkiete atea aretxabaletarrei. Nahi duten herritar guztiak hurbildu ahal izango dira campusera, eta bisita gidatuak antolatuko dituzte edizio gelak, irratia, platoa, eskolak emateko gelak eta bestelakoak erakusteko. Amaieran, gainera, luntxa eskainiko dute. Mondragon Unibertsitateetik adierazi dute aretxabaletar guztiak gonbidatuta daudela.

PIENSOS  
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

# Ohiturari jarraituz, Txin erre dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARETXABALETA  
Domekako jaiaren ondoren, urteroko jaialdia egin zuten martitzen goizean Basabeazpiko eta Kurtzebarriko neska-mutikoek. Egurraldiarengatik hasierako asmoak moldatu egin behar izan zituzten; hala, Iturrigorri frontoian egin

zuten jaia ehunka umek. Pausokako txikitxoek, bestalde, haur eskolan egin zuten jaia.

## Txino-dantza egin zuten

Aratusteetako euskal jantzi tradizionalak soinean zituztela dantzan ibili ziren frontoian: 5 urte-

koek, esaterako, txino-dantza egin zuten. Ustekabe txarangak berotu zuen giroa, eta, hamaiketako egiteko, *txoripana* izan zuten.

Arratsalde partean buruhandiak izan zituzten eta iluntzean Txin erre zuten.



Umeak martitzenean.



Buruhaundiak kaleetan.



Txinen hileta egin zuten martitzen arratsaldean.



Umeak, Argitxo jantzita.



Kurtzebarriko eta Basabeazpiko neska-mutikoak, txino-dantzan.



Kurtzebarriko neskak martitzenean. | GOIENA

## Bertso afaria Maiarekin eta Sarriegirekin martxoaren 1ean

Loramendi euskara elkarteak bertso afaria antolatu du martxoaren 1erako. Jon Maia eta Aitor Sarriegi bertsolariak etorriko dira Aretxabaletara, Uratz Alde elkartera. Afaria eta ondorengo bertso saioa martxoaren 1ean, egubakoitza, izango da, 21:00etan. Sarrerak 15 eurotan daude salgai bazkideendako eta 18 eurotan gainontzekoendako. Txartelak erosteko Loramendi elkartera bertara edo Taberna Berri-ra joan beharko du interesatuak.

## Zuhaitzak landatuko dituzte bihar goizean hainbat gunetan

Zuhaitzak landatuko dituzte bihar goizean autobideko maldetan, Txarapea eta kiroldegiaren artean dagoen maldan eta Markole auzoan. Herrian dagoen boluntario taldeak egin du deialdia, eta Loramendi elkartearekin harremanetan jarri dira gonbidapenak herritarrei egiteko. 09:30ean batuko dira Ibarra futbol zelaiko sarreran. Interesa duenak aurrez izena eman dezala hona mezu bat bidalita: [landaketataldie@gmail.com](mailto:landaketataldie@gmail.com).

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**Gurea**

TABERNA

Lotoak eta  
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 20 64



**ORLY  
TABERNA**



*Giro berria dastatu,  
eta Orly aukeratu!*

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

**IOSU**  
taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 03 08



*Etan eta dastatu gure pinxo goxo-goxuak astebukaeretan*

**URBALTZ**  
taberna

Mitarte 19 - 20550  
ARETXABALETA





Etxe guztietan banatu da informazio taula. | MIRIAN BITERI

# Udal zergen hobariak eska daitezke hilaren 25era arte

Etxeetan banatutako taulan jakinarazten da idatziz aurkeztu behar direla eskariak udaletxean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udalak aurtengo udal zergeri aplikak dakizkiekeen salbuespenak, hobariak, beherapenak eta erre-

karguak onartu zituen ordenantza fiskaletan iazko urrian, eta orain, horien berri emateko informazio taula berria etxeetan banatu dute.

Horretan jakinarazten da zerga ordaintzean beherapenak aplikatzeko idatziz aurkeztu beharko dela eskaria udaletxean kasu bakoitzerako eskatzen diren agiriekin batera. Otsailaren 25era arte aurkeztu daitezke eskaerak.

Bi baldintza bete behar dira horiek eskatu ahal izateko: Udalarari ordaindu beharreko zerga kitatuta edukitzea; eta pertsona fisikoaren kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoaren kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

## Auto elektrikoetan %95

Beharapenei dagokienez, kiroldegiko eta museo eskolako tarifetan, ondasunen zergetan (kontribuzioa), obra eta ibilgailuen zergetan eta zaborraren tasetan aplika daitezke. Kirolean, esaterako, tarifa bereziak daude kide anitzeko familientzat, langabeentzat, elbarrientzat, ikasleentzat eta Eskoriatzako Kirol Elkarteko ekintzetarako. Bestetik, ibilgailuen zerga azpimarratzekoa da Ibilgailu elektrikoagatik %95eko hobaria dagoela; eta zaborrari dagokionez, lurzoru hiritarrean eta lurzoru ez-hiritarrean autokonpostajea egiten duten etxebizitzetan %25eko hobaria.

## Hutsik dauden etxeak

Bestalde, aurten errekaratu berria ere badago: ohiko egoitzarako erabiltzen ez diren etxebizitzetan. Kasu horietan errekaratua %100koa izango da.

## Rosa Lasagabaster izango da Eskoriatzako Kirol teknikari berria

M.B. | ESKORIATZA

Kirol teknikaria du herriak: Rosa Lasagabaster. Eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran kirol kudeaketa eta aholkularitza zerbitzua esleitzea onartu zuen udalbatzak.

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, eta beste bi alditan luzatu ahal izango da, urtebetez. Urtean 1.592 ordu egin beharko ditu. Askotariko zer-

bitzuak eskainiko ditu, hala nola herriko kirol programa eta jarduerak diseinatzea eta planifikatzea; jardueren antolaketan herritarren parte hartzea sustatzea, jarduerak egiteko aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea elkarrekin; arloa kudeatzea, zuzentzea eta administrazio lana egitea; eta eskoriatzarrei harrera egitea bulegoan, telefonoz eta Internetez.

## San Blas opilak egingo dituzte bihar arratsaldean Tortolis ludotekan

M.B. | ESKORIATZA

Abendutik apirilera bitartean ekintza bereziak dabilta egiten Tortolis ludotekan. Bihar, esaterako, sukaldean sartuko dira, eta San Blas opilak egingo dituzte zazpi eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei, 17:00etatik 19:00etara. Gazteria Zerbitzutik azaldu dute ekintza irekia

dela, edonork parte har dezakeela, bazkide izan edo ez.

Bestelako ekintzak ere gertatu dituzte: martxoaren 3an Gasteizko izotz pista egingo dute txangoa; martxoaren 17rako, ginkana prestatu dute, eta, apirilaren 7an, mozorro festarekin emango diete amaiera ekintza bereziei.



ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

## Guraso eta umeendako neguko aterpea zabalduko dute bihar kultura etxean

Zapatu eta domeka arratsaldeetan egongo da zabalik, 8 urtetik beherakoendako; parte hartzeko izena eman behar da aterpean bertan

M.B. | ESKORIATZA

Asteon zabalduko dute gurasoak eta umeak egoteko aterpea. Udaletik jakinarazi dutenez, zapatu eta domeka arratsaldeetan egongo da zabalik, 17:00etatik 19:00etara. Herriko guraso talde baten eskariari erantzunez, kultura etxean egokitu da gela hori; hain justu, liburutegi zaharra zena erabiltzen hasiko dira.

Udal Gazteria teknikari Maider Etxanizek azaldu du eguraldi txarra egiten duenean "familian

egoteko txoko bat" martxan jarri dela, eta apirilaren erdialdera arte egongo dela irekita. Horrekin batera, gaineratu du hara joan ahal izateko bi baldintza jarri direla: batetik, neska-mutikoei zortzi urte azpikoak izatea; eta bestetik, familiak parte hartzeko izena ematea.

## Izen-emate orriak

Horretarako izena-emate orriak aterpean bertan egongo dira eskuragai, zapatu eta domeketan.

Horren harira, nabarmendu behar da Udalak lokala jarri badu ere, gurasoak izango direla lokal horren funtzionamenduz arduraturako direnak.

2011ko azaroan egindako parte-hartze prozesuan atera zen haurrak gurasoekin egoteko aterpe baten beharra, bereziki, neguan eta asteburuan. Lanean hilabeteak eman ostean, joan den urtarrilaren 23an, proiektuaren berri emateko batzarra egin zuten.



## OHARRAK

### AMUSKAREN IKASTAROAK

Gaur, egubakoitza, arte eman daiteke izena Amuskak otsailetik ekainera arte antolatutako ohiko ikastaroetan; hain justu, ehoziri-lan eta bainika, patchwork, jostintza eta kakorratz-lan eta eskulan ikastaroak eta antzerki tailerra gertatu dituzte. Interesatek Euskadiko Kutzako 3035 0044 85 0441021091 kontu korrontean sartu behar dute dirua: bazkideek 35 ordaindu beharko dituzte eta

gainerakoek, berriz, 50 euro. Ikastaroen eskolak astelehenean hasiko dira.

### KIROL HITZORDUAK

Hiru norgehiagoka jokatu dira asteon etxean; bihar izango dira guztiak. 10:30ean, saskibaloian, gazteak Txirrita Bera Beraren kontra lehiatuko dira; 16:00etan, areto futbolero Euskal Ligan, etxekoek Elorrioko Buskantza taldekoak hartuko dituzte; eta

18:00etan, saskibaloian, seniorren partidua izango da. Eskoriatza Añorgaren kontra jokatu du.

### AROMATERAPIA IKASTAROA

*Aromaterapia, sendabelar usaintsuak, gaur, atzo eta bihar* lelopean, ikastaro trinkoa antolatu dute otsailaren 23rako. Izena kultura etxean, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo [aintzane@eskoriatza.net](mailto:aintzane@eskoriatza.net) postan eman daiteke. Ikastaroak 12 euro balio du.



# Lider sendo izaten segitzen du Antzuolak

Beasainen aurka neurtuko dituzte indarrak bihar, zapatua; goierritarrak ez daude sasoi onean

M.A. | ANTZUOLA

40 punturekin eta beste astebetetz jarraian, Antzuola futbol taldeak lider sendo izaten jarraitzen du sailkapen nagusian.

Iaz abiatutako esperantzari eta ilusioari eutsi diote, bai taldekideek eta baita herritarrek ere. Iazko gaztetasunari esperientzia ere gehitu zaiola esan deza-kegu.

Sasoian dago taldea. Izan ere, denboraldi osoan zehar erakutsi duten kemenak eta joko onak fruituak eman ditu. Zapatuan jokatuko dute 20. jardunaldia, Beasaingo Igartza zelaian, 15:30ean hasita. 40 puntu dituzte antzuolarrek eta lehenak dira sailkapen orokorrean. Itxura batean, gainera, aurkari erraza dute, baina errespetu handiz zelairatuko direla azaldu digute jokalariek. Beasain jaitsiera postuan dago eta 17 puntu ditu.



Antzuola, Ordiziaren aurka. | GOIENA

## Ilusioa herrian

Hala, datorren denboraldian bost talde izan ditzake Debagoienak futboleko ohorezko erregional mailan. Hainbat baldintza bete beharko lirateke horretarako: gaur egun maila horretan dauden

gure taldeetako bat bera ere ez jaitea eta ez igotzea eta Antzuolak erregional mailako liga irabaztea. Gauzak ondo dituzte antzuolarrek, eta ilusioz daude. Bada, zaleei merezi duten saria eman nahi diete.

Eztalan Anaitasunari irabazita, zazpi puntura edo gehiagora dauden aurkarien multzoan geratu dira azkoitiarrak. Berbertan Getariakok baino ez du jarraitzen, bi puntura. Erregional preferente mailako lehenak lortzen du igoera zuzenean, eta hori lortzeko ilusioa dute herrian, taldeko kideek eta zaleek. Gertatuko balitz, lehenengo aldiz jokatuko luke Antzuolak bailarako gainerako taldeekin -Aloña, Mondra, UDA eta Bergara-. Edozelan ere, oraindik 11 partidu falta dira liga amaitzeko, eta orain atzean daudenak ere hurbil daitezke.

## Aratuste-martitzen koloretsua igaro dute herriko nagusiek

M.A. | ANTZUOLA

Aratuste-martitena zuriz mozturrotuta etorri zaigu; hala ere, mozturro original eta koloretsuek estali zuten zuri kolorea gure bailaran. Antzuolako erretiratu-entzuten elkarteak, nagusiek ere umore fina erakutsi zuten. Txan-txa eta barre artean, 94 lagun batu ziren elkarteak. Solomo eta piper gorri ogitartekoa eta txokolate beroa dastatzeko aukera izan zuten. Urteroko hitzor-

dua dute Antzuolako nagusiek, eta Genaro Laskurain elkarte-ko lehendakariak esan zigun urtetik urtera geroz eta gehiago animatzen direla.

### Torresoroa, gainezka

Aratuste-barikua, ordea, herriko txikitxoendako eguna da. Arratsaldean Xalto pailazoan emanaldiaz gozatu zuten. Kolorez eta alaitasunez bete zen Torresoroa.



Antzuolako nagusiak festa giroan. | MONIKA BELASTEGI



Txikitxoenek Torresoroan gozatu zuten pailazoan emanaldiaz. | I.SORIANO



**IÑAKI AGIRRE**  
ANTZUOLAKO KAPITAINA

"Aldageletan denok pozik eta beste urte batzuetan baino gogo handiagoz. Aurtengoa da gure urtea, azken urteotan hortxe-hortxe ibili gara-eta igo nahian".



**ISIDRO ZABALETA**  
ANTZUOLA

"Baserritik ikusi eta entzuten ditut entrenatzen, ia iluntzero, Eztalan. Oihuk eta esfortzuak nabari dira entrenamenduetan. Esperantza dugu".



**JESUS MARI ODRIOZOLA**  
ANTZUOLA

"Ondo zaintzen dute euren burua: parranda gutxi eta lan asko. Entrenamendu asko egiten dituzte; nik baserritik argiak gauera arte ikusten ditut. Aurrera, mutilak!".



**LUIS MARI JAUREGI**  
ANTZUOLA

"Martxa honetan segituta, aurtengoa egingo da Antzuolako taldea; ez dago beste erremediorik. Merezki ere merezi dute, lan handia egiten ari dira-eta".

## Kirolez goitik behera bustiko da Antzuola bihar eta domekan

Fitness festa egingo dute Udal Gimnasioan bihar

M.A. | ANTZUOLA

Domekan *Antzuolako 8 miliak* mendiko lasterketa izango dela-eta, Udal Gimnasioan kirol asteburua borobiltzeko fitness festa antolatu dute biharko. "Jai hori aprobetxatu nahi dugu herritarrei ezagutarazteko urteko abonuan %25eko deskontua eta Debagoieneko Kirol Txartela duten antzuolarrentzako eskaintza berezia dugula", azaldu digu gimnasioko Xabier Azkaratek. Hori dela eta, ate irekiak antolatu dituzte. "Fitness gelan eskaintzen ditugun programa berriak, *indoor walking* -eko saio birtualak, zirkuituak

ezagutarazteko, eta, bide batez, spinning eta pump-eko *master class*-ak antolatu ditugu. Gerturatu nahi duen guztia gonbidatuta dago".

### '8 miliak' lasterketa: oharrak

Mendi lasterketari dagokionez, zenbait ohar kontuan hartu behar dira: herriko hainbat enpresaren aparkalekuan parkingak egokituko dituzte. Gimnasioan, pilotalekuan eta eskolan dutxak egongo dira. Eta gaikako bilketa errespetatzeko eskatu dute. Markel Lopezendako tapoiak batuko dituzte domekan.

## Martxoaren 8ko kartel lehiaketa abian da

M.A. | ANTZUOLA

Bideberri Mankomunitateak, urtero legez, Martxoaren 8ko kartel lehiaketa abian jarri du. Lanak udaletxean entregatu behar dira: azken eguna martxoaren 1a. Lehenak 300 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak, 150 euro. Eta irabazlea aukeratzeko bozketan parte hartzen dutenen artean 50 euro zozketatuko dira. Aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa egingo dute Martxoaren 8an bertan.

Informazio guztia eta oinarriak udal webgunean dituzue: [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com).

## Arrolaren urteko batzarra eta 'Pura vida' dokumentala

M.A. | ANTZUOLA

Hilaren 22an, Arrolak urteko batzarra egingo du; 18:30ean da lehen deialdia, Olaranen. Ondoren, *Pura vida* dokumentala euskaraz ikusteko aukera egongo da Torresoroan, 22:00etan.

Zortzi eskalatzaila adituk Otxoa de Oltza erreskatatzeko lan itzelak egin zituzten. Euren bizitza arriskuan jarri zuten mendizalea salbatzeko. Bada, hango benetako gertakarietatik abiatuta, Pablo Uraburuk eta Migueltxo Molinak sortutako istorioa kontatzen da dokumentalean.

## OHARRAK

### SORTUREN ERATZEA

Gaur, Sorturen barne hauteskundeetako bozketa egingo dute Olaranen, 19:30ean.

### IKASTAROA GAZTETXEAN

Fandango eta arin-arin ikastaroa otsailaren 16an, gaztetxean, 11:00etan.

### ELIZKIZUNA

Orain dela gutxi hil den Iñaki Amutxategi apaizaren alde hileta elizkizuna izango da herriko parrokiaren domekan, 11:00etan.

### PILOTA

Udaberriko txapelketa gaur; bihar, aldiz, eskolarteko pilotaren txapelketa.

## Txirritola elkarteak ipuin lehiaketa aurkeztu du

J.B. | ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak ireki du urteroko ipuin lehiaketan izena emateko epea. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu ekimenak, batez ere gaztetxoaren artean. Lehiaketan Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte, eta ipuinek euskaraz eta argitaratu gabeak izan behar dute. Gaia libre izango da; honakoa da baloratuko dutena: euskaraz zuzen idaztea –batuan zein euskalkian– eta originaltasuna.

Ezin da ahaztu lehiaketa horrek arrakasta handia duela San Martin eskolako ikasleen artean. Hala, antolatzaileek ipuinen luzera zehaztu dute ikasleendako: Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek luzera libre izango dute eta bigarren zein hirugarren zikloko ipuinek, berriz, bi orriko luzera izan behar dute gutxienez. Gainerako parte hartzaileek ipuinek hiru orri izan behar dute.

### Martxoaren 15a baino lehen

Lanak martxoaren 15a baino lehen utzi behar dira Udal Liburutegian. Ikasleendako sariak liburuekin trukatzeko izango dira eta helduen ipuin onenak, berriz, 100 euroko saria eta liburu bat jasoko ditu. Sari banaketa apirilaren 26an egingo da kultur etxean (18:00). Ipuin irabazleekin liburuxka bat egingo dute.

# Bi milioi euro pasa Aramaio kudeatzeko

## Muruko saneamendu lanak, 2013ko inbertsio nagusi

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Atzerapenarekin, baina onartu da 2013ko aurrekontua. Urtarrilaren 30ean egin behar zen osokoa, baina alkatearen arazo pertsonal batzuk zirela-eta, atzo egin zuten aurrekontua onartzeko ohiko osoko bilkura. Udalbatzak onartu egin zuen Udal Gobernuaren proposamena.

Udalak Aramaio kudeatzeko iaz baino diru gehiago izango du, %20 gehiago. Igoera hori Diputazioaren ekarpenaren gorakada –FOFEL delakoa– eta basoetatik jasoko den diru kopurua hazi egin delako dator, bereziki. Hala, Udalak bi milioi euro pasa izango ditu Aramaio kudeatzeko –2.191.528,12 euro, hain justu. Iaz 1.820.180,94 euro izan ziren.

### Muruko saneamendu lanak

Inbertsioen artean Muru auzoko saneamendu lanak dira Hirigintza Saileko aipagarrienak. 192.200 euro pasatxo bideratuko ditu Udalak Muru auzorako bidea konpondu eta auzoan bertan beharrezkoak diren saneamendu lanak egiteko. Auzotarrek 14 urte daramate itxaroten auzorako bidea noiz egokituko; diotenez, arazoa oso larria da, batez ere larrialdi kasuetan: anbulantziek ez dute auzoraino heltzeko aukerarik. Hirigintza arloan aipatzea



Murua hainbat lan egingo dira. | J.B.

DATUA

# %20

GEHIAGO HERRIA KUDEATZEKO

Udalak iaz baino %20 gehiago izango du aurten herria kudeatzeko; krisi garaiotan salbuespena den gorakada nabarmena.

merezi duten beste inbertsio batzuk dira kiroldegiko berritze lanak (36.000 euro), Arabako Aldundiak proposatutako obra txikiak (35.000 euro) eta auzolanak (31.000 euro).

### 'Parot doktrina' salatua

Aurrekontua onartzeaz gain, garrantzitsuak diren beste hainbat gai landu zituzten atzo. Aramaio Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) testu bateratua onartu zuten, funtsezko aldaketa barik.

Bestalde, bi mozio ere onartu zituzten, biak Bilduk aurkeztutakoak. Lehena 197/2006 doktrina edo *Parot doktrina* salatzeke izan zen. Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak aho batez Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren doktrina hori ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, doktrina bertan behera uzteko eskatzen du Aramaio Udalak: "Euskal Herrian bizi digun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoen aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen dugu". Beste mozioan Arabako kontzejuen defentsa izan zuten hizpide; kontzejuei eskumenik ez kentzeko eta FOFEL delakoa berritzeke eskatu zuten atzoko osokoa.

## Martxoaren 8ko kartel lehiaketan parte hartzeko azken egunak

Martxoaren 8ko kartel lehiaketan parte hartu gura dutenek otsailaren 22ra arte izango dute horretarako aukera. 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira lanak, udaletxean. Bi kartel onenak sarituko dituzte: lehenak 200 euro eta bigarrenak 100 euro. Kartel guztiakin erakusketa egingo da; oinarriak tabernetan eta udaletxean daude ikusgai.

## Lilaton lasterketan parte hartu ahal izateko azken egunak

Emakumeei zuzendutako Donostiako Lilaton lasterketara joateko aukera dago oraindik. Izen-emate epea hilaren 20an amaituko da; kontaktuak dira Larraitx Arriolabengoa (605 748 087) eta Igone Eriz (655 713 389). Hamar euro ordaindu behar da; korrika egin, bazkaldu eta itzuli egingo dira. Lasterketak bost kilometro ditu.

## Azterkosta izeneko erakusketa Sastiñan domekara arte

Tokiko Agenda 21 taldeak, Eusko Jaurlaritzak eta Aramaio Udalak antolatuta, Azterkosta deritzon erakusketa ikusteko azken aukera egongo da aste bukaeran. Zapatuan eta domekan egongo da zabalik Sastiñan, 10:00etatik 14:00etara. Gure kostaldeari lotutako ekosistemak lantzen ditu erakusketak.

## Alex Mendikutereren argazki proiektzia aste bukaeran

J.B. | ARAMAIO

Argazki erakusketa interesgarria irekiko du Alex Mendikute argazkilariak gaur hasi eta domekara arte. Sastiñan erakutsiko ditu 2010ean eta 2011n Aramaion ateratako argazkiak, guztiak zuri-beltzean. Aurretik beste hiru edo

lau erakusketa antolatu izan ditu Mendikutek, baina oraingoan, muntaia bat prestatu duela adierazi digu argazkilari aramaioarrak: "Lehen aldiz prestatu dut halako muntaia bat. Kartoa erabiliz erakusketa txukunagoa jartzeko ez dago dirurik, eta merkeena da

halako ikus-entzunezko bat prestatzea. Sastiñan proiektagailua dagoela aprobeztatu dugu, eta horrela dirua aurreztu". Paraje ederrez gain, herritarren argazkiak ere ikusi ahal dira.

### Bederatzi orduz zabalik

Erakusketa gaur irekiko da, 19:00etatik 20:00etara. Bihar ere bisitatzeko aukera egongo da, ordu berean. Domekan, berriz, arratsalde osoan egongo da zabalik, 13:00etatik 20:00etara.



Haur bat, Sastiñako kontzertu baten aurreko soinu probak ikusten. | ALEX MENDIKUTE

## Aratusteetan saia agertu zen herriko plazan

Aratuste-zapatua aukeratu zuen sai batek udaletxe ondoko horma batean agertzeko. Ertzaintzari abisua eman ostean, Martioda Hegazti zentroko arduradunek eraman zuten; gaixorik ei zegoen. Ikusmin handia piztu zuen haur eta helduen artean.



AIZPEA AJURIAGERRA

## ARETO FUTBOLA

### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Colegio San Prudencio Bat	34	13
2 C.D. Lagran	34	13
3 Izar Gorri	30	13
4 Aramaio	24	13
5 Alavesa Maquinaria	16	13
6 Bar Uriarte	16	13
7 Autoescuela Gasteiz	14	13
8 Arizmendi	13	13
9 Bar La Paloma	12	13
10 Bar Copo	12	13
11 C.D. River	11	13
12 Orlegi	6	13

### PARTIDUAK

HILAK 16, ZAPATUA  
16:00 Aramaio - Colegio San Prudencio Bat

### Liderraren bisita bihar

Partidu zaila jokatu behar du bihar Aramaio taldeak. Partidu bakarra galdu duen liderra dator; ea etxean jokatzea aprobeztatzen duten liderra mendean hartzeko.

## ELGETA



Hainbat eraikin herriko plazan. | LARRAITZ ZEBERIO

## Eraikinen ikuskaritza batera eskatzeko deia

Eskaera bateratua egitea proposatu du Udalak; interesatuek martxoaren 1era arteko epea dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Abenduaren 15ean indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek ezartzen du 50 urtetik gorako eraikinek Eraikinen Azterketa Teknikoa —espainolez ITE— pasa beharko dutela, eta arauak epe zehatzak ipintzen ditu betebeharrak horrekin konpliztuko. Aurten bertan, 1901ekoak baino zaharragoak diren etxebizitzek egin beharko dute azterketa hori; datorren urtean 1940-ara artekoak; 2015ean, 1965era artekoak; eta ordukoak baino berriagoak, dagokien urtean.

Elgetako Udalak gogoratu du eraikin-jabeen ardura dela azterketa teknikoak pasatzea. Eraikina noiz eraikia izan den jakiteko nork bere etxebizitzaren eskrituratan begiratu beharko du. Horrela jakingo du eraikinak azterketa egin behar duen ala ez,

eta noiz pasa behar duen. Bando bidez alkateak esan du: "Eraikinen jabearen ardura da azterketa pasatzea, eta Udalaren ardura azterketa horren inguruko plangintza egitea".

### Eskaera bateratua

Udalak proposatu du bere egunean teilatutako garbiketarekin egin zen moduan kasu honetan ere eskaera bateratua egitea, "kostuak ahalik eta gutxien izateko", adierazi dute. Helburu horrekin, horrelako azterketa teknikoak egiten dituzten enpresei aurrekontu bateratua eskatu litzaieke. Aurrekontu bateratu horretan parte hartu gura duten herritarrei dei egin diete eskaerak otsaila amaitu aurretik udaletxean egiteko. Eskaerak aurkezteko epemuga zehatza da martxoaren 1a baino lehen.

## Kantsatzeke mendi taldeak proposamen politikak 2013rako

L.Z. | ELGETA

2012ko urtarrilaren 24an egin zuten mendi taldearen aurkezpen batzarra, eta ordutik 60 lagunek egin dute bazkidetza. Pozik daude iaz antolatutako irteeretan parte hartu duen jende kopuruarekin —batez ere azken irteeretan—, eta nabarmendu dute belaunaldi eta joera ezberdinetako herritarrak batera ibili izana.

Helburu nagusia mendizaletasuna bultzatzea da. Hala, Kantsatzekek antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko ez da beharrezkoa bazkide izatea. "Kostua ez da handia izaten, 5-10 euroren bueltan ibiltzen gara, eta bidaiak gastuak ordaintzeko da. Zerbait sobratzen bada, tragoren bat hartzen dugu, eta ez bada sobratzen... ere bai", azaldu dute. "Kantsatzekek ekarri duen aldaketa handiena da elkarte batetik herrira egin dugula salto, eta elkarte ofizial bat garela, ez lagun talde bat besterik gabe".

### Postontzia Azkonabietan

Orain arte moduan jarraitzea, eta mendi taldearekiko atxikimendua sendotzea izango dira 2013ko erronkak. Hala, irteerak antolatzen jarraituko dute —hurrengo hilaren 23an Oñatira—, eta berritasunen artean Facebook kontua, eta umeendako ekintzak aipatu dituzte, beste batzuen artean.

Martxoaren 23an, esaterako, postontzi berria ipiniko dute Azkonabietan Soroluzeko eta Eibarko taldeekin elkarlanean. "Umeei zuzendutako ekintza izango da, eta 150-200 ume inguru izatea espero dugu. Herriko beste elkarte batzuekin —gaztetxea eta guraso elkarte— harremanetan gaude hori guztia ondo antolatzeko". Bazkari-afariak, egun batzuetako irteera... gauza asko egin daitezkeela uste dute Kantsatzekek. "Taldea irekia izan nahi dugu, eta norbait prest baldin badago zerbait antolatzeko, laguntzen saiatuko gara", adierazi dute.



## Txokolate beroa martitzenean

Inauteri-martitzenean txokolate-jana egin zuten erretiratuek Ozkarbi elkartearen. Elgetan elur giroa izanik, ondo sartu zen txokolate beroa. Ospakizuna, ordea, ez zen ohiko festa giroan egin. Erretiratuek gogoan izan zuten elkarte kide Ramona Elkororen heriotza. Hurrengo hitzordua podologia zerbitzua izango da, otsailaren 21ean. Txanda hartzeko, 943 76 80 77 telefono zenbakira deitu behar da.

## Sortu alderdia eratzeko batzarra 19:00etan liburutegian

Sortu alderdi politiko berria eratzeko prozesuaren barruan herri batzarra deitu dute gaurko, otsailak 15, barikua. Zuzendaritza hautatzeko prozesua abian da, eta hori izango da gai nagusia Elgetako batzarrean ere. 19:00etan hasita Udal Liburutegian egingo den batzarrean parte hartzera gonbidatu dituzte interesatu guztiak.

## Pedro Llamas eta Dani Lopez gaur eta bihar kafe antzokian

Vaya por Dios ikuskizuna egingo dute gaur eta bihar, 22:30ean, Pedro Llamas eta Dani Lopez umoristek. Aurre-ratu dute ez dutela monologo saio arrunta egingo, baizik eta umorezko ikuskizuna musika eta guztiarekin. "Hausnarketa egitera" gonbidatuko dituzte ikusleak. Sarreraren prezioa da 12 euro txarteldegian eta 10 euro bazkideendako edo aurretik erosita.

## Martxoaren 8ko kartel lehiaketa deitu du aurten ere Bideberrik

Publikoak erabakiko du aurten kartel onena zein den. Lanak aurkezteko epea martxoaren 1era arte dago zabalik, eta Elgetako, Antzuolako eta Leintz Gatzagako herritarrek har dezakete parte. Sari nagusia 300 euro da, eta aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa egingo dute aipatutako herrietan.

## Auzo-konposta egin gura duten herritarrek izen-ematea zabalik

Udalak egindako deiaren ondoren, zazpi lagunek egin dute auzo-konposta egiteko eskaera. Konpost-guneak non kokatu erabaki aurretik, Udalak interesaturik dagoen eta non bizi diren jakin gura du. Hala, beste inork izena eman nahi izanez gero, udaletxetik lehenbailehen pasatzeko eskatu dute.

## FUTBITO TXAPELKETA

### Haurren partiduak

Gaur, barikua, amaitzen da izena emateko epea. Bilera martitzenean da, 19:00etan.

### AZKEN EMATZAK (NAGUSIAK)

Etxeon - Bandoleira	4-13
Intxorta's Crew - Tzibaz United	8-15
Txapela - Naste Borraste	13-0
Jaitxo - La Kokotxa	10-2

### BIHAR, ZAPATUA

16:30 Bajaan - Etxeon. *Gaztiak*

17:30 Astuan Villa - Intxorta's Crew.

*La Kokotxa*

### ETZI, DOMEKA

10:30 Tzibaz United - La Kokotxa.

*Jaitxo*

11:30 Txapela - Jaitxo. *Tzibaz United*

## LEINTZ GATZAGA

## Domekan aurkeztuko dute Dorletako Ama txirrindulari taldea

ARANTZAZU EZKIBEL | LEINTZ GATZAGA Benjamin, alebin, infantil, kade-te, gazte eta elite mailletako 70 bat txirrindulari elkartzeko dira domekan Dorletan. 11:00etan meza labur bat izango dute santutegian, eta baita mailloten bedeinkapena ere. Ondoren, txirrindulariak Gatzagara joango dira eta udaletxean taldeen aurkezpena egingo

dute. Eskolako talde guztiak eta elite mailakoa egongo dira aurkezpenean.

### 16 txirrindulari lehiari

Elite mailako taldean 16 txirrindulari lehiatuko dira aurten. Gipuzkoako txirrindulariez gain, Araba, Katalunia, Errioxa eta Nafarroako txirrindulariak egon-

go dira Kanpanzar Harrobia Baintetxea taldean, Ander Gallastegi zuzendariaren aginduetara. Elite mailakoak otsailaren 24an hasiko dute denboraldia, Soroluzen. Espainiako Kopan ere parte hartuko dute, eta helburua txirrindulariei aukera bat ematea izango dela azaldu digute. Izan ere, eurekin batera talde profesionalek parte hartuko dute —Dorleta Ama talde amateurra da—. Kirol elkartetik herritarrak animatu nahi dituzte elkartera hurbildu eta laguntza emateko.

## Martxoaren 1a da kartelak aurkezteko epemuga

Bidebarri mankomunitateak Martxoaren 8ko III. kartel lehiaketa jarri du martxan. Antzuola, Elgeta edo Leintz Gatzagan jaio edo bizi direnek parte har dezakete. Kartelak 50x70 neurrikoa izan beharko du, eta erabil daitezkeen teknika libre izango da. Bada, lanak aurkezteko epemuga martxoaren 1a da.

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi  
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

## MENDI LASTERKETAK

# Irimoko tontor zuriak domekan hartuko ditu atletak

Antzuolako 8 Miliak proba arrakastatsua izateko osagai guztiak ditu: atleta asko, eta eguraldia lagun

**XABIER URTZELAI** | ANTZUOLA  
Domekan egingo du Antxintxika Triatloi Taldeak Antzuolako 8 Miliak proba lehenengoz, eta iragarpenen arabera, eguraldiak tregoa emango du. Eta ez da gutxi, aste barruko eguraldi makurraz jarraituz gero dezentente gogortuko zelako proba: "Ez dugu espero jendea atzera botatzerik, domekarako ona eman

dutelako. Baina hori bai, lokatz handia egongo da ibilbidean, eta parte-hartzaileei gomendatzen diegu zola oneko zapatilak eramatea". Lokatza bakarrik ez, baliteke domekan Irimoko tontorrak zurituta eustea.

**Bastoeikin, hobeto**  
Ibilbidean zehar hobeto moldatzeko antolatzaileek mendiko

bastoiak erabiltzeko gomendioa egin dute, hori bai, lasterketa bastoiekin hasten duenak halaxe amaitu beharko du, ez da egongo bidean lagun bati emateko aukerarik -araudia moldatu dute horretarako.

Hala, dagoeneko ez dago lasterketan aurrez emateko aukerarik, baina antolatzaileek adierazi dute domekarako dortsal



Atleta korrika. | ANDREW RUNNING PLANET

## ESANAK

**"Atletek zola oneko zapatilak ekar ditzatela lasterketara"**

ARITZ SAIDI | ANTXXINTXIKA

gutxi batzuk gordeko dituztela. Hala, 300 lagun abiatuko dira domeka goizean (10:30) Irimo alderuntz.

**Parkingak egokituko dituzte**  
Domekan, automobilerik buruhaus-terik ez sortzeko antolatzaileek herrian dauden hainbat parkingetara bideratuko dute jendea. Hala, Meatz-Erreka, Elay Balzers eta Goizper enpresetako aparkalekuak erabilgarri egongo dira: "Horrekin batera, atletek dutxatzeko aukera izango dute eskolako patioan, pilotalekuan eta udal gimnasioan, eta hankak garbitzeko gunea ere egongo da". Gogoan izan korrikalariek ez dutela gehieneko denborarik izango lasterketa egiteko.

## FITXA

## ANTZUOLAKO 8 MILIAK

**Ordua:** 10:30.

**Parte-hartzaileak:** 300.

**Distantzia:** 13 kilometro.

**Desnibel positiboa:** 830 metro.



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO  
945 44 53 85 / 685 72 15 93  
[iturriasagardotegia.blogspot.com](http://iturriasagardotegia.blogspot.com)

## Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



**EGIN TXOTX!**  
sagardotegietan



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia  
HERNANI  
943 55 58 46 / 616 28 78 67

## Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- "Tolare" sagardotegia



## Rezola

Santio Zeharra ASTIGARRAGA  
943 55 27 20 - 606 78 51 30  
[rezola@rezola.info](mailto:rezola@rezola.info) / [www.rezolasagardotegia.com](http://www.rezolasagardotegia.com)

## Eskaintza

- Astigarraga erdigunean dago.
- Parking pribatua.
- Zutik edo eserita.
- 250 pertsonarentzako lekua.
- "Tolare" sagardotegia
- Sagardotegiko menua.



## Unzueta

Zabola z/g / ARAMAIO  
945 44 50 95  
[www.unzuetasagardotegia.com](http://www.unzuetasagardotegia.com)

## Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 31 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA  
(Andoain eta Billabona artean)  
943 69 07 74 / [www.rzabala.com](http://www.rzabala.com)

## Eskaintza

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan ere zabalik.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- "Tolare" sagardotegia

## ATLETISMOA

# Sabadellera "gerra" ematera joango dira atleta arrasatearrak

Maialen Axpe, Malen Ruiz de Azua eta Iñigo Uribarren sasoi onean daude

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Urteko helburu gogorak aurrerago dituzte atleta arrasatearrek, uda sasoiarako -aire zabaleko Europako Txapelketa-, baina hitzordu horietan parte hartzeko sailkapen faseak lehenago dira, eta Arrasatekoek dagoeneko egin dituzte etxeko lanak, nahiz eta oraindik otsailean gauden.

Hala, duela 15 egun Malen Ruiz de Azua izan bazen albiste, joan den asteburuan Maialen Axpe izan zen Anoetan egindako Espainiako txapelketan, promes mailan, urrea lortu zuena. Eta ez edonola, hasteko, Raquel Cosme eta Marina Ribas gainditu zituelako, eta gainera, bere marka pertsonala gainditu eta Europako txapelketarako gutxienezko marka lortu zuelako (4,01).

Jonathan Perez entrenatzaileak azpimarratu zuen ez zutela sorpresarik hartu (atletismoan sorpresa gutxi egoten da, eta bai lan handia marken atzean), Axpe ondo zegoelako txapelketari begira, baina egun bateko lehiaren edozer gerta zitekeela.

## Sabadellera, dena ematera

Asteburuan, berriz, Sabadellen Espainiako txapelketa absolutua



Axpe eta Perez, joan den astean Anoetan. | JONATHAN PEREZ

## DATUA

# 4,01

METRO

Marka horri esker, Maialen Axpe uztailean Finlandiako Tenpene hirian egingo duten Europako txapelketan izango da.

jokatuko dute, eta gazteak izan arren gutxienezko marken jabe direnez, bertan izango dira Malen Ruiz de Azua (3,95) eta Maialen Axpe (4,01), entrenatzaileak dioen moduan "gerra" emateko asmoz. Horrek esan nahi du podiumera igotzeko borrokatuko direla.

Era berean, azpimarratzekoa da, baita ere, Iñigo Uribarrenen salto hirukoitzean egindako 15,07 metroko marka, Espainiako txapelketan zilarra.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

**EMAKUMEZKOEN BI. MAILA**  
Athletic-Mondra  
Domeka. 15:30. Lezama.

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEZK.**  
Deportivo Alaves-Arizmendi  
Domeka. 16:00. Gasteiz.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**  
Aretxabaleta-Antiguoko  
Zapatua. 15:45. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Aretxabaleta-Hernani  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
Trintxerpe-Bergara  
Zapatua. 16:30. Pasai Antxo.

**OIARTZUN-ALONIA**  
Zapatua. 16:15. Oiartzun  
Mondra-Zarautz  
Domeka. 16:30. Mojategi.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Beasain-Antzuola  
Zapatua. 15:30. Iqartza.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**  
Aretxabaleta UDA B-Añorga

Zapatua. 18:00. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Eskoriatza-Elorrioko  
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.

### ESKUBALOAIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Soralue BKE-Corazonistas  
Zapatua. 18:00. Labegarieta.  
Gure Auzune-Ford Mugarri A.  
Zapatua. 18:30. Gasteiz.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**  
Aloña Mendi (atsedena).

### SASKIBALOAIA

**EBA MAILA**  
Aquimisa Lab.-Natra Oñati  
Zapatua. 18:30. Salamanca.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
Asesoria SAF-MU  
Zapatua. 17:30. Gasteiz.

### PILOTA

### EGUBAKOITZA:

19:00etan hasita partiduak Eskoriatzan, Bergaran, Aretxabaletan eta Antzuolan. Arrasaten 20:45ean hasita.

### DOMEKA:

10:45ean hasita Uarkapen.

### IGERIKETA

**KZL-KO 3. JARDUNALDIA**  
Zapatua. 16:00. Bergara.

### PIRAGUISMOA

**EUSKADIKO KOPA**  
Zapatua. 12:00. Bergara.

### MENDI LASTERKETA

**ANTZUOLAKO 8 MILIAK**  
Domeka. 10:30. Antzuola.

### TXIRRINDULARITZA

**DORLETAKO AMAREN AURKEZPENA**  
Domeka. 11:00etan meza

Dorletan, ondoren aurkezpena.



Mondrak -argazkian- eta UDak jokatuko dute etxean. | 15

## MOTORRA

## Xabi Abasolo Espainiako txapeldun 'cross country'-an

X.U. | ARRASATE

Xabi Abasolo pilotu arrasatearrak irabazi du Espainiako *cross country* txapelketa. Krisiak gogor astindu du motor mundua, baina batez ere babesle eta lasterketa kopuruan, eta ez pilotuen mailan. Hala, txapelketa barruan egin dituzten hiru lasterketetan Bedoñako pilotua nagusitu da.

Lasterketa horiek izan dira Ourense, Malpartidan (Caceres) eta joan den astean Guadalajaran jokatu zutena. Hala, azken hitzordura Zatika taldeko pilotua lehenengo postuan iritsi zen sailkapenean, eta postu hori defendatzeko asmoz lasaiago ibili beharrean, Guadalajaran ere jaun eta jabe izan zen, lehenengo sailkatuz. Hala, korritutako hiru lasterketak irabazita jaso du Abasolok onenaren garaikurra.

## Enduroan jarraituko du urtea

*Cross country*-ko txapelketa amaituta, Abasolok motor gainean jarraituko du, baina enduroan. Martxoan hasiko dute Espainiako txapelketa, Galizian (Santiago), eta Abasolok Zaititako lagunekin batera hartuko du esku.

## MENDI LASTERKETAK

## Oihana Kortazarrek irabazi du hiru egunetan korritu duten Cruce de los Andes lasterketa

Hiru eguneko etapen ostean, domekan amaitu zuten Cruce de los Andes (Txile eta Argentina artean) lasterketa, eta Oihana Kortazarrek besoak altxa zituen Andeatako helmugan, podiumean Emma Roca eta Anna Frost atzean utzita. Aurten Elgetakoaren asmoetako bat dira Skyrunner World Series barruko Sky Race lasterketak; dagoeneko lortu du denboraldiko lehen garaipena.

## BORROKA LIBREA

## Maider Undak dio borroka libreak kirol olinpiar izateari uzten badio, desagertu egingo dela

Asteon jakin dugu 2016ko Joko Olinpiarren ostean borroka libreko Jokoetatik kentzeko asmoa dutela, eta oletarrak penaz eta sorpresaz hartu du albistea, garbi duelako hori gertatzen bada borroka libre desagertu egingo dela. Londresen brontzea irabazi ostean kirol ibilbidea Rioko jokoetaraino lutzatzeko asmoa erakutsi zuen Undak, eta albiste honek indartu egin du asmo hori.

## PIRAGUISMOA

## Euskadiko Kopa barruko lehen hitzordua Bergaran egingo dute zapatu arratsaldean

Bergarako Beti-Busti taldeari tokatzen zaio asteburuan Euskadiko Piraguismo Kopako lehen proba antolatzea, eta hasierako asmoak Pau-ra (Frantzia) joatea bazen ere, ikusita asteon zenbat euri egin duen, antolatzaileek erabaki dute Deban nahikoa ur dagoela txapelketa Bergaran egiteko. Zapatuan, 12:00etan hasiko dira Labegarietan, eta piraguista olinpiarrek espero dituzte.

## IGERIKETA

## Kirol Zehaztasun Liga barruan hirugarren jardunaldia jokatuko dute Bergaran zapatuan

Bergarako Agorrosin kirolgunean batuko dira bihar igerilari gipuzkoar asko, bertan egingo dute eta Kirol Zehaztasun Liga barruko hirugarren jardunaldia. Arratsaldeko lauretan hasiko dituzte igeriketa txapelketak, eta Agorrosingo ohiko erabiltzaileek kontuan izan beharko dute igerilekua itxita egongo dela euredako, arratsaldeaz. Goizean normal erabili ahal izango dute.

**Gobike**  
• Bizikleten salmenta eta konponketa  
• Arropa • Osagarriak



Jarrai gaitzazu Facebooken  
<http://www.facebook.com/GOBIKE.ELGOIBAR>

## BANATZAILE OFIZIALAK

**BERRIA**  
High Performance Bicycle

BERRIarekin zure bizikleta pertsonalizatzeko aukera daukazu.



Santa Ana 12, behea, ez. • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa  
Tel.: 943 74 00 25 - 617 627 152 • gobikeelgoibar@gmail.com

## Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



# Eraman ezazu beti txartela aldean!



### GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO OTSAILEAN

## ADI EGON!

GOIENA Klubeko 4.000 bazkideon artean otsailean honakoa zozketatuko dugu.



### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.



### 2 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).

Parte hartzeko

**SARIEN IZENAK**  
Aroa  
Espaloia  
Arrikruz  
Peter Pan

**SMS:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira  
**Telefonoz:** 943 25 05 05  
**E-postaz:** klub@goiena.com  
**WhatsApp bidez:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia]688 69 00 08 zenbakira.  
**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotzen sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.com

**DESKONTUAK:** [www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)



### Nafarroako (Lizarra) AROA upategian

- Bisita gidatua eta bazkaria 4 pertsonentzat (2 sari)
- 12 ardo botila ekologiko sorta.



- **Arrikruz** Kobetarako 10 sarrera.

- **Espaloia Kafe Antzokia:**

**Dani Mateoren** monologo saiorako 4 sarrera (Otsailak 23 eta 24an)

- **Peter Pan** musikalaren 15 DVD.



### IRABAZLEAK

Espaloia Kafe Antzokiko Pedro Llamas eta Dani Lopezen monologo saiorako bina sarrera.

**Iñigo Garitano Larrañaga** (Bergara)

**Gaizka Eraña Arana** (Arrasate)

### Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.  
Tel.: 943 25 05 05  
klub@goiena.com  
goienakluba.com



## KULTURA

# Tapoiak kentzeko, hardcorea

Hardcore musikak zeukan lekua berreskuratzeke egingo dute Tapoifest jaialdia, bigarrenaz

JON BEREZIBAR | BERGARA

Gaur zortzi eta asteburu guztian zehar Bergarako gaztetxea atzera ere eta aspaldiko partez itzuliko da euskal hardcore zaleen lurraldea izatera. Eskubide historiko gertukorik ez zaio falta Bergarari horretarako. Otsail eta zapatuan, hilak 22 eta 23, Tapoifest jaialdia ospatuko dute.

## Etxean bezala

Debagoieneko musikaren mapan lehen Arrasate punkaren gotorleku zen moduan, Bergara hardcorean lerratu zen. 90eko hamarkadan bor-bor egin eta sasoi hartan loratu eta zabalduko taldeak ezagunak dira oraindik euskal musikazaleen belarrietan. Fly Shit, Bost Axola ala Supercools -izen ezagunen artean- tartean eta Euskal Herri osotik etorritako taldeekin, kontzertu asko egiten ziren orduan. Donostialdean osasuntsu eutsi dio eszenak, baina ematen du Bergaran apaltze-ira jo duela sukarrak. Ez, ordea, Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak, mesedez* irratsaiokoen kasuan, eta, iazkoarekin pozik, aurten ere, hilaren 22ko astebururako Tapoifest jaialdia antolatu dute. Txapa Irratiaren eta Bergarako

Gaztetxearekin batera antolatu dute jaialdia aurten ere.

## Asteburu betea


Barikutik domekara izango da jaialdia eta inguruko eta Gipuzkoako taldeek joko dute, batik bat. Otsailaren 22an, egubakoitza, 22:30ean joko dute Managaitz (Zarautz), Hardflip (Bergara), HHD (Gipuzkoa eta Bizkaia) eta Kaosarenasoak (Eibar-Soraluze). Azken horien kasua, gainera, berezia da: uztear zeudela eta antolatzaileek komentzitu egin zituzten jotzera animatzeko. Zapatuan, oster, 18:00etan hasita, Lukas Prest (Eskoriatza) eta Layo Raser (Irun) taldeek joko dute eta 22:30ean, Hernia (Zarautz), Humilitate (Zarautz) eta Perras Salvajes (Madril) taldeek.

Kontzertu guztiak agertoki txikian egingo dituzte, gaztetxean. Egubakoitz eta zapatu gauetako sarrera 3 euro izango da eta zapatu arratsaldeko saioa doan da. Hain zuzen, zapatu arratsaldeko kontzertuen artean iazko jaialdiko irudiak erakutsiko dituzte. Amaitzeko, DJ Okerreko eta herriko beste hainbat ibiliko dira hardcore musika jartzeko.

RAUL SANCHEZ  
ANTOLATZAILEA

"Taldeak ez hainbeste, baina zaleak oraindik asko daude"

lazkoak animatuta erpikatu duzue aurten?



R.S.

Aurreko urtean oso ondo ateratu zen, bai gerturatu zen jendearengatik eta baita kontzertuei dagokienez. Gogotsu geunden, eta bigarren urtez egiteko animatu gara. Espero dugu iazkoaren antzerira irteera aurten. Urtean zehar Bergaran hardcore kontzertu gutxi egiten dira, eta behar hori sumatu genuen. Gustuko jaialdia antolatu dugu, horixe da dena.

## Behera egin du hardcore musikak Bergaran?

Lehen, talde ugari zegoen, eta orain, ez dago hainbeste. Edozelan ere, zaleak, behintzat, badaude.

## Betiko zaleak espero dituzue?

Lehen taldeetan jotzen zutenak etortzen dira, eta inguruan, Soraluze eta Eibartik beti etorri ohi da jendea.

## Tapoiak, zer, badaezpada ere?

Irratsaiokoen izenarekin egiten dugun txantxa da, eta bai, aurten ere banatuko ditugu, ohiturarekin jarraitzeko.



Humilitate osatzen duten kideak. | MYSPACE



Perras Salvajes, iaz, azaroan. | MUSIKA ZUZENEAN



Lukas Prest eskoriatzarrak. | ARTXIBOA



Irratsaioko kide bi: Jon Leibar eta Kepa Zabaleta. | FACEBOOK

ARRASATEKOBASERRIKO  
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013  
otsailak 16

Martxoak 16  
Apirilak 20  
Maiatzak 18  
Ekainak 15  
Uztailak 20  
Irailak 21  
Urriak 19  
Azaroak 16

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON  
Emplegu eta Garapen  
Ekonomikoen Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariak konfiantza, harbitasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



# goienagida™

Sarean

Mugikorretan

Tabletetan

Paperean

## GURA DUZUN LEKUTIK!



### goienagida™ Deskarga ezazu!



- HTC
- Samsung
- Sony
- Ericsson
- LG
- Motorola
- Alcatel
- Huawei
- Nexus

QR kodea irakurrita aplikazioa jaitsi eta GIDA sakatu.




- iPhone eta iPod touchekin bateragarria. iOS 3.0 edo berriagoa behar da.

QR kodea irakurrita aplikazioa jaitsi eta GIDA sakatu.



### BESTEAK



- Nokia
- BlackBerry
- Windows
- Symbian

QR kodea irakurrita edo beheko helbidean.

[m.goiena.net/gida.html](http://m.goiena.net/gida.html)



Webgunean ere

## goienagida™

askoz ere osatuagoa:

Bisita ezazu:

[www.goiena.net/gida](http://www.goiena.net/gida)



## goienagida™ 2013

OÑATI  
BERGARA  
ANTZUOLA  
ELGETA  
ARRASATE  
ARETXABALETA  
ESKORATZA  
LEINTZ GATZAGA  
ARAMAIO

20.700 ale  
Debagoiena  
guztian.



Pedro Llamas | Monologista

# "Dena posible da komedian eta gure bat-bateko eta zuzeneko ikuskizunean"

- ▶ 'Vaya par de Dios' gaur eta bihar, 22:30ean
- ▶ Hilaren 23an Dani Mateo etorriko da Espaloira

MAIDER ARREGI | ELGETA

Pedro Llamas eta Dani Lopez bikoteak hamar urte daramatzate agertokiz agertoki. Eskarmendun monologista, musikari eta *showman*-ak dira. Ikuskizuna bermatuta duzue gaur eta bihar, 22:30ean hasita, Espaloian, *Vaya por Dios, mejorando lo presente* ikuskizunarekin. Pedro Llamasekin hitz egin dugu:

**Zelako ikuskizuna ekarriko diguzue?**

Denetarik eramango dizuegu; izan ere, orain dela urte asko Dani Lopez eta biok elkartu ginean, komedia egitea erabaki genuen. Dauzkagun baliabide guztiak erabiliko ditugu; komedia, monologo eran eginda.

**Musika, baina, zuen ikuskizunaren oinarri ere bada.**

Komediari musika jarriko diogu, girotu egingo dugu. Instrumentu batzuk jotzen badakigu, eta baita abesten ere. Ikuskizun boro-bila izango da. Arlo guztiak ukitzen ditugu: musika, komedia eta inprobisazioa.

**Urrats bat gehiago egin nahi duzue ikuslearekin.**

Bai. Ikuskizun soila izatetik haratago joan nahi dugu eta ikuslearekin elkarrengile izan. Parte-hartzea bultzatu nahi dugu: barre egin, agertokira salto egin, gurekin jolas egin... Hala, monologo huts bat baino gehiago den sentsazioarekin geratzen da ikuslea.

**Telebistan edo zuzenean egiten den lana ezberdina da, ezta?**

Bai, telebistako lana itxiagoa da, eta ez da bat-batekoa. Ikuslea bere etxean dago eta ezin du zurekin hartu-emanik izan; zuzenean, aldiz, gauza asko gerta daitezke. Eta hori ikusleak eskertu egiten du. Dena posible da komedian eta askatasun handiagora ematen digu. Ikusleak freskotasun hori asko eskertzen du.

**Ikuskizuna, beraz, aldakorra da?**

Bai, kasu askotan. Egia da gidoi bat prestatuta daukagula, baina gero hori aldatu egiten da ikusleak egiten dituen iradokizunen arabera. Ikuskizunean barrena, ikusleei ekarpenak egiteko eskatzen diegu. Gustatzen zaigu. Izan ere, gaurkotasunez jardun dezakegu. Joko handia ematen digute ager-

tokian momentuko musikak, krisiak edota telebista saioek.

**Zelakoa da Pedro Llamas agertokian?**

Etxean dagoen edozeinen modukoa naiz, baina lotsa txikiagoarekin. Behin agertokira igota, armadura bat jartzen dut eta egoera arrunt batean kontatuko ez nituzkeen gauzak kontatzen ditut. Agertokiak ematen dizun ausardia hori aprobetxatzen dut.

**Eta Dani Lopez?**

Danik ere badauka puntu hori; izan ere, edozein elkarriketatant esango ez lukeena kontatzen du. Bion arteko elkarrengite hori sor dadin ezinbestekoa da. Askotan, ikuskizuna bukatu eta galdetzen digute: baina non ezagutu duzue elkar zuek biok? Ezberdina gara, baina biok komedia egiten dugu abesten edo inprobisatzen.

**10 urte daramatzazue bikote moduan ikuskizunarekin alde batetik bestera.**

Arlo askotan lan egiteko aukera izan dugu, gainera, *Vaya por Dios, mejorando lo presente* ikuskizunarekin. Telebistan eta zuzen-



Pedro Llamas eta Dani Lopez monologistak. | 'VAYA POR DIOS' BIKOTEA

nean. Baina orain, Interneterako lan asko egiten ari gara. Jendeak etxean, lasai, bost minutuko bideoak ikus ditzake eta lagunekin trukatu. Horrek osatzen dugun bikotea bizirik mantentzen du.

**"Ikusleen iradokizunen arabera ikuskizuna aldatzen dugu"**

**Zer espero duzue Elgetako ikusleen aldetik?**

Dena eman dezatela! Askotan, jendeak espero du komikoak ematea dena, baina guk euren iradokizunak nahi ditugu. Gure helburua da, une batez, nork bere arazoak ahaztea eta denok elkarrekin komedia gozatzea. Ez dugu barre erraza bilatzen; jendeak entzundakoa hausnartzea nahi izaten dugu. Ikusleak daukan arrearitziaren arabera, era batean edo bestean jasoko du guk eskainitako umorea.



Emon taldearen *promo* argazkia. | EMON TALDEA

## Emon taldea berrituta dator lan berriarekin besapean

Estiloa ez ezik, abeslaria ere aldatu dute; Eneko Longarte durangarrak jarriko dio ahotsa taldeari

M.A. | BERGARA

*Konfeti kolore* izeneko diskoa laster aurkeztuko digu Emon talde bergararrak. "Aurreko lana ezagutzen duenak nabariko du lan honetan aldaketa nabarmena dugula. Lehen diskoko kontzer-

tuak amaitu ondoren, aldaketarako gogoia geneukan, gauza berriak probatu, gustatzen zaizkigun erritmo berriak probatu... taldekide bakoitzak iturri ezberdinetik edaten du, eta horrek disko anitza egin izana ekarri-

du", azaldu digu Aritz Alustizak, Emon taldeko kideak. "Ez da oso erraza disko hau definitzea: erritmo latindarrak, runba, reggae... estilo aldetik oso anitza da. Abeslari berria ere proposatzen dugu, Eneko Longarte durangarra izango da Emonen ahots nagusia aurrerantzean".

*Konfeti kolore* diskoa oso alaia eta erabat festa girokoa da. "Abesti batzuetan bertsolari gazte batzuen laguntza ere izan dugu. Letrak positiboak dira; hala ere, badira pare bat abesti alde kritikoa jorratzen dutenak: Kuku-tzako gaia eta euskal gazteriarena, hain zuzen ere".

Diskoa lagunartean egin dute-la kontatu digute. "Mutrikuko AME estudioan grabatu dugu eta Donostian Doctor Master-en masterizatu. Harribitxien artean, La Pegatina talde katalanaren kolaborazioa izan dugula esan dezakegu. Gustuko dugun taldea da, gainera".

Aurkezpeneko lehen kontzertua Iparraldean egingo dute, Zuberoako Sohüta herrian. Eta martxoaren 9an Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira festarako doinuekin.

## Hitzen balioaz hausnartzeko antzezlan ezberdina

'Balitzen hioa' antzezlan estreinatuko dute Eskoriatzan, Korrika Kulturalaren barruan

M.A. | ESKORIATZA

Ainhua Agirreazaldegia, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariek testu batean sakondu dute, euren ustea islatzen duena. Eta orain, prestatutako gidoi hori agertokira ekarri dute Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Untzuetak aktoreek.

"Ikuskizuna ezberdina da; hasieratik esperimendu gisa planteatu genuen. Lau bertsolariei baldintzarik gabe nahi zutena idaztea planteatu genien", azaldu digu Hodei Untzuetak aktoreak. "Guk lotura eman diegu testu horiei, eta istorioa sortu. Hitzen balioa da gaia. Hausnarketa ezberdinak azalratzen dira bertan".

Hala, ikusleari ere gogoeta hori egiteko, hitzen balioen

inguruan hausnartzeko gonbidapena egiten die *Balitzen hioa* ikuskizunak.

**Erraza eta entretenigarria**

Testu sakonak dituen arren, erraz ikusten den antzezlan dela azaldu digu Untzuetak. "Ikuspuntu ezberdina da, testuak sakonak eta bost bider irakurri behar direnak; baina lehen aldia dena ez jaso arren, oso entretenigarria da, hasieratik bukaerara. Eszenografia ere oso polita da, eta entretenigarria; obra ez da astuna egiten", gaineratu digu.

Urtebeteko lanaren ostean, orain, herriz herri aurkeztuko digute lau aktoreek ikuskizun berezi eta ezberdin hau. Hilaren 22an, Eskoriatzako unibertsi-tatean, 19:30ean.



Jon Muxika | Igerilaria

Jon, Bergarako Agorrosin kiroldegiko igerilekuan.

## "Txikitatik ibili naiz igeriketa munduan; izan ere, zerbait nahi duenak denbora eskaini behar dio"

PERU ARREGI | BERGARA

Jon Muxika (Bergara, 1994) bergarra igeriketa-zale amorratua da. Txapelketa ugari hartu du parte. Sevillan eta Terrassan aritu zen aurreko urtean Espainia mailan lehiatzen. Orain, Arrasateko Arizmendi Ikastolan ari da monitore izateko Tafyd modulua ateratzen.

**Igeriketan ibiltzen zara, batik bat. Noiztik duzu zaletasun hori? Zer dela eta hartu zenuen horretan jarduteko erabakia?**

5 urte nituenean hasi nintzen igeriketako ikastaroetan; gustura ibili izan naiz betidanik. Bergarako Klubetik deitu zidatenean, hara joan nintzen bi aldiz pentsatu gabe, eta hortik hasi zen dena.

Igeriketan aritzeko ohitura izan dut txikitatik. Izan ere,

nolabait, erlaxatu egiten nauela esango nuke.

**Lehiaketa askotan aritu zara. Zeintzuk izan dira azpimarragarriak?**

Iaz, udan, Sevillan eta Terrassan izandakoak aipatuko nituzke. Lehenengoan, junior mailan lehiatu nintzen eta Espainiako txapeldunorde gelditu nintzen, zilarrezko dominarekin. Terrassan ere asko disfrutatu nuen.

Bestetik, Donostiako Irlako XV. igeriketa zeharkaldian bosgarren geratu nintzen, eta bertan ere gustura ibili nintzen.

Azken asteburu honetan Tolosan Gipuzkoako txapelketa izan genuen. Bertan txapeldun izan naiz, bai nire kategorian eta bai absolutuan, 50, 100 eta 200 metroko bizkar estiloan.

Errelebu guztietan ere irabazi dugu, baina estilo askeko 200 metrokoan hirugarren gelditu nintzen.

**Lehiakideen artean giro ona daukazue? Elkar ezagutzen duzue?**

Bai; igeriketa mundu honetan gabiltzan guztiok ezagutzen dugu elkar. Orain, Irungo talde baten nabil, eta Euskal Herriko igerilari onenekin batera entrenatzen gara Donostiako Anoetako igerilekuan.

**Entrenamendu eta ikasketen artean nola moldatzen zara? Zein da zure eguneroko ordutegia?**

Asteleheneetik larunbatera aritzen naiz, goizez, egunero; hala ere, batzuetan, arratsalde ere eskaintzen diot denbora.

Goizeko 6etan jaikitzen naiz eta 7 eta erdiak arte egoten naiz

kiroldegian. Ondoren, 8etan, klaserara joaten naiz, eta ordu bi eta erdietan ateratzen naiz. Siesta egin, eta berriz entrenatzera!

**Denbora asko eskaintzen diozu orduan... ez al zara nekatzen?**

Bai, zer edo zer... Baina gustura ibiltzen naiz, zerbait nahi duenak dedikazioa jarri behar du eta.

**Modulua zer moduz daramazu? Zer ikasten duzu bertan?**

Monitore izateko ikasketak dira, eta lanbide honek eskatzen dituen eginkizunak ikasten ditugu. Kirola egiteko orduan planifikazioak antolatzen, gimnasioan aritzeko plangintzak... Interesgarria da, eta gustura ari naiz bertan.

**Eta honek zein irteera eskaintzen dizkizu? Baten bat erabakita daukazu?**

Entrenatzaile, spinningeko monitorea, gimnasioko monitorea... hau da, mundu horretan aritzeko, batik bat.

Izan ere, igeriketarekin lotutako zerbait izan nahiko nuke; entrenatzaile, seguru.

**Profesional izango zinateke igeriketan?**

Ez, ez, hori oso urruti dago nire eskuetatik. Zaila da.

**Igeriketa profesionala jarraitzen duzu? Lehiaketak, Olinpiar Jokoak... Kirolariren bat aipatuko zenuke?**

Bai, jarraitzen dut. Igerilari ospetsu eta ohikoena Michael Phelps izaten da, baina, beste aldetik, Aschwin Wildeboer aipatu nahiko nuke. Espainia mailan lehiatu izan da gurekin.

**Igeriketaz gainera, baduzu beste zaletasunik?**

Bai, badira zenbait. Triatloia, esate baterako, jarraitzen dut. Nire anaia horretan aritzen da. Bestela, ziklismoa-edo; kirol gehienak gustuko ditut.

### PERTSONALA

**Bizi izateko leku bat aukera ezazu:** Donostia.

**Zaletasun bat:** Igeriketa.

**Zure musika talde gogokoena:** Berri Txarrak.

**Janari bat:** Makarroiak.

**Bidaiatzeko leku bat:** Kanaria Handia.

**Pelikula bat:** *Gladiator*.

**Edalontzia, erdi hutsa edo erdi betea?** Erdi betea.

**Gauean, parranda ala etxean gelditu?** Parranda.

MIKEL MUXIKA





## URTEURRENA

**Luisa Ruiz San Prudencio**

Abilio Alzolaren alarguna



2012ko otsailaren 28an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Maria Teresa Usatorre Pagoaga**

Joaquin Gabilondoren alarguna



Bergaran hil zen 2012ko otsailaren 16an.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Zure oroimenak indartzen gaitu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Daniel Mendizabal Ayastuy**

2012ko otsailaren 17an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Mariano Martinez Estevez**

Victoria Gutierrezen alarguna



2012ko otsailaren 14an hil zen, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA


**Gloria Aguirrebeña Lizarazu**

Bergaran hil zen 2012ko otsailaren 29an, 99 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Tomas Bakaikoa Sotil**

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Jose Maria Uribarren Leturiaga**

2012ko otsailaren 14an hil zen.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 17an, 11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Mila Arregi Letamendi**

2012ko otsailaren 15ean hil zen, 77 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 16an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Jose Manuel Zurutuza Goiburu**

2012ko otsailaren 18an hil zen, 62 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Aitor Alzelai Mendia**

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 16an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

**Esteban Ibañe Iriarte**

2012ko otsailaren 28an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

**Benito Perez Romeo**

Arrasaten hil zen 2013ko otsailaren 11n, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2013ko otsailaren 15ean.

## ESKER ONA

**Maria Marzo Martinez**

Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 5ean, 83 urte zituela.

Senarra: Gonzalo Ruiz Ruiz; seme-alabak: Patxi, Esther eta Koldo Pereira, eta Gonzalo (+). Biloba: Asier Kyryl; eta gainontzeko senideek:

Eskerrak eman nahi dizkizute hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

Bergaran, 2013ko otsailaren 15ean.

## OROIGARRIA

**Miguel Egaña Guridi**

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.

Itxasoren koadrilakoak. Oñatin, 2013ko otsailaren 15ean.

## OROIGARRIA

**Iker Lasaga Llamas**

'Titino'



2013ko otsailaren 13an hil zen, 35 urte zituela.

*Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Zure lagunak. Arrasaten, 2013ko otsailaren 15ean.

## MUSIKA

**ARRASATE** Blues and Decker gaztetxean

Asturiasko laukoteak *Stealin' the blues* diskoa aurkeztuko du. Ordoxiatik gutxi duen bluesa, sofistikazioa eta zatarkeria, hiruretatik eskaintzen du taldeak. 2009an elkartu eta 2010ean lehen make-ta grabatu zuten. Sarrera, doan.

Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 22:30ean.

**OÑATI** Maskarada eta disko festa

Topagunean maskarada eta disko festa egingo dituzte. Sound Project bikoteak ipiniko du musika gaztelekuan.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00ean.

## ANTZERKIA

**BERGARA** 'Pareja o tríos' antzezlana

Aitor Borobia bergararrak *Pareja o tríos* antzezlana taularatuko du Tartufon. Sarrerak bost eurotan saltzen dituzte.

Etzi, domeka, Tartufon, 19:30etan.

## UMEAK

**ARRASATE** Ludoteka ibiltaria

3-12 urteko gazteentzat. Txatxilipurdik antolatuta.

Bihar, zapatua, Musakolako gaztetxokan, 10:30ean.

## NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

OTSAILA 15  
OTSAILA 21

## ERAKUSKETAK

**ARAMAIO** Alex Mendikuterren argazki proiektzioa

Argazkilari aramaioarrak 2010ean eta 2011n ateratako argazkien erakusketa jarriko du. Gaur, egubakoitza (19:00-20:00), bihar, zapatua (19:00-20:00), eta etzi, domeka (13:00-20:00), egongo da zabalik erakusketa.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan 19:00etan.

**OÑATI** 'Gure inguruko arkeologia, paleontologia eta labar-arte' erakusketa

Oñatiko XVIII. Ingurumen Jardunaldien barruan, eta Natur Eskolak antolatuta.

Otsailaren 18, astelehena, kultura etxean, 18:00etan.

## IRTEERA

**ARAMAIO** Eski irteera Orixolekin

Orixol elkarrekin, urtero moduan, eski irteera antolatuta du. Jakan hartuko dute estatu.

Gaur, egubakoitza, irteera autobus geltokitik, 19:00etan.

**OÑATI** Galdamesko mendietara irteera Aloña Mendirekin

Galdamesko mendietara irteera Aloña Mendirekin. Bilbo inguruko meatokietan zehar ibiliko dira. 14 kilometro eta 600 metroko desnibela dituen ibilaldia. Zailtasun tekniko bakoa.

Etzi, domeka, irteera postetxe pareko geltokian, 08:00etan.

**ARRASATE** Mendi irteera eta sagardotegian bazkaria

Besaide mendi taldeak antolatuta Otxaurte-Etxegarate-San Gregorio ibilaldia egingo dute parte-hartzaileek. Ondoren, Ataungo Urbitarte sagardotegian bazkalduko dute elkarrekin.

Etzi, domeka, irteera Garibai kaleko geltokitik, 07:30ean.



GOIENA

**BERGARA** Anger eta Tooth taldeen zuzenekoak

Anger arrasatearrek *Hirugarren azala* diskoa aurkeztuko dute kartzela zaharrean, 15 urteko ibilbidearen ondoren. Bestalde, Gernikako Tooth taldeak izen bereko lanean jasotako kantuak joko dituzte zuzenekoan.

Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:00etan.

## HITZALDIAK

**BERGARA** Hizkuntza Ekologiari buruzko hitzaldia

Jardun elkarrekin antolatuta *Hizkuntza Ekologia* delako berbaldia egingo dute.

Otsailaren 20a, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI** 'Giza eboluzioa; lehenengo hominidoetatik gaurdaino' hitzaldia

Oñatiko XVIII. Ingurumen Jardunaldien barruan, Natur Eskolak antolatuta. "Orain dela zazpi milioi urte Afrikako primateen talde batek ezaugarri fisiko eta jokatibitate berriak garatu zituen". Horatik hasita egingo du hitzaldia Mikel Iriondok, Antropologian doktore eta EHUko irakaslea.

Otsailaren 20a, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

**ARRASATE** Haurren obesitateari buruzko berbaldia

Haurren artean obesitatea osasun publikoaren arazo garrantzitsua bihurtu da azken urteetan, hazkunde handia izan duelako. Daniel Jimenez Debagoieneko ESIOko Obesitate eta Pediatria-Endokrinologia Klinikako arduradunak eta Agustin Rodriguez eta Lisette Delgado pediatrek emango dituzte obesitatearen gaineko xehetasunak. Hitzaldi bana egingo dute Arrasaten eta Bergaran.

Otsailaren 20a, eguaztena, Kulturaten, 19:00etan.



## AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI

**Renault Twingo Dynamique 1.5 DC**

- 2011
- Diesela
- 8.526 Km
- Beltz nakaratua

**RENAULT**  
AUTOBERRI



9.500 €

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

## Autoa finantzatzu gero, DESKONTUAK!

• Renault Clio III 1.5 D	9.500 €
2010   Diesela   22.343 Km   Urdina, Extreme	
• Renault Clio 1.5DCI Conf.Expres	5.500 €
2006   Diesela   146.300 Km   Grisa, platinoa	
• Renault Megane III Dy 1.9 130 ZP	14.100 €
2011   Diesela   10.638 Km   Grisa, platinoa	
• Renault Laguna Berlina Privilege Aut Berria	11.300 €
2008   Gasolina   42.000 Km   Nautilus urdina	
• Renault Espace 2.0 dCi Expressio	11.500 €
2007   Diesela   106.000 Km   Gorri bizia	
• Renault Latitude 2.0dCi Express	19.500 €
2011   Diesela   0 Km   Grisa, altzairua	
• Renault Kangoo Combi laut 1.5 80 ZP	9.800 €
2010   Diesela   33.800 Km   Zuri glaziarra	
• Renault Kangoo Confort 1.5 DCI furgioa	5.580 €
2008   Diesela   140.200 Km   Zuri glaziarra	



18.000 €

**Citröen DS4 1.6e-HDi Design STT**

2011 | Diesela | 5.000 Km | Urdin iluna

**CHAPIME**

Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citröen Berlingo Com. 1.6HDI 110 SX Multispace	14.500 €
2012   Diesela   22.500 Km   Gris argia	
• Citröen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150	30.500 €
2012   Diesela   750 Km   Marroi iluna	
• Citröen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	36.500 €
2012   Diesela eta elektrikoa   8.900 Km   Txuria	
• Citröen C5 2.0HDI Business	14.500 €
2010   Diesela   39.600 Km   Gris argia	
• Citröen C8 2.0HDI Seduction 160	23.000 €
2011   Diesela   45.000 Km   Gris iluna	
• Citröen C8 2.0HDI Seduction	21.300 €
2011   Diesela   48.000 Km   Gris argia	
• Citröen C-Elyse Hdi EXCL 90 ZP	14.250 €
2012   Diesela   500 Km   Urdina, Teles	
• Citröen Evasion 2.0 Hdi SX	4.000 €
2003   Diesela   175.000 Km   Gris argia	





# goiena

2013-02-15

BUKATZEKO

## Animatzaile, musikari eta terapeuta

- ▶ Jose Mari Soroa donostiarra oso ezaguna da Debagoieneko zaharren egoitza eta eguneko zentroetan
- ▶ Aratuste-martitzenean Arrasateko Iturbiden izan zen eta dantzan ipini zituen bertako egoiliarak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Jose Mari Soroa donostiarra da, baina Debagoienean oso ezaguna da, batik bat zaharren egoitzetan eta eguneko zentroetan. Urtero bisitatu ditu Bergarako Mizpialde eta Arrasateko hainbat egoitza. Oñati, Aretxabaleta eta Gatzagaraino ere joaten da. Zertara? Bertako egoiliarak alaitzera eta irribarre polit bat ateratzera. Nagusilango boluntarioa da eta gitarra eskuan hartuta ehun emanalditik gora eskaintzen ditu urtero: "2003an hasi nintzen lan honetan eta dagoeneko ia 700 emanaldi egin ditut. Betidanik gustatu izan zait abestea eta gozatu egiten dut lan honekin", kontatu zigun Soroak martitzenean Iturbide egoitzan. Hark gozatu eta baita egoiliarrek ere. Soroak berehala ipini zituen dantzan arrasatearrak.



Jose Mari Soroa, martitzenean Arrasateko Iturbide egoitzan egindako emanaldian. | ARRITXU BARRUSO

### Lertxundi eta Leterekin ibilia

Orain zaharren egoitzetan dabilen arren, makina bat plaza eta taula zapaldutakoa da Soroa. "Jose Mari eta Mikel Usurbilgoak zen gure izena. Nire lagun Mikelekin herriz herri ibiltzen nintzen. Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Pantxoa eta Pellorekin behin baino gehiagotan abestutakoa naiz".

### Hizkuntzetan ere trebea

Gitarra jo eta abesteaz gain, lan ere gogor egin du Soroak bere bizitzan zehar. Sidras y Zumos Eva enpresa sortu zuen 1964an. Hizkuntzetan ere trebea da. Alemana, ingelesa, frantsesa, italiarra, katalana, espainola eta

euskara hitz egiten ditu. Kantuan ere batean edo bestean egiten du, baita portugesez ere, hala behar izanez gero.

### Terapia bikaina

Soroak kontatu digu poztasun eta bitxikeria asko ematen diz-

kiola lan horrek: "Egoitza batean Errioxako kantua abesteko eskatu zidan bikote batek. Nirekin batera gizona kantuan hasi zen. Emazteak orduan esan zidan gizonak dagoeneko hitzik ez zuela egiten, eta nirekin kantuan ikustea hunkigarria izan zen".

### AZKEN BERBA

AINTZANE  
OARBIDE



Debagoienean,  
gurea

Euskal ekonomiaren egoera kezagarria da. Politikoki ere oso gertutik begiratzen omen gaituzte Espainia eta Europako komisarioek... "Kontuz ze neurri hartzen duzuen, begira gaude eta". Madrildik gure burujabetzaren aurkako erasoak ditugu egunero. Gipuzkoako udaletxe guztietan, berdin da nor dagoen agintean, guztiak, Madrilgo errekorreak aplikatzen ari dira halabeharrez. Honen aurrean nola jokatu? Nola zuzpertz gure ekonomia? Gurea saltzen hasi beharra dugu, gure gizarte eredu, gure Herria, gure identitatea, gure industriaren baloreak, ondo egindako gauzak, kalitatezkoak. Baina gurea erosten hastea ezinbestekoa da. Gutako bakoitzak asko egin dezake. Nik deialdi bat egin nahi dizuet Debagoienean bizi zareten guztioi. Gure enpresa eta kooperatibak oso une gogorak jasaten ari dira. Gure bailaran egiten diren elektrogailuak erosi behar ditugu guztiok. Inguruan dauden enpresek ere elektrogailu hauetarako piezak egingo dituzte, lantegiek aurrera egingo dute eta kontsumoak gora. Egin dezagun ahalegina bertako produktuak erosi, mankomunitate eta udaletan produktuak bertako lantegiei eskatuz. Lelo berria proposatzen dizuet: Debagoienean, gurea.





# 12

## EUROPEAR KANPAINA

ENTZUMEN ARAZOEI AURRE HARTZEKO

indarrean martxoaren 13ra arte

### ZURE ENTZUMENA ZAITZEN LAGUNDU NAHI DIZUGU

590€  
-tik hasita

B.P.S. Nº 45-56/10.

\* Kontsultatu modeloak zure GAES zentroan. Ezin dira pilatu beste eskaintza edo promozioekin.

Aprobetxa itzazu ordaintzeko erraztasunak eta eraman ezazu zure audifonoa.

Otolora Lizentziatua, 18 behea • Tel. 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero, 10 • Tel. 943 76 94 55 • BERGARA